



# Emakumeen Etxea, hamar urte memoria kolektiboa eraikitzen

Txostengilea:  
Colectiva XXX. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza  
Elementu grafikoak: EMEME Proiektuak  
Eguna: 2020ko uztaila



## Aurkibidea

1.	Aldez aurreko iruzkin batzuk, dokumentuaren sarrera eginez.....	3
1.1.	Zergatik kontatu historia (orain).....	3
1.2.	Sistematizazioan erabilitako metodologia.....	4
1.3.	Nola irakurri dokumentu hau.....	5
2.	Etxeak hamar urte.....	6
2.1.	Etxea eraikitzen, historia egiten.....	6
2.1.1.	Etxea, Donostiako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren ametsa .....	7
2.1.2.	Erabaki-prozesua.....	7
2.1.3.	Tokia antolatzea: Okendo.....	11
2.1.4.	Lehen urratsak: desilusio politikoak eta kogestioa finkatzea.....	13
2.1.5.	Etxea bizitzaz betetzen eta proiektuaren indarra erakusten.....	16
2.2.	Etxea datuetan.....	21
2.3.	Nola funtzionatzen duen Etxeak.....	28
3.	Etxea zeharkatzen: bide nagusiak.....	34
3.1.	Etxea: esparrua eta eredia.....	36
3.1.1.	Harrera ematen digun esparruari buruzko gogoetak.....	36
3.1.2.	Etxean gertatzen dena: programazioa.....	38
3.1.3.	Kogestio eredia: moldeak hausten dituen proposamen baten ahalmena.....	41
3.2.	Emakumeak ahalduntzeko Etxea.....	47
3.2.1.	Ahalduntzearen hainbat alderdi.....	47
3.2.2.	Ahalduntzerako baldintzak sortzen dituen Etxea.....	50
3.2.3.	Ahalduntze-prozesuen zerbitzura dauden zerbitzu, ikastaro eta taldeak.....	52
3.2.1.	Norbanakoaren jabekuntzatik jabekuntza kolektibora.....	57
3.3.	Etxe feminista bat.....	61
3.3.1.	Feminismo anitz baten gainean eraikitako eta haren bizileku den etxe bat.....	61
3.3.2.	Hainbat eratako emakumeak protagonista.....	67
3.3.3.	Donostiako mugimendu feministaren etxe propioa?.....	69
3.4.	Norekin eraikitzen da? Nola ikusten da etxea? Aliantzak eta erreferentzialtasuna.....	74
3.4.1.	Ezagutzen da Emakumeen Etxearen proiektua?.....	74
3.4.2.	Aliantzak: beste batzuekin sareak osatzaren garrantzia.....	76
3.4.3.	Arretagunea Udalean ipiniz, zer-nola ikusten da Emakumeen Etxea?.....	78
4.	Bidea egiten jarraitzea: beste hamar urte Donostiako Emakumeen Etxeak.....	84
4.1.	Ikaskuntzak.....	84

4.1.1.	Etiket kanpo gertatzen dena.....	84
4.1.2.	Barrura begira.....	85
4.2.	Etorkizunera bideratzen duten nahiak.....	89
5.	Eranskinak.....	93
5.1.	Egindako landa lana.....	93
5.2.	Aztertutako dokumentazioaren zerrenda.....	95
5.3.	Udaleko langileei helarazitako galdetegiaren azterketa.....	99

# 1. Aldez aurreko iruzkin batzuk, dokumentuaren sarrera eginez

## 1.1. Zergatik kontatu historia (orain)

Dokumentu hau irakurtzen hasi aurretik, testuinguruan kokatu nahi dugu, eta hurrengo orrialdeetan aurkituko duguna ulertzeko gako batzuk eman. Galdera hau egin daiteke: **zergatik partekatu dokumentu hau orain, 2020. urtearen erdialdean?** Emakumeen Etxeak hamar urte betetzen dituelako! Gelditzeko une egokia da, egindako guztia, bizi izandakoa eta sentitutakoa jasotzekoa. Aitzakia ona da Etxe partekatu honen historia kontatzeko. Historia barrurantz kontatu nahi izan dugu, sistematizatzeko behar den denbora, nekez aurkitu ohi duguna, hartuz. Eta kanpora ere kontatu nahi izan dugu, Etxea orain den guztia eta urte hauetan izan den guztia ulertarazi ahal izateko, gutxienez.

**Zertarako balio du historia kontatzeak?** Bizi izandakoa kontatzeak denen artean eraikitakoaren garrantzia ulertzeko bidea ematen digu. Proiektu komunak dituen kidego kolektibo bateko kide garela sentiarazten gaitu. Eta harrotasuna ere sentiarazten digu (harrotasun ona), Etxea zer den eta nondik datorren ahoz azaltzean gertatu den bezala. Adibidez, Madrilgo lankide feminista batzuk pentsatzen ari ziren etxe baten aldeko apustua egitea ala ez, eta esperientzia kontatzeko eskatu ziguten: “Joan ginen. Hitzaldia lauren artean banatu genuen. Hitz eta pitz aritu ginen. Denok hitz egin genuen eta ni harro sentitu nintzen... [...]. Esaten nuen: ‘zer garrantzitsuak garen’ [...]. Sentsazio hori ez nuen inoiz izan lehenago, eta kontatzen genuenaz harro nengoelako sentitu nuen hori. Oso ondo kontatu genuen, gainera. Egun hartan, lehen aldiz, Etxeaz harro sentitu nintzen. Agian diskurtso osoa segidan egiten denean...” Kontatzeko orduan egiten zara kontziente: “Egia da egin dugun eta muntatu dugun guztia. Zu zeu kezkatzen zara, inoren laguntzarik gabe” (Etxeko taldea, 1. saioa). Eta, gainera, kide batek baino gehiagok kontatzen duenez, hobeto ulertzea lortzen da, eta lokarriak sortzen dira: “oraintxe jakin dut kontatu duzuen guztiaren berri, eta izugarri gustatu zait” “Ez nuen ezagutzen orain arte egin duzuen ibilbide guztia. Eta beste gauza asko ere gertatzen dira, eta nik, hala ere, ez dut haien aditzerik... Orain ulertzen dut” “Benetan beharrezkoa da [memoria historikoa izatea, hau guztia gertatu dela jakitea]”. (Etxeko taldea, 1. saioa). Azkenean, kontatzean, lehendik ere zeuden zalantza batzuei heldu dakieke.

Kontakizun hau egiteko, [Colectiva XXX](#)-ek lagundu digu **sistematizazio eta oroimen kolektiboko ariketa** hau egiten. Dinamizatutako prozesua izan da, eta arduradun batzuk izan dira hura diseinatu eta koordinatzeko. Baina, aldi berean, partaidetzakoa izan da: Etxeko 60 emakume\* inguruk parte hartu dute zuzenean. Donostiako Udaleko 290 lagunengana begirada ere izan dugu gure ondoan. Prozesu honetan, ahots eta bizipen

desberdin guztiak jaso nahi izan ditugu, eta kontakizuna eraikitzeke zilegitasuna eman diegu guztiei. Ez da ohiko ebaluazioa (zer egin den ondo, non egon diren akatsak, ahuleziak, indarrak...); are gutxiago, kanpo ebaluazioa, aztertzen duten horrekin loturarik ez duten batzuek egindakoa. Sistematizazioa eta ikaskuntza bilketa da, nolabait esateko, eta, espero dugu horrek balio izatea Etxearen hurrengo urteetako lanaren oinarri izateko.

## **1.2. Sistematizazioan erabilitako metodologia**

**Nola egin dugu?** Etxeko beharrei eta Etxeak bizi duen errealitateari egokitutako ibilbide metodologikoa diseinatzen saiatu gara. Lehentasuna eman diogu ahalik eta emakume gehienek parte hartzeari, eta, batez ere, kalitateko parte hartzea errazteko dinamikak eta eremuak asmatu ditugu. Online tresna batzuk ere sartu ditugu, hala nola galdera sortak, prozesu honetan jasotako ahotsak ozenkiago entzun ahal izateko. Horietaz gai, beste tresna batzuk ere erabili ditugu, memoria jasotzeko, besteak beste, akta grafikoak, EMEME Proiektuak-eko Maiteri esker. Azkenik, Colectiva XXK talde gisa, prozesuari lagun egin diogu, eta hamar urte hauetan bizi izandako guztiaz guztiz jabetzen saiatu gara.

Printzipio metodologiko horiek ikerketa biltzeko tresna hauetan oinarritu dira:

- Taldeko saioak, honako hauekin: prozesuaren talde eragilea; Berdintasun Saileko langileen eta Etxearen funtzionamenduan parte hartzen duten bazkideen taldea; Berdintasun Saileko langileak; eta Etxearen erabiltzaileak (horietako batzuk, Etxeko bazkideak ere baziren).
- Elkarriketak, honako hauei: Elkarteko lehendakaria, Etxeko dinamizatzaileak, eta Etxeak funtzionatu duen denboran Berdintasuneko Zinegotzitza bete dituzten dituen hiru pertsonak.
- Galde sortak, honako hauei: ahalduntze taldeen, ikastaroen eta zerbitzuen emaile eta hezitzaile arduradunak; Donostiako Udaleko langileak.

Dokumentuan ageri diren aipuak, komatxo artean eta etzanda daudenak, iturri horietatik datoz eta behar bezala identifikatuta daude. Nomenklaturari eta egindako landa lanari buruzko xehetasun gehiago izateko, ikus 5.1 eranskina.

Azkenik, Etxerako garrantzitsuak diren agiriak bildu eta sistematizatu genituen: jarduera eta zerbitzuei buruzko informazioa; Etxearen barne kudeaketari buruzko dokumentazioa; Etxeko bizitzari buruzko dokumentazio orokorra; Donostiako genero desberdintasunari buruzko kanpoko dokumentazioa; eta etxea ireki aurreko dokumentazioa. Aztertutako dokumentazioaren zerrenda eta dokumentuak aipatzeko erabilitako nomenklatura 5.2 eranskinean ageri dira.

### 1.3. Nola irakurri dokumentu hau

Zaila da egindako lan guztia orrialde batzuetan jasotzea. Gauza batzuk, gainera, ezin dira hitz soilen bidez adierazi. Aztertze eta memoria egiteko ariketa hau Etxearen proiektua indartzeko beste urrats bat da. **Nola irakurri dokumentu hau?** Dokumentu hibrido bat duzue esku artean. Lehenik eta behin, historiaren deskribapena landu dugu (adierazgarriena eta nabarmenena). Hori lehen blokean jaso dugu; hor hainbat datu ere aurkituko dituzue. Bigarren blokean, etxearen nortasuna ulertzeko funtsezkoak diren ardatz batzuk aztertuko ditugu. Hemen hitzak biltzeko ahalegina egin dugu; batzuk hitzez hitz jaso ditugu, iruditu zitzaigulako horrela haien ekarpena askoz ere handiagoa zela. Eta ehundu ere egin ditugu, zentzu kolektiboa emanaz. Hirugarrenik, etorkizun hurbil batera hurbildu nahi izan dugu, amets egin Etxerako lortu nahi genukeenarekin.

Espero dugu orrialde hauek, bai Etxea ezagutzen dutenarentzat, bai lehen aldiz hara hurbiltzen direnentzat, baliagarriak izatea proiektu honen aberastasuna eta gaitasuna ezagutzeko. Zorionak eta Gora Donostiako Emakumeen Etxea!

#### Gure ahotsak... Etxea niretzat da...

*“Portu segurua.”*

*“Emakume sare bat eta segurtasun esparru bat guretzat.”*

*“Zerbait zoragarria, guztion artean eraiki duguna; oso harro egotekoa.”*


*“Bizitza eta zoriona.”*

*“Militantzia feministako esparru bat.”*

*“Sortzeko lekua.”*

*“Topaleku bat eta emakume asko ezagutzeko aukera.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)







Dena dela, ezin da “Benetako Historia” kontatu. **Ahalegin handia egin da** etxearen nortasuna, funtzionatzeko modua, lanaren edukia eta eragina azaltzen dituzten **datuak hobetzeko**. Baina, gero eta gehiago eta hobeto sistematizatzen den arren, oraindik falta dira datu batzuk. Datu objektibagarri guztiak eskura ez izatea da lehenengo faktorea. Horrez gain, beste faktore bat da historia bi alderdik osatzen dutela: gertatu zenak (datuek laguntzen digute hori oroitzeko), batetik, eta, bestetik, nola bizi zuen gertatutakoa pertsona bakoitzak. Etxeko kontakizuna ez da bakarra. Ahotsak, oroitzapenak eta begiradak askotarikoak dira. Horregatik, puntu honetan jaso duguna ikuspegi desberdinen collage bat da, denak baliozkoak; baina ez dugu izan dena ahots bakar batean biltzeko asmorik. Memoria kolektiboa ehuntzea ez da kontaketa adostu eta benetako bat lortzea, bizi izandakoa partekatzea baizik, eta lortzea prozesuen protagonistak besteen esperientzietan ikustea beren burua islatuta.

Puntu honetan, **mugarriak partekatzea** erabaki dugu, hau da, garrantzi bereziko uneak, Etxea eraiki dutenei arrastoa utzi dieten momentuak komunean jartzea. Ordena kronologikoa ematen saiatu gara, nahiz eta batzuetan denborak ez dauden guztiz argi. Gainera, mugarri batetik bestera, hemen jaso ez diren beste espazio eta denborak ere badaude. Badira, adibidez, “hilekoMugarriak”. Memoria historikoaren saioan “mensualHitos” deitzen genien, txantxetan, hilean behin egiten diren kogestio bilereira erreferentzia eginez. Une gogoangarri horiek irakurtzean, garrantzitsua da atzean dauden soinua ere entzutea: emandako besarkada guztiak, partekatutako barreak, zalantza argituak eta argitu gabe gelditu direnak, urratsak eskaileak gora eta behera, lanbas xukatuak...

### 2.1.1. Etxea, Donostiako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren ametsa

Desioa eta beharra dira Etxearen bi zutabeak. Hirian eta haren inguruan zegoen irrika feminista zen: mugimendu feministan eta emakumeen mugimenduan zegoen, bai eta erakundeetan, politikari zein teknikari moduan, zeuden feministengan ere. Desioa zen, eta beharrezkoa zen; desioa zen, beharrezkoa zelako. Urteetan zehar, indar kolektiboa pilatzen joan zen, eta 2008a aldera hasi zen mamitzen, eta 2010eko azaroan inauguratu zen etxea. Zer gertatu da ordutik 2020ra arte?

### 2.1.2. Erabaki prozesua

2008an, gutxienez **hiru faktore** elkartu ziren, etxea martxan jartzeko. Mugimendu feministak bultzada handia metatu zuen historian zehar. Bultzada horrek laguntza jaso zuen erakundeen aldetik Berdintasuneko zinegotzi konprometitu bati esker. Azkenik, Berdintasun Saileko teknikarien inplikazioak eta ahaleginak azken bultzada bat eman



zioten orduan irekitako aukerari: “Ateratzeko moduan zegoen gaia, pil-pilean. Ilusioa zegoen eta emakume asko lanean” (Erabiltzailea).

## **Historia Berdintasuneko Zinegotzitzaren ikuspuntutik<sup>1</sup>**

*Emakumeen etxea Donostian zen aldarri historiko bat mugimendu feministaren aldetik. Nik Berdintasuna Saila hartzen dudanean hainbat konpromezuekin hartzen dut, bat izan zen Emakumeen Etxea sortu eta emakumeek Kontxako estropadetan parte hartzea.*

*[...] Nik feminismotikan hartzen dut zinegotzi kargua, ez berdintasunatik edo ez emakumea naizelako [...] Eta nirekin lanean aritzeko ez diot eskatzen nere alderdiko bati etortzea baizik eta mugimendu feministako kide bat izan zen nirekin lanean aritu zena.*

*[...] Gero, bigarren pausoa prebio hauetan izan zen Berdintasun departamentua indartu, egonkortu eta teknikariez gainera militante feministez osatzea [...] teknikari lan hori ikuspegi horretatik garatzeko.*

*Hurrengo eremua (Emakumeen Kontseilua) aholku batzorde izatetik batzorde erabakior izatera pasa behar gara. Beraz barne araudia aldatu behar izan genuen plenora eramateko [...] Sailtasun asko jarri zinkidaten aldaketa normatibo horiek egiteko [...] Hor egon zen sekulako negoziazioa batetik Idazkariarekin, eremu legalan. Eta bestetikan, parte politikoarekin, nire taldekidekin eta alkatearekin.*

*[...] Hori lortu ondoren, Kontseiluaren bidez, Emakumeen Etxea modu kolektiboan definitzeko lanari ekin genion. Plangintza bat proposatu genuen, bi urterako, ostiralero elkartzen ginen Emakumeen Etxea eraikitzeko. Eta horri lotutako gauza guztiak eztabaidatu eta adostu behar genituen. Etxeko kogestio eredua [...], zer kogestionatu behar dugu [...], garai haietan, udaletan, kogestio eredua ez zen ezta planteatu ere egiten. Udaleko Idazkaritzak jartzen zizkidan arazoei erantzuteko eta kogestio eredua aurrera ateratzeko, antzeko esperientziak zituzten beste erakunde batzuetara jo genuen. Niretzat, alderdi pertsonalean, oso aberasgarria izan zen, baina baita oso nekoso ere, etengabe botere faktikoei aurre egiten aritu behar izan nuelako.*

*Beste eztabaida bat izan zen zer zerbitzu mota eskaini behar genuen, erakundeen eskaintzen dutena ez bikoiztera jo behar ote genuen, asistentzialak izan behar ote zuen edo sozioekonomikoak, zein jardun mota aktibatu behar genuen etxean, edo emakumeak ahalduntzeko eremu bat izan behar ote zen. Beste eztabaidatako bat izan zen finantziarioa. [...]. Espazioaren inguruko eztabaida ere izan genuen, non kokatu,*

<sup>1</sup> Elkarrizketa eta talde batzuk euskaraz egin dira. Eranskinetan ematen da haien berri. Aipuen hitzez hitzeko traskripzioa dokumentu honen euskarazko bertsioan dago. Gaztelerazko bertsioan, txosengileek egindako itzulpena jaso dugu.

*zentralidadea zerk ematen zuen, irisgarritasuna... (Beste bat) gizonek parte hartu zezaketan edo ez [...] Beste bat, bazkideak, ze bazkideza mota, nola, kuotak bai edo ez... [...]. Euskal Herrian eta Estatuan zeuden etxe desberdinak bisitatu genituen, eta guk proiektu propio berri bat eraikiko genuela adostu genuen. Eraikuntza kolektibo prozesu hau izan zen oso baliokoa [...] proiektu honen eraikuntza ematen du ahalduntze pertsonala eta kolektiboa.*

(Ainhoa Beola)

**Erabakitze prozesu kolektibo** bizia zabaldu zen Etxeari forma emateko, eta 2009tik 2011ra luzatu zen, hau da, toki fisikoa eduki aurretik hasi zen eta toki fisiko hori ireki eta geroago bukatu zen. Prozesu horretan, hamar hausnarketa saio baino gehiago egin ziren, eta parte hartzea handia izan zen. *Bilera pilo bat* egin zen (Etxeko taldea, 1. saioa). Nahiz eta une batzuetan garestia izan, horrek balio izan zuen proiektua denek bere egiteko eta “indarrak proiektu komun batean zentratzeko” (Elkartea). Horretan, funtsezkoa izan zen Berdintasun Saileko teknikariek batera lan egitea. *“Hainbat teknikari jo eta ke aritu zineten”* (Etxeko taldea, 1. saioa). Baliteke, batzuetan, bultzatzen ari ginela sentitu beharrean, estutzen ari ginela sentitzea. Honela galdetze zion langile batek bere buruari: *“Agian, Udaletik gehiegi bultzatu genuen eztabaida, legegintzaldia amaitzeak presioa eragiten zigulako”*. Eta prozesuan parte hartu zuen bazkide batek honako hau azaltzen du: *“Ni bai, presionatuta sentitu nintzen”* (Etxeko taldea, 1. saioa). Baina, era berean, egia da, bultzada hori gabe, Etxea ez zela sortuko orduan, aukera izan zenean.

Prozesu horretan, gaur egun espazioa **definitzen duten elementuak** eztabaidatu ziren: etxe laikoa, feminista, ez-mistoa eta ez-alderdikoia. Nortasun ezaugarriak finkatu eta gero, kudeaketa ereduari heldu zitzaion, askorentzat lehen mugarrria izan zena. Mugimendu feministak berak autogestionatutako etxeak izan behar al zuen, autonomia maximoa bermatzeko? Kasu horretan, nola eutsiko zitzaion? Bazegoen gaitasun nahikorik, finantzarioa ahaztu gabe? Erakundeari berea ere bazen eginkizunaren ardura kenduko zitzaiola esan nahi zuen? Edo hobe zen Udalak kudeatzea, jarraipena eta baliabideak bermatze aldera? Hala izanez gero, nola bermatu eduki feminista izango zuela eta mugimenduaren eta emakumeen behar eta interesetarako balio izango zuela?

Eztabaida hori ebazteko, **beste etxe batzuk bisitatu ziren**. Berdintasun Sailak aukera eman zuen hartu-eman horietarako, eta hainbat langilek eta gerora bazkide izango ziren batzuek bidetari ekin zioten, furgoneta batean. Erakundeek kudeatutako Zaragozako, Gijongo eta Ermuko etxeak bisitatu zituzten. Bartzelonan, erakundeak kudeatutako Espai Francesca Bonnemaisonen esperientzia ezagutu zuten, bai eta Ca la Dona autogestionatuarena ere. Gainera, eztabaida jardunaldi batzuk egin ziren, eta beste etxe batzuk gonbidatuak izan ziren.

Zaragozako bezala, erakundeak kudeatutako etxea? Etxe autogestionatua, Ca la Dona bezala? *“Zaragoza: ez genuen hori izan nahi. Ca la Dona: ezin ginen horretara iritsi”* (Etxeko taldea, 1. saioa). *Hau izan zen lehen mugarrria: eredu berri bat sortzeko erabakia, jada frogatutakotik ikasiz, baina saiatutakotik harago joatera ausartuz: “Kogestio formula bururatu zitzaigun, eta, egia esan, gure asmakuntza izan zen, orduan ez baitzegoen kogestionatutako etxerik”* (Etxeko taldea, 1. saioa).

### **Lehen mugarrria:**

*“Lehenengo mugarrria izan zen Etxea kogestionatua izango zela erabakitzea; hala, mugimendu feministak Udalarekin batera zuzendu ahal izan zuen Etxea, haren izaera feminista bermatuz, eta gorabehera politikoak gorabehera, hala izaten jarrai zezan ahalbidetuz.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)

Kogestioa, hasieratik, **Emakumeen Etxea Elkarte**a eratzearen eskutik joan zen; horrela bakarrik bi alderdi zeuden, elkarrekin jarduteko modua adosteko gai zirenak. Kogestioa aukeratu ondoren, eredu hori nola zehaztu eztabaidatzen hasi ziren: bi alderdiek (Udalak eta Elkarteak) zer gaitasun izan behar zuten beste erakunde batzuekin era autonomoan hitzarmenak egiteko; zein izan behar zuen organo kogestoreak eta zer funtzionamendu izango zuen; nor izendatu behar zituen elkartearen ordezkariak, eta kargu izendunak izango ziren ala ez... Ez zen eztabaida erraza: *“Kogestioa esaten genion arazo asko planteatzen zizkigulako”* (Etxeko taldea, 1. saioa). *Ez zen erraza, sortzea ez baita erraza, baina indartsua da.*

Eta, kogestio eredia zehazteko hartu behar ziren erabakiekin batera, hainbat gai landu ziren, Etxearen bizitza zein izango zen zehazten zutenak, besteak beste: zerbitzu eredia, funtzionamendu batzordeak, batzarrak (Etxearena eta Elkartearena bereiziz), eta Etxearen ordutegia eta erabilerak (10:00etatik 21:00etara, ia egun osoa; baina, gainera, erabaki zen Etxea ordutegiz kanpo erabili ahal izango zela eta giltzak banatuko zirela: hasieratik bizilagun askoko etxebizitza da). Elkarteari buruz ere eztabaidatu zen. Funtsezko gaietako bat kuotarena zen: Ez jarri inolako kuotarik diru arazoengatik inor kanpoan geratuko ez zela ziurtatzeko? Edo kuota bat ezartzea, horrek finantza autonomia handiagoa eta, beraz, kogestio ahalmen handiagoa bermatuko lukeelako?

Etxea ekipamendu gisa onartu zen Hiria Antolatzeke Plan Orokorrean. Sortu zenean, paper nagusia izan zuen Emakumea eta Hiria Foroak, aspalditik hirigintza kontuak ikuspegi feministatik lantzen ari baitzen. Udalak eta mugimendu feministak hirian

erabiltzeko moduan zeuden esparruak elkarrekin bilatu ondoren, Villa Soroa aukeratu zuten, Ategorrietako XIX. mendeko etxetzar bat. Hain eremu zabal eta atsegina izateak ilusio handia piztu zuen: *“Denetik egongo zen han: kafetegia, dokumentazio zentroa... Beno, bikaina izango zen” (Elkartea)*. Edurne Aperribayk –arkitektoak eta Emakumea eta Hiria Foroko eta Emakumeen Kontseiluko kidea– egokitze proiektua egin zuen, eta Udalak bere gain hartu zuen.

### 2.1.3. Tokia antolatzea: Okendo

Villa Soroa egokitzeak denbora eskatzen zuen, legegintzaldia amaitzear zegoen eta ezerk ez zuen ziurtatzen hurrengoan konpromiso politikoari eutsiko zitzaionik. Beraz, bitartean, behin-behineko leku bat bilatu zen Okendo kalean, hiriaren erdialdean, Zerga Bilketaren egoitza izandako bulegoetan. Tokia hutsik gelditu zen Antolamendu Planean, sindikatuek protestak egin baitzituzten baldintzak betetzen ez zituelako. Gutxieneko lanak egin ziren: karga jasogailua kendu, plataforma jasotzailea jarri, pintatu... 2010eko udazkenean iritsi zen bigarren mugarrria: Gurea zen etxe baten inaugurazioa!

---

#### Bigarren mugarrria

*“Bulego eremu ilun eta itsusi bat etxe alai eta abegitsu bihurtu genuen.”*

*“Okendo kaleko inaugurazioa/sarrera arriskuan egon zen, behin-behineko egoitza zelako eta oposizioko alderdi batek zuzenketa bat egin zuelako aurrekontuetatik dirua kentzeko (25.000 €). Sartu ginenean, bi urteko prozesuaren ondoren, bozkariotan ginen denak.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)



Anbibalentziaz bizi ginen mugarri hori. Azkenean, toki bat genuen hiriaren erdialdean, gure proiektuari ekiteko ilusioa gauzatzeko aukera ematen ziguna; lekua politago jarri genuen eta bizitasun gehiago eman genion... “Zulo bat zen, usain txarra zuen, goibela zen... eta gaur egun leku distiratsua iruditzen zait oraindik” (Etxeko taldea, 1. saioa). Baina, aldi berean, behin-behineko lekua zen, nahiz eta, ikusiko dugunez, iraunkor moduan funtzionatu duen hamarkada batean. Toki desberdin, handiago eta moldaerrazago baten nahia beti egon da bizirik Etxearen historian, gaur egun arte. Behin-behinekotasunak ez du etenik izan, hamar urtez.

### **Historia Berdintasuneko Zinegotzitzaren ikuspegitik**

*Eta azkenik, espazioa, non. Eztabaida luzea izan zen; ez zen konpartitu nahi Udaleko beste espazio batekin, ez zen Udaletxeko eraikin batean egon nahi... [...] Villa Soroa aurkitu genuen, Ategorrietan [...] Adostu genuen hori izango zela espazioa. Baina hura egin behar zen erreabilitatu eta behar genituen bi gauza. Bata, finantziarioa, eta Udalak ez zigun eman behar. Eta bigarrena zen, proiektu arkitektonikoa.*

*Emakume Batzordean bazegoen arkitekta bat, Edurne, eta berari eskatu genion proiektua. Berak egin zuen sekulako proiektua ikuspegi feministatik. Gero lortu nuen konpromisoa espazioa ekonomikoki babestu zezaten. Baina bitartea nonbaiten sartu*

---

*behar ginen eta aurkitu genuen Okendo. Okendo planteatu zen sei hilabetez okupatzeko, gehienez urte bete. Gero Villa Sorora pasako ginen.*

(Ainhoa Beola)

Etxe feminista batek, Donostialdeko emakumeena eta Donostialdeko emakumeentzat, **izen bat behar zuen**. Ez da hutsik dagoen toki bat, besterik gabe, habitatuta dagoen lurralde bat da. Hortaz, nola deitu? Hainbat aukera aztertu ziren: Sorora; Emakumeen Elkargunea/Sorora, punto de encuentro de las mujeres; Sorora, Emakumeen Etxea / Sorora, Casa de las Mujeres; Emakumeen Etxea/Casa de las Mujeres; Emakumeen Sorora. Eztabaidatu zen ea Sorora izenari eustek gaizkiulertuak sor zitzakeen “zoroarekin” erlazionatu zitekeelako; Etxearen ideiak erreferentzia egiten dion espazio pribatu historikoari... eta, 2011ko otsailaren 23an, batzarrean adostuta, Donostiako Emakumeen Etxea deitzea erabaki zen.<sup>2</sup>

#### **2.1.4. Lehen urratsak: desilusio politikoak eta kogestioa finkatzea**

Badugu lekua! Beraz, ekin lanari. 2010ean, elkartearen lehenengo dirulaguntzak bilatzen hasi zen: *“Asteburu bat igaro genuen, zoroen antzera, txostenak eta dirulaguntza eskaerak egiten. Hau Emakunderi, hau Aldundiari... Zoratzeko modukoa izan zen, baina hortik atera genuen funtzionatzen hasteko lehen funts ekonomikoa”* (Etxeko taldea, 1. saioa).

Orduan, legegaldi aldaketa iritsi zen, eta krisi ekonomikoak eta austeritate politikek markatutako unea ere bai. 2011n, Udalak erabaki zuen Villa Sorora obra egiteko erabiltzekoa zen 50.000 euroko kontu saila kentzea, eta Emakumeen Etxerako erabiltzekoa zen lekua ikastola bati lagatzea. Erabakia kogestio bilera batean jakinarazi zen; **momentu konplexuak eta mingarriak** izan ziren. *“Oraindik negar egiteko gogoia dut. Bilera batean negar egin dudana lehen aldia da, bizitza osoan”* (Etxeko taldea, 1. saioa).

---

#### **Hirugarren mugarrria**

*“Krisia 2011-2015 legegintzaldiaren hasieran. Udal gobernu berriak ‘Villa Sorora’ laga zion ikastola bati, berrogeita hamar urterako, eta eredu autogestionatu baterantz jotzea proposatzen du. Krisia konpondu zen kogestio eredu indartuz eta elkartearekin adostuz esparrua arratsaldeetan kudeatzea.”*

---

<sup>2</sup> Hausnarketa-jardunadiaren aktatik ateratako informazioa (D.P:7. zk., 5.2 eranskineko dokumentuen zerrenda).



(Etxeko taldea, 1. saioa)

Zalantzak zeuden elkartean, nola erreakzionatu behar zen. Garai txarrak ziren. Udal gobernuaren barruan, konpromiso maila desberdinak zeuden; gobernu taldean baziren pertsona batzuk ordura arte politika erakundeetatik kanpo egina zutenak; gobernutik ateratzen ziren eta hara sartzen ziren alderdien artean informazioa eta funtzioak trukatzeari ez zen erraza; alderdi guztien aldetik beharrezkoa zen babes sendoa ez zegoen batera. Konplexutasun horren erdian, akordioaren bat bilatu nahi da.



### Historia Berdintasuneko Zinegotzitzaren ikuspegitik

*Bazegoen proiektu bat, eraikin baten proposamena, aurreko legealditik zetorrena. Aurreko zinegotziak esaten zuen bazegoela obretarako partida onartu bat eta gu inolaz ere ez genuen aurkitzen partida hori. (...) Emakumeak esaten zuten, ya hablábamos de un sitio, ya hablábamos de un dinero (...) Ez badago ezer hola sinatuta edo aurrekontuetan ez badago partida bat adjudikatzen proiektu baten diseinurako, gelditzen da en un proyecto participativo, pero que yo no puedo defender, ez dago sinadurarik, ez da existitzen... Erronka handia izan zen horrerri buelta ematea. Baina nik uste buelta eman zitzaioela.*

[...] Hasieran makroproiektu bat ikusi proposatzen jarraitu genuen, baina ne Azkenean beste proiektu batera adjudika

Guk  
atu.

(Naiara Sampedro, Berdintasuneko zinegotzi





Orduan, 2012an, finkatu egin zen etxea dinamizatzeko eredua. Horrela, kogestioaren ideiak **materialtasuna eta egunerokotasuna** bere egin zituen, esparrua erabiltzeko hitzarmen baten bidez, eta arratsaldeetan Etxearen koordinatzaile gisa aritzeko Elkartearen dinamizatzaile bat kontratatzeko zuzeneko dirulaguntza baten bidez. Horren berri ematen du Etxearen 2012ko martxoaren 23ko Batzar Orokorraren aktak:

*“Udaleko Berdintasunerako teknikari bat, goizez; eta arratsaldean, Elkartek kontratatutako koordinatzaile bat. Kontratazioari aurre egiteko, Udalak dirulaguntza izendun bat emango dio Elkarteari, kontratazio gastuetarako, ordezkapenentarako eta gestoriarako.”*<sup>3</sup> Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza bat eman zion Elkarteari abian jarritako jarduerak finantzatzeko.

Ordura arte, Elkartek langile bat kontratatua zuen modu puntualean, egunean hiru ordu bakarrik, eta ez zuen Etxeaz arduratu beharrik. 2012an lortu zen Elkartek beharrezko baliabideak izatea Etxearen egunerokotasunean presentzia propioa izateko. Lanpostu hori egonkortu zen, eta, horren ondorioz, Etxeak askoz ere funtzionamendu arinagoa du orain (Etxeko taldea, 1. saioa). Aukera eman zuen bazkideak lan burokratikoetik askatzeko, ordura arte “dena egin behar genuen”. *Faktura eskuan zenuela joan behar zenuen ia edozein tokitara*” (Etxeko taldea, 1. saioa). Eta kogestionatutako etxe bat lortu genuen: hura dinamizatzea Udalaren ardura da, goizetan, eta, arratsaldeetan, Elkartearena. *Goizeko hamarretatik gaueko bederatzia arte zabalik dagoen etxea da. Hamaika orduotan irekita dago eta egun osoan emakumeak sartzen dira.*” (Etxeko taldea, 1. saioa).

Une horretan erabaki zen, baita ere, Berdintasun Sailaren behin betiko kokapena etxean egotea. Lan teknikoa, emakumeentzako *berezko gela* den leku batean egiten denean, ez da hain lan burokratiko, eta askoz hurbilago dago emakumeengandik eta mugimendu feministatik, teknikariek berek aitortzen duten bezala:

*“Aldaketa handia izan zen Berdintasun Sailarentzat aurreko kokalekutik Etxera etortzea. Nik uste dut orduan iruditu zitzaidala lana nahiko aldatu zela... (...) beti izan dugu harremana elkarteekin, baina Etxeak aukera ematen digu, oro har, emakumeekin harreman estuagoa izateko. Nik uste dut ikuspegi garrantzitsua ematen diola Sailari.”* (Etxeko taldea, 1. saioa)

Horrek esan nahi du krisia konpondu zela? Batzuentzat, bai, kogestioa finkatzearekin lotzen dutelako. Beste batzuentzat, berriz, arazoa mantendu egin da, gerora inoiz ez delako esparru handiago eta egokiagorik eskaini.

### **2.1.5. Etxea bizitzaz betetzen eta proiektuaren indarra erakusten**

---

<sup>3</sup> D.G.21 dokumentutik ateratako informazioa (zerrenda, 5.2 eranskinean).

Etxeak **bizitzaz eta bizilagunez** betetzen jarraitzen du, eta kogestioa finkatzen ari da, goizetan Etxeaz arduratzen den Udaleko dinamizatzailearen lana finkatzen ari baita. Ikastaroak eta zerbitzuak ezartzen ari dira: emakumeentzako lege aholkularitza, etxeko langileentzako lan aholkularitza, sexualitateari buruzko aholkularitza, tituluaren homologazioa, laguntza psikologikoa... Ordenagailuak instalatzen dira. Hitzaldiak, lantegiak, zikloak, erakusketak... ugariak dira. Talde batzuk hasiera-hasieratik daude etxean, baita lehenagotik ere! Esate baterako, xake batzordea, Etxea egokitu baino lehen lekua eskatu zuena, emakumeek zailtasunak zituztelako Xake Federazioan entrenatzeko. Beste jarduera batzuk Etxeak berak bultzatuta sortzen dira, hala nola erasoaren kontrako batzordea edo zine zikloa, 2012an hasi eta 2019an zortzigarren edizioa egin zuena.

### Hurrengo mugarrak

- *“2012-2013: Erasoen aurkako [batzordea]. Etxeko emakumeekin sortu ahal izan zen. Oso talde aktiboa da.”*
- *“Ilusio handia zegoen Donostiako lehen batukada feminista sortzeko, eta lehen irteera azaroaren 25ean egiteko, hain zuzen. Gero, finkatzea etorri zen.”*
- *“Udalak dinamizatzaile bat jarri zuen goizetan, eta Elkarteko dinamizatzailea ere bazegoen. Azkenean! Badira soilik etxean aritzen diren udal langileak.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)


Orduan, beste **arrisku momentu bat** iritsi zen, oposizioko talde batek mozio bat aurkeztu zuenean Udaltzain, Emakumeen Etxearen kudeaketa lehiaketa publikora ateratzeko proposamenarekin, beste enpresa eta elkarte batzuk aurkeztu ahal izateko. Momentu arriskutsua zena eta galera ekar zezakeena, antolamendu kolektiboaren mugari bihurtu zen, bai eta erantzun koordinatua emateko ahalmena erakusteko aukera ere.

### Ahalmenaren lehen mugarrak

- *“Alderdi politiko batek mozio bat aurkeztu zuen, de facto kogestioa kentzen zuena, eta Elkartek, kide guztiak bat eginda, jakin zuen proiektua defendatzen eta finkatzen.”*
- *“Udalak mozio bat aurkeztu zuen esparruaren kudeaketa lehiaketara ateratzeko. Erantzun feminista antolatua eman zitzaion, Etxea defendatzeko.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)

Albistea jaso zenean, Etxearen ezohiko batzar batera deitu zen. Alderdi politiko guztiekin hitz egitera joatea erabaki genuen, aurkeztutako mozioaren aurkako boto konpromisoa bilatuz Udalbatzan. Elkarrizketatzea lortzeko lana gogorra izan zen. Bozketa egunean, etxea habitatzen zuten eta/edo babesten zuten emakume eta bazkideen mobilizazio handia izan zen. Udalbatza egin aurretik eta egin bitartean presioa egin zen, Udalaren barruan eta kanpoan. Azkenean, mozioa aurrera ez ateratzea lortu zen, aurkako hamabost botorekin. Kogestioa ez zen pribatizatu eta feministen eskuetan gelditu zen. Sentsazioa aho batekoa izan zen: **irabazi egin genuen**.



### **Etxearen begirada: elkarrekin erantzuten**

*“Urrats desberdinen estrategia izan zen, argi eta garbi, emakume desberdinekin. Alderdi guztiekin hitz egitekoak ginen. Ez zuten gurekin hitz egin nahi. Hiru joaten ginen. Taldean itxaroten genituen komunera ateratzen zirenean, eta lagun egiten genien. On fire geunden. Bagenekien irabazi egingo genuela.”*

*“Erantzuna izugarria izan zen.”*

*“Ni gogoratzen naiz. Udalbatzara joan behar genuen protestatzera, buila egitera. Ni ikasgelan nengoen, lau ikaslerekin, eta laurak ero moduan zetozen. Baina bide erdian begiratu... nik banekien batek ez zuela paperik... ‘Dokumentazioa eskatuko dizuete’. Eta, momentu horretan, gelditzea erabaki zuten, Udalaren atean bertan. Haraino iritsi ziren, baina!”*

---

*“Liburutegian lau bat emakume geunden, paperik gabekoak, albisteei txaloka.”*

*“Gogoratzen naiz zorabiatzen hasi nintzela [berria jasotzean]. Arratsalderako ohiz kanpoko bilera baterako deia eginda genuen, hurrengo egunean edo handik bi egunera zelako. Ez gara inoiz egun hartan bezain adoretzu ibili. Izugarria izan zen. Jende mordo bat. Mundu guztia bere burua eskaintzen edozertarako. Eta, bat-batean, han izan ginen, Udalbatzan, batukadarekin, euria, iskanbila handi bat sortzen... Bozkarioan... oraindik irabazi ez bagenuen ere. Gainera, bozketa galtzea lortu genuen.”*

*“Momentu dramatikoa aparte utzita, dibertigarria izan zen. Emakume mordo bat joan ginen, Udalbatza Aretoa bete genuen. Eta konturatu ginen, kartelek, horrela mugitzean, zarata itzela egiten zutela, eta beste ezer ez zen entzuten. Alkateak ‘mesedez, ez hitz egin’ zioen. Eta gu kartelak mugitzen. Oso komikoa zen dena.”*

*“Eta baten bat zegoen beti, batukadari informazioa ematera jaisten zena.”*

*“Bozketa bat irabazten nuen lehen aldia zen niretzat.”*

*“Ikusten nuen geurea finkatuta zegoela. Edozer gertatuta ere, horrek erantzuna izango zuela.”*

(Etxeko taldea, 1. saioa)

Hamar urte hauetan, indarra erakutsi dugu, ez bakarrik proiektua defendatzeko, baizik eta Etxea dagoen **munduan eragina izateko**.

2015ean, emakume bat Erasoen aurkako Batzordera joan zen berehalako mobilizazioa eragin zuen salaketa batekin: **016** zenbakira egindako deiak (genero indarkeriaren arloko informazio eta aholkularitza juridikoko telefono zerbitzua) mugikorreko deien zerrendan agertzen ziren, nahiz eta “arrastorik uzten ez zuen” zenbaki seguru gisa iragartzen ziren. Batzordea lanean hasi zen eta salaketa prozesu bati ekin zion: bi une goren, lan handia tartean eta azken emaitza arrakastatsua.

---

### **Bigarren ahalmen mugarrria**

- *“016 kanpaina: telebista eta komunikabide guztiak. Jendaurrean hitz egin dezaket.”*
- *“Etxeko Erasoen aurkako Batzordeak kanpaina bat egin zuen 016 zenbakira egindako deiek telefonoaren fakturan arrastoa uzten zutela salatzeke, propaganda instituzionalak zioenaren aurka. Kanpaina horrek oihartzuna izan zuen Estatuan, eta lortu zen propaganda instituzionalak ohartaraztea*

*016 zenbakira egindako deiek arrastoa uzten zutela eta ezabatu egin behar zirela.”*


(Etxeko taldea, 1. saioa)

Lehen momentu arrakastatsua 2015ean egindako prentsaurrekoa izan zen:

*“Denak etorri ziren [komunikabideak]. Ez ziren sartzen. Suzko bataioa izan zen jendaurrean lehenago hitz egin ez zuten batzuentzat... Beno, nik uste dut gutako inork ere ez zuela inoiz hitz egin hainbeste komunikabideren aurrean. Oso hunkituta geunden, Etxea ateratzen zelako, Elkarte eta Batzordea ere bai... Rosalía baino arrakasta handiagoa izan genuen” (Etxeko taldea, 1. saioa).*

Hortik aurrera, erakunde guztiekin harreman lan handia egin zen. *“Mundu guztiak nahikotxo paso egin zuen gugandik”. “Azkenik, urte eta erdi edo bi urte geroago, hori Herriaren Defendatzailearengana iritsi zen” (Etxeko taldea, 1. saioa).*

Herriaren Defendatzaileak bere egin zuen salaketa. 2017ko otsailean, albistea estatu osora zabaldu zen, nahiz eta publikoki ulertu zen Herriaren Defendatzaileak eskatzen zuen zerbait zela: *“Emakumeen Etxea ez zen inondik inora agertu, baina guretzat presente zegoen” (Etxeko taldea, 1. saioa).* Komunikabideen bidez jakinarazi zen 016 zenbakira egindako deiak ez zirela fakturan agertzen, baina deien zerrendatik ezabatu behar zirela. Telefono konpainiek ardura hartu zuten zer gertatzen ari zen ikertzeko:



*“Ez zait inoiz ahaztuko egun batean, goizeko zazpitan, Radio Euskadi ez zela ondo entzuten, Ser irratira aldatu eta Pepa Buenori entzun niola, Estatu mailako programa batean, hori esaten. Zirrara eragin zidan, negarrez hasi nintzen... hartua zenuten lan ikaragarriarekin... hainbeste jendek entzuten duen programa batean entzutea...” (Etxeko taldea, 1. saioa).*

Etxean kanpaina txiki gisa hasitako ahalegin horrek lurralde osora iristea lortu zuen, eta emakumeak arriskuan jartzen zituen mezu bat geldiarazi zen. Indarra agerian uzten duten

momentu hauek ez dira hutsetik sortzen, etengabeko lanetik baizik, gaur egun ere oraindik egiten den lan handitik.

### **Etxea... orain**

*“Uste dut animoa goi-goian dugula, hainbeste etxe agertzen ari dira mapan, deitu egiten digute, gauzak eskatzen dizkigute, baloratu egiten gaituzte... dena oso positiboa... hamar urte daramatzagu, gauza pila bat egin dugu... feminismoen mapan leku bat eman diguten gauzak dira... uzta biltzen ari gara.”* (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)

*“Eferbeszentzia betean gaude! Orain arte iristen ez ziren emakumeak iristen ari dira... Etxea oso bizirik dago, emakume asko iristen dira, jarduera asko daude... gauza oso berriak planteatzen dira... Defizita tokia da: izan ere, beste gauza asko iristen dira, eta ezetz esan behar diegu.”* (Etxeko/Saileko dinamizatzailea)

## **2.2. Etxea datuetan**

Atal honetan, Etxearen<sup>4</sup> **urteko memorietatik** ateratako funtsezko datu batzuk biltzen dira. Ezinezkoa da dena jasotzea, eta helburua ere ez da beste memoria bat egitea. Hemen erakusten dugun argazkiak memoria horiek osatu nahi ditu, hamar urte hauetan Etxean zer gertatu den gutxi gorabehera azalduz.


Etxeari buruzko datuak bildu eta sistematizatzeko prozesua (bisita eta erabiltzaile kopurua, jarduerak, lankidetzak, etab.) etengabe hobetuz joan da hasieratik. 2012an hasi ginen Etxearen urteko memoria egiten. 2016. urtetik aurrera, memorien formatua aldatu egin zen, “duintzeko” (hala adierazi zen erabaki hori hartu zen kogestio bileran). Paperean egiten hasten gara, maketatzeke enkargatzen dugu, aurrekontua kontuan hartzen da, funtzionamenduaren organigrama biltzen da, eta abar. Gainera, memoriak ikasturtearen arabera egiten hasi ziren (iraila-uztaila), eta ez urte naturalaren arabera. 2017az geroztik, datuak modu sistematikoagoan eta zehatzagoan biltzen hasi ziren: bisita eta bazkide kopurua; zerbitzu bakoitzera, ikastaroetara, lantegietara joaten diren pertsonen kopurua eta profilak... Datuak etengabe hobetuz doaz. Beste hamar urte barru, argazki hau askoz osoagoa izango da!

---

4



Partekatu beharreko lehen bi datuak bazkide kopurua eta Etxeko bisita kopurua dira, eta biak haziz doaz etengabe. Bazkide kopurua etengabe hazi da 2013az geroztik, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala. Bazkideak 2013an 253 izatetik 2018-2019 ikasturtean 1.300 izatera pasa dira. Laukoiztu egin dira edo, bestela esanda, **bazkide kopurua % 414 hazi da.**




Gauza bera gertatzen da bisita kopuruarekin, grafiko honetan ikus daitekeenez:



Bazkide kopurua oso handia da. Baina “zenbat” baino garrantzitsuagoa da “zer”: Zertara joaten dira emakumeak Etxera? **Jarduera askotara.** Batzuetan, eta azpiegitura egokia ez bada ere, etortze hutsagatik ere etortzen dira.



Nabarmendu beharreko lehen elementua Etxetik eskaintzen diren **zerbitzuak** dira, guztiak ikuspegi ez-asistentzialista batetik emanak; aitzitik, akonpainamendu eta ahalduntzea dira oinarrian dauden ikuspegiak, 3.2.3 atalean ikusiko den moduan. Beheko grafikoa **zerbitzuek 2013az geroztik izan duten bilakaera** jaso da, eta honakoak zehazten dira: edukia, zein urtetan jarri diren abian eta zenbat erabiltzaile izan dituzten urtean. Ikus daitekeenez, horietako asko ia hasieratik izan dira egonkorrak. Baina, aldi berean, handituz joan dira, behar berriak hauteman eta/edo baliabide gehiago lortu diren heinean. Etxeak “etengabe irekita” dauden bi zerbitzu egonkor mota ere baditu. Alde batetik, Etxeko dinamizatzaileek (Udalak kontratatutakoa eta Elkarteak kontratatutakoa) lehen harrera egiten diete emakume guztiei, era askotako egoera bizi duten eta arazoak dituzten emakume guztiei. Entzun ondoren, Etxeko beste zerbitzu edo ahalduntze talde batzuetara edo beste zerbitzu batzuetara (gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, etab.) bidaltzen dituzte. Bestalde, beti egon da alde bat ordenagailuak dituen, behar dituzten emakumeen eskura.



Aholkularitza juridiko eta soziala

Ikasketak baliozkotzea

Biluzik Mundura, sexu arloko aholkularitza

Ahalduntze taldeak

Norbanakoaren ahalduntzea, laguntza psikologikoa

Etxeko langileentzako aholkularitza

Etxeko langileek ematen dituzten zerbitzu egonkorrak: ordenagailuak eta Internet, arreta eta beste zerbitzu edo profesionalengana bidaltzea

Zerbitzuez gain, bigarren elementu egonkorra **ahalduntze taldeak** dira, urtero erregulartasunez funtzionatzen dutenak. Taula honetan, gaur egun lanean ari diren taldeak ageri dira, iraupen handieneko lantegi batzuekin batera. Lantzen duten ahalduntzearen dimentsioaren arabera sailkatuta daude:

<b>Ahalduntze taldeak, sailkapena*</b>	
<b>INDARKERIA</b>	Autodefentsa feminista Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
<b>SEXUALITATEA</b>	Sexualitatea eta ikuspegi feministak*
<b>OSASUN MENTALA ETA FEMINISMOA</b>	Osasun mentala ikuspegi feminista batetik*
<b>KULTURARTEKOTASUNA</b>	Jatorri desberdineko emakumeentzako kulturarteko espazioa
<b>AUTONOMIA</b>	Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea Brikolajezailea*
<b>KANONAK FEMINISMOTIK BERRIKUSTEN</b>	Emakume filosofoen ondarea* Emakumeak eta Zuzenbidea*
<b>ARTIBISMOA</b>	Irakurle eskola feminista Memoriaren zirrikituak euskal literatura garaikidean Ventaneras Ventaneras – La precuela Antzerki laborategi feminista Batukada feminista Abesbatza Xakea Klowna

\* Lantegiak, letra etzanean

**Bilakaerari** dagokionez, esan behar da gehienak, behin sortuta, denboran irauten dutela. Talde berriak sortzen dira, lehenago heldu gabeko gaiei ekiteko; esaterako, aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea. Beste batzuk aldatuz joan dira denborarekin. Adibidez, antzerki taldea, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, emakume zapalduen antzerki talde bihurtu zen. Eta beste talde batzuk hainbeste indartu direnez, ikasle izandakoak talde berri baten antolatzaile bihurtu dira, Batukada, Abesbatza, Ventaneras eta beste batzuekin gertatu den bezala. Beste talde batzuek, modu egonkorrean funtzionatzeaz gain, urteko jarduerak antolatzen dituzte. Hala, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, xake taldeak urtero antolatzen ditu “Emakumezkoen Donostia Hiria Xake-Txapelketa” eta Gipuzkoako emakumezkoen txapelketa. Batukadak hainbat jardueratan parte hartzen du (manifestazioetan, Lilatoian, eta abar).

Taldez gain, urteetan zehar iraupen aldakorreko beste **formazio** ugari sortuz joan dira (hilabete batzuk, egun batzuk, saio bakarrak), baita jarduera desberdinak ere: hitzaldiak, erakusketak, zineforumak, etab. Landutako jarduera eta gai guztien berri ezin da eman, hain diren askotarikoak eta zabalak. Collage txiki bat jaso dugu hemen<sup>5</sup>. **Historiari** buruzko hitzaldiak, jardunaldiak eta prestakuntza saioak daude (Emakumeen parte hartzea Islandiako Iraultzan, 2013; Donostiako emakumeen ofizioak). Jane Jacobs Tabakaleran (2015); **sexualitatea** (sexualitatea gure gorputz sexuatuan bizi da eta han posible egiten da, 2012); adierazpen **tresnak** (Emakume etorkinentzako irratilantegia, 2013; Rap Feminista, 2017-18); **generoaren eraikuntza** (Del género se sale, 2017-18). Badira lantegi batzuk guztiz **praktikoak** (Bizikleten mekanika, 2013; Autoaren mekanika, 2017-18) eta beste batzuk, **“teorikoagoak”** (laikotasunari buruzko jardunaldia, 2012; Generoa, arraza eta klasea, 2014). Beti erantzun izan zaio gaurkotasunari, **hemen, han eta maila globalean** (Esperientzia feministak krisiari aurre egiteko: El Salvadorren esperientzia, 2013; TTIP - Latinoamerikatik Europara. Topaketak: Latinoamerikako feministekin elkarrizketa, 2015/16). Liburu aurkezpenak ere izan dira (*La nación heterosexual*, 2014; *Educación, memoria e historia de las mujeres vascas*, 2015/16; *Las mentiras científicas sobre las mujeres*, 2016/17; *Terra de Ningú*, 2017-18), eta askotariko feminismoen erreferentzia diren emakumeen parte hartzea ere izan dugu (Maryam Fathi, Dolores Juliano eta beste asko).

Gaien bilakaerak erakusten du feminismoetan interesgarriak diren gaiak sartuz joan direla: **interseksionalitatea** (Emakume etorkinak: generoa eta kultura aniztasuna, 2013; Feminismo beltzak, 2015; Feminismo islamiarrarekin bueltaka, identitatea edo integrazioerik eza, 2017-18); **internazionalismoa** (Palestinako emakume errefuxiatuen eta Euskal Herriko emakumeen arteko sareak ehuntzen, 2013); Sare feminista antimilitaristaren esperientzia, Medellinen (Kolonbian), 2017; **transfeminismoa** (gorputz transfeministen irudikapena eta erreferenteak: zinemak agertzen duen emakume erduei eta irudiei buruzko begirada, 2012; Transfeminista antiespezista, 2015-16)... Feminismoa betez joan diren gaiak ikuspegi askotatik landu ditugu; hala ikusi dugu, esate baterako, **zaintzetan gaian**. Batzuetan, esperientzia pertsonaletik landu dugu (zaintzaileen kafe lantegia, 2012); beste batzuetan, berriz, esperientzia politikitik (zaintza eredu berriak eraikitzen, 2017-18) eta, beste batzuetan, alderdi zehatzei helduta (Atzerritar Legea eta etxeko langileen erregimen berezia, 2015-2016).

Helburu desberdinak dituzten jarduerak egin ditugu, hala nola: banakako **ikaskuntza eta ahalduntze jarduerak**, hainbat arlotakoak (Sendabelarrak eta kosmetika naturala, 2014; Printzesa izateari uzteko lantegia, 2015-16; Nola komunikatu eraginkortasunez, 2017-18); **ekintza feministaren gaitasuna indartzea** (Feminismoak eta gizarte asaldura,

---

5

2012; Ez agindu, ez obeditu: auto-antolakuntzarako tresnak, 2013); edo **kolektiboak indartzea** (Asoziazionismoa emakumeen artean, prebentzio tresna gisa, prestakuntza jardunaldiak emakumeen etxeetarako, 2015-16). Hainbat jarduera **Etxean** egin dira, beste batzuk, **Etiket kanpo** (urtero egiten den zinemaldia, zortzigarren edizioraino ailegatu dena) eta beste batzuk, **kanpoan eta barruan** (Ibilaldi **feminista** Altzako puntu kritikoetan barrena, 2017-18; Emakume txirrindularien jardunaldia, 2017-18). **Jaiak** ere izan dira: Etxearen urteroko jaiak! eta beste asko (Gau jai bollo feminista brasildarra, 2012). Beste leku batzuetako feministak biltzen zituzten jardunaldi eta **topaketak** izan dira (Emakume Abertzaleen Topaketan Aurkezpena, 2014; Lizun ta zikin jardunaldiak). Postpornografiari edo pornografia feministari buruzko Euskal Herriko lehen topaketa, 2015-16).

**Erakundeekin harremanak izateko** esparru bat ere izan da. Etxera etorri dira, batzuetan, beren jardueren kontu ematera (Donostiako Berdintasunerako Plan Estrategikoaren aurkezpena, 2012; Puntu kritikoak – Berdintasun Sailak kontuak ematea, 2016-17). Eta, beste batzuetan, beren lana kontrastatzera (Hiri Debekatuaren Mapa kontrastatzeko saioak, 2014). Etxean ere udal politika aztertu dugu (“Loiolako Lorategi Hiriaren” Plan Bereziaren ikuspegi feminista, 2014), eta alderdiei eskatu zaie beren planteamenduak azaltzeko (Hauteskunde Orokorren aurrean, berdintasun politikei eta indarkeria matxistari buruzko konpromisoa, 2015-16).

Era askotako jarduera horiek guztiak **era askotako jendeak** antolatu ditu: batzuetan, gutxitan izan bada ere, norbanakoek. Oro har, honakoak izan dira antolatzaileak: kolektibo feministak eta emakumezkoenak (Elkarteaz gain) eta beste kolektibo batzuk, GKEak eta abar, baita erakunde publikoak ere. Behean, erakunde horien zerrenda dago (ez da guztiz zehatza eta ausaz ordenatuta dago):

<b>EMAKUMEEN ETA FEMINISTEN TALDEAK</b>	<b>GKEak, BESTE TALDE BATZUK</b>
<p>Plazandreok  Txixibitxiak Talde Feminista  Bidez Bide Elkartea  Bizikume Elkartea  Emagin  Altzako Kulero Moreak  Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa  Medeak  Donostiako Asanblada Feminista  Donostiako TransMarikaBollo Koordinadora  Feminista  Gipuzkoako Emakume Txirrindulariak  Bilgune Feminista  Garaipen  Orroak  Asociación María Zambrano  Supervivientes de violencia machista  Mujeres del Mundo Unidas  Eragingune Feminista  Malen Etxea  Zirikatuz Feminista Taldea  Eraikiz Kolektiboa  EMAK (Emakume Kirolariak)  Liga de la Leche  Foro Mujer y Ciudad  El Parto es Nuestro  ROMI BIDEAN (Asociación de mujeres  Gitanas y Payas)  Pikara Magazine  Sortzen  Sareinak Elkartea  Dandai  Mochilas Rojas Elkartea  Plataforma a Favor del Derecho al Aborto de  Gipuzkoa  Zaintza Talde Motorea  Mujeres Unión 5 Estrellas  Lahia Nahia  Aizan  Lilaton  Harituz Elkartea</p>	<p>Antxeta Irratia  Foro Social Permanente  La Plataforma de Pensionistas de EH  Jatorkin Al-Nahda  Bizitzen Fundazioa  Kalapie  Abaraska Etxebizitza Kooperatiboa Elkartea  SodePaz  UNESCO Etxea  Asamblea de Cooperación por la Paz  Sorginlore Gizarte Elkartea  SETEM  Lumaltik  Kalaka Koop. Elk. Txikia  InteRed Euskal Herria  SOS Racismo Gipuzkoa  Haurralde Fundazioa  Roller Derby Easo Avengers club  Aldarte  Steilas  Mundubat  Cristina Enea Fundazioa  Hezizerb  Solidaridad Internacional  FARAPI Koop.  Mugarik Gabe  Emaús Gizarte Fundazioa  Gainditzen  Intered  Asociación Pluralidad por África  Paz con Dignidad  Asvinenea  Asociación Cultural Intxorta  Oxfam Intermón  EHGAM  Medicmundi Gipuzkoa  Laikotasun Kolektiboa  Vicente Ferrer Fundazioa  Askapena  CEAR  Emakume Errefuxiatuak  Erroak Sartu</p>
<b>ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>	
<p>Hainbat udal sail  Hainbat udal  Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat sail  Euskadiko Gazteriaren Kontseilua  UNRWA  Garapenerako lankidetzak</p>	

Honaino iristen da Etxeak bere hamar urteetan izan duen bilakaeraren collage koloretsu hau. Ikus dezagun nola funtzionatzen duen gaur egun

### 2.3. Nola funtzionatzen duen Etxeak

Hamarkada honetan zehar etxearen funtzionamendua aldatu egin da, diseinatuz joan ahala (asmatuz joan ahala!) Kogestio eredu berritzaile bat genuen, esparrua bizitzaz betetzen ari zen. Hala ere, nortasuna ematen dioten oinarrizko elementuek koherenteak izaten jarraitu dute. Ikus dezagun nola artikulatzen den gaur egun: zertan den kogestioa, nola antolatzen den batzordeetan, zer eginkizun betetzen dituzten dinamizatzaileek...

Emakumeen Etxea **mistoa ez den esparru** bat da; emakumeentzat eta queer gisa identifikatzen diren pertsonentzat da. Gizonak ongi etorriak dira noizean behin egiten diren hitzaldi eta jarduera irekietara. Baina zerbitzuak eta ahalduntze ikastaroak **emakumeentzat eta queerrentzat dira**. Era berean, hezitzaileak eta zerbitzuak eta ikastaroak ematen dituztenak ere emakumeak eta queerrak dira. Etxean, Berdintasun Sailak lan egiten du, esparru fisiko propioa izanik.

Etxearen funtzionamendua Udalaren eta Donostialdeko emakume feministen arteko **kogestio eredu** batean oinarrituta dago. Emakumeok Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan bilduta daude. 2011ko ekainetik abendura bitartean hilero egiten ziren *Kazetako* batean azaldu bezala, Emakumeen Etxea Elkartea da herritarrok, emakume arruntok, gure izena duen espazio batean egiten denaren gaineko erabakiak hartzen parte har dezagun. Elkartean banakako kideek parte hartzen dute, ez kolektiboek. Bazkide izateko ez da kuotarik ordaindu behar. 1.500 bazkide daude!

Etxeari buruzko erabakiak, bai egiturazkoak bai egunerokoak, modu partekatuan hartzen dira. Hainbat gune daude **kogestio** hori gauzatzeko:

- ✓ Alde batetik, Etxearen urteko batzarra dago. Elkarteak **urteko batzarrak** ere egiten ditu. Urte batzuetan bi batzarrek bat egin dute, hain da arin eta ona Etxearen funtzionamendua alderdi instituzionalaren eta ez-instituzionalaren arteko harremanei dagokienez.
- ✓ Bestalde, ohiko funtzionamenduko gune ofiziala **kogestio organoa** da. Bertan, Udalaren hiru ordezkari daude (Berdintasunaren Zinegotzitza barne) eta elkarte mugimenduaren beste hiru (bat Emakumea eta Hiria Foroarena,

beste bat Emakumeen Kontseiluarena eta bestea Elkartearena, eta hirurak Emakumeen Etxea Elkarteko kide dira).

- ✓ Azkenik, egitura ofizial horretatik harago, eguneroko kogestioa Etxeko dinamizatzaileen topaketan oinarritzen da (Udalak kontratatutakoak eta Elkartek kontratatutakoak). Urteetan zehar lan baldintzak hobetu direnez, posible izan da lan ordutegiak partzialki gainjartzea, eta, hortaz, erregularitasunez koordinatu daitezke.

Bada beste gune giltzarri bat Etxean, Elkartearena baino ez dena: **lan batzordeen** koordinadora (bazkideek osatuta). Hainbat arlotako lan konkretua aurrera eramateaz arduratzen dira, eta eguneroko bizitza ematen diote Etxeari. Beheko organigraman, 2017an martxan zeuden batzordeak ageri dira: zinema, ekofeminismoak, erasoen aurkakoak, batukada, teknologia, xakea, danborrada eta artikulazioa. Azken horretan definitzen da Etxearen baterako programazioa. Gainera, hilero, koordinadoraren *mensualHito* izaten da; bertan batzordeak artikulatzen dira.

Etxeak zuhaitz honen metaforaren bidez definitzen du bere burua:



**EMAKUMEEN ETXEA // CASA DE LAS MUJERES**

**COMISIÓI IC**  
**AJEDREZ**

- Emakumeek xake jokalariek sortzea eta bultzatzea du helburu taldetik honak. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko aukeratsen dira.
- El grupo tiene como objetivo la creación y el fomento de mujeres jugadoras de ajedrez. Se reúnen en La Casa para aprender y pasárselo bien.

**BATUKADA**

- Espazio publiko hartzeko emakume banda
- Ahalmen sortzaileak garatzea
- Banaka eta kolektibo berrala zehazitzea
- Banda de mujeres para ocupar el espacio público
- Desarrollo de capacidad creativa
- Empoderamiento individual y colectivo

**BAZTERRETA**  
**EKOFEMINISMO**

- Ekonomia feminista praktikan jartzea
- Denbora Bankua
- Ekonomia eta ekologian berruz hausnartzea
- Reflexionar sobre ecología y economía
- Banco del Tiempo
- Generar prácticas de economía feminista

**BAZTERRETA**  
**ARTIKULAZIOA**

- Talaren proposamenak
- Aurrikortzearen banaketa
- Elkartzearen urteroko ebaluazioa
- Propuesta de talleres
- Distribución del presupuesto
- Evaluación anual de la asociación

**BATZORRETA**  
**DANBORRADA**

- Donostiake jaietan emakumeen parte-hartzea sendatu
- Danborrada feminista sortu eta mantendu
- San Sebastián egunetan espazio publiko feminista ez elapetu
- Fortalecer la participación de las mujeres en las fiestas de la ciudad
- Crear y mantener una danborrada feminista
- Ocupar de feminismo las calles el día de San Sebastián

**BATZORRETA**  
**TEKNOLOGIA**

- Emakumeen alfabetazio digitala
- Teknologiaren arabera kritika sustatzea
- Mugimendu feministan tresna digitalak erabiltzea
- Alfabetización digital de mujeres
- Fomentar un uso crítico de la tecnología
- Ofrecer herramientas digitales al Movimiento Feminista

**BAZTERRETA**  
**ANTIAGRESIONES**

- Indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa eta ekintza feminista
- Administrazioa jorban duten emakumeen egoera hobetzea
- Reflexión y acción en torno a la violencia machista
- Mejorar la situación de las mujeres que acuden a la administración

**BATZORRETA**  
**ZINEA**

- Ertabaldia eta hausnarketa feminista sustatu
- Zine feminista jaiak bultzatu
- Emakume zinegielak kuzaratu
- Generar debate y reflexión feminista
- Impulsar festivales de cine feminista
- Visibilizar mujeres cineastas

**KOGESTIOA // COGESTIÓN  
KUDEAKETA KONPARTITUA // GESTIÓN COMPARTIDA**



Donostia Udaleko  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Berdintasuna  
Igualdad



Etxea  
Espazioa eta Berritasuna  
Española, 10 • 48901 Leizorri • 943 21 10 00

Eta honela azaltzen du:

*Emakumeen Etxea zuhaitz bat dela imajinatzen badugu, sustraietan Elkartea bera eta Udaleko Berdintasun Saila egongo lirateke (dena den, azpimarratu behar da Etxea mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren eskaera bat dela, eta ez litzateke existituko haiek hainbat urtez egin duten presioagatik izan ez balitz). Zuhaitzaren adarrak Elkarteko lan batzordeak izango lirateke, Etxeari bizia ematen diotenak: xakea, erasoen aurkako batzordea, batukada, literatura, ekofeminismoak, abesbatza... Beste adar batzuk zerbitzuek osatuko lituzkete; oso garrantzitsuak dira, genero ikuspegiaren arloan prestakuntza eta esperientzia*

*handia duten emakumeek ematen dituztelako eta zerbitzu publikoen gabezia batzuk betetzen dituztelako. Azkenik, zuhaitzaren hostoak izango lirateke guk geuk eta beste erakunde batzuek antolatuta Etxean egiten diren jarduera guztiak, Edo urtero urtero esparru honetara, bertako zerbitzuetara eta taldeetara etortzen diren ehunka emakumeak. Horiei esker, Emakumeen Etxea erreferente bihurtu da bai Donostian bai Donostiatik kanpo. (Elkarlan 2017 Sariaren deialdirako Elkarteak aurkeztutako dokumentua, D.G.2).*

Kogestioari eutsi ahal izateko, Udalak, zuzeneko dirulaguntza baten bidez eta esparruaren erabilera lagatzeko hitzarmen baten bidez, lanaldi osoz lan egiten duen dinamizatzailer baten kontratazioa finantzatzen du. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste dirulaguntza bat ematen dio Elkarteari, jarduerak egin ahal izateko. Urteko memorietan **aurrekontua** jasotzen da.

Etxea goizeko hamarretatik gaueko bederatziak arte zabalik dago. Emakumeak bertara joaten dira laguntza, aholkularitza eta akonpainamendu bila, edo, bestela, jarduera jakin batean parte hartzera. **Goizez irekitzea** Udalaren ardura da, eta kontratatutako pertsonen bitartez irekitzen du. Gaur egun bi dira kontratatuok: bata lanaldi osoz lan egiten duena eta bestea lanaldi erdiz. **Arratsaldean**, Elkarteak arduratzen da irekitzeaz, horretarako kontratatutako dinamizatzaileraren bidez. Gainera, Etxea ordutegi horretatik kanpo ere irekitzen da, Elkarteak, bazkideek edo hurbileko taldeek abian jarritako hainbat ekimeni leku egiteko. Ateak irekita daude.

Etxean **jarduera batzuk erregulartasunez egiten dira**: urtero irailean eta urtarrilean argitaratzen den programazioan zabalitzen diren ahalduntze zerbitzu eta taldeak dira. Horretaz gain, **jarduera** puntual ugari jartzen dira abian, eta badaude batzuk urtetik urtera aldatzen direnak. Hori guztia hileko programazioen bidez zabaldu ohi da. Gainera, beste ekimen ugari batzuk ere jartzen dira martxan, askotan programazioetan jasotzen ez direnak, modu puntualagoan edo espontaneoagoan sortzen direlako: hitzaldiak, jardunaldiak, erakusketak, zineforumak, liburuen aurkezpenak, bizikleta irteerak, topaketak... Eta manifestazio edo elkarretarazteetan ere parte hartu ohi dugu, **Etxeko Bloke** gisa (Etxea Donostiako feminismoaren eragile bat da, aurrerago esango dugun bezala). Azkenik, Etxeak bere **ateak irekitzen dizkie** kolektibo feministen eta bertan bildu nahi duten emakumeen bilerei. Adibidez, sarritan, Donostiako Asanblada Feministaren bilerak Etxean egiten dira.

Ekimen horietako batzuk Berdintasun Sailak jartzen ditu abian. Beste batzuk, Emakumeen Etxeak elkarteak antolatzen ditu. Eta beste batzuk, berriz, etxetik hurbil dauden beste elkarte edo talde batzuek egiten dituzte, Etxearen ikuspegi feminista partekatzen dute eta. 2018an, ikastaro eta lantegietan parte hartzeko araudi bat ezarri zen,

eta izen emateak eta partaide kopurua arautzea erabaki zen, baliabide kolektiboak gaizki erabili ez zitezten.



Etxearen nortasun ezaugarrietako bat da **zerbitzuak** nola ulertzen duen: ez du ikuspegi asistentzialik; aitzitik, uste du gehiago lotu behar direla akonpainamendurekin, ahalduntzearekin, sareak agertzea sustatzearekin eta kontzientzia feministarekin. Etxearen hasieratik, leku fisikoa izan aurretik ere, dena amets kolektibo bat baino ez zenean, adostasuna zegoen hainbat gaitan: zerbitzuak doakoak izatea erabiltzaileentzat eta irabazi asmorik gabe ematea. Hau da, ezin dituzte enpresek eman, eta ezin diete irabazirik sortu profesional pribatuei. Baina horrek ez du esan nahi, nahitaez, ez direnik ordaintzen. Izan ere, hori aldatu egin da denborarekin: hasieran dohainik ematen ziren, baina batzuk elkarteen kontura joaten ziren, hitzarmen zehatzen bidez. 2018an erabaki zen zerbitzu guztiak berdinduz ordaintzea.

Etxea ez da besterik gabe joateko toki bat: etortzeak eta parte hartzeak, hemen lan egiteak (diru truke edo borondatez, Udalaren partetik nahiz Elkartearen partetik) lotura sortzen du, **konpromisoa** eraikitzen du. Hala, bada, Saileko langile gehienak, zerbitzu emaile eta ahalduntze taldeen hezitzaile gehienak Etxeko bazkideak dira, eta jarduera gehiagotan parte hartzen dute, beren ardurapean dituzten zereginetan ez ezik. Azken horiei buruz, zerbitzu emaileei/hezitzaileei buruz hain zuzen, barietate handia dagoela esan dezakegu. Batzuek denbora luzeko lotura dute Etxearekin (horietako batzuek hasieratik eman dituzte ikastaroak edo zerbitzuak), eta beste batzuk, berriz, geroago sartu dira. Berritzeko gaitasuna dago, eta, aldi berean, harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzen dira. Gehienek ikastaro edo zerbitzu bakarra ematen dute, nahiz eta batzuk ematen duten ikastaroa aldatuz eta/edo egokituz joan diren. Ikastaroak bete ohi dira eta zerbitzuak asko erabiltzen dira, askotan gainezka ere egiteraino.

Jarduera eta zerbitzu guztiek garrantzi bera dute eta, batez ere, erreferenteak dira emakumeek etxean bizi dituzten bizipenak deskribatzeko. “Ni talde honetan hasi nintzen”, “ni halako ikastarora joaten naiz”... Hor hezuramaitzen da proiektuarekiko lotura. Batzuetan, baliteke Etxeak emakumeentzat eratzen duen erreferentzia horrek jarduera batek irauten duen beste irautea, ez gehiago. Beste batzuetan, berriz, lotura denboran zehar hedatzen da eta nortasun propioa hartzen du: “ni batukadako naiz”, “ni

ventanera naiz”... Beste jarduera batzuek gehiago begiratzen dute kanpora, eta Etxea erreferente bihurtzen dute hiriarentzat. Danborrada, batukada, abesbatza, Blokea, Donostia Kulturarekin urtero antolatzen den Zinema Zikloa, Lilatoia... Jarduera horien bidez, Etxea Etxetik ateratzen da, eta, hala, feminismoetatik eragina izan eta espazioa okupatzeaz gain, ezbairik gabe, Etxea zabaldu eta ezagutarazteko eta haren erreferentzialtasuna areagotzeko balio dute. Horrek guztiak erakusten du emakumeek interesa dutela eskaintzen diren ikastaro eta lantegietan, eta ematen diren zerbitzuak emakumeen benetako beharretara egokitzen direla.

---

### **Gure ahotsak... Etxea niretzat da...**

*“Leku goxo bat non nire burua hobeto ezagutzera ahalduntzen dudan nire burua, hausnartzeko leku bat ere eta nire kasuan eragin izan duela politikoki.”*

*“Niretzat Etxea da topaleku bat, emakume desberdinekin topatzeko unea, toki eta bizipen ezberdinetako emakumeekin topatzeko lekua. Hazteko gune bat da ere, pertsona bezala eta emakume bezala. Eta ilusionatzen nauen zerbait, ilusioa jartzen du nire bizitzan.”*

*“Goxotasuna, poza, harrotasuna, sormena...”*

(Erabiltzaile taldeak)

### **3. Etxea zeharkatzen: bide nagusiak**

Puntu honetan, Etxean zehar ibiltzea proposatzen dugu, sistematizazio horretarako proiektuko bide nagusiak direnak oinez ibiliz. Lehenengo bideak Etxeari buruzko ideia batzuk biltzera garamatza, esparru eta eredu gisa. Bigarrenik, emakumeen ahalduntze prozesuetan zentratuko gara, Etxearen nortasuna ulertzeko beste bide nagusietako bat denez. Hirugarren bideak etxean bizi diren feminismoei buruz gogoeta egitera garamatza. Azkenik, kanporako begirada ulertzeko gako batzuk ditugu, geure buruari galdetzen diogula zer aliantza dauden eta esparruak zer erreferentzialtasun dakarren beste batzuentzat.

Orain, Etxean sartzen gara. Horretarako, 2020ko otsailaren 1ean memoria kolektiboari buruz egindako bigarren lantegiaren akta grafikoarekin hasiko gara. Hemen, Etxea zuhaitz bizi bat dela ikusten dugu, haziz doana. Haren adarrak proiektuaren bideak dira, eta haietan lorpenak (fruituak) ageri dira; badaude, baita ere, barrutik lagundu diguten alderdiak (hostoak) edo lana zaildu egin digutenak (harrak); baita beren eragina kanpotik egin dutenak ere (ureztaontziak eta aizkorak).





### 3.1. Etxea: esparrua eta eredua

Etxea esparrua da, eta funtzionamendu eredua. Ikus dezagun zer eragin duen edukitzaileak Etxearen historian, eta nola antolatu dugun gure bizitza barruan.



#### 3.1.1. Harrera ematen digun esparruari buruzko gogoetak

**Esparru bat izateko borroka** Etxearen hamar urte hauetako zati handi bat markatu du. Toki propioa izateak duen garrantzia eta ematen duen ahalmena onartzen ditugu, bai eta urte hauetan Okendo kalean egin ahal izan den guztia ere; baina, era berean, toki desegokia dela salatzen dugu, egungo esparrua muga argi bat delako Etxearen proiektua zabaltzeko eta sakontzeko, emakume gehiago eta askotarikoagoak biltzeko, ekimen gehiagori leku egiteko eta jende gehiago habitatzeko Etxea.

2015ean, Etxearen eta Elkartearen<sup>6</sup> arteko batzar batean egindako balorazioan, gutxien baloratutako elementuak tokia zabalagoa eta argitsuagoa ez izatea izan ziren. Baloratuenak, hiriaren erdialdean egotea eta garraio publikoan iristeko modukoa izatea izan ziren.

Izan ere, daukagun esparruak horrelako sentimendu anibalenteak sortzen ditu. Kokalekua oso positiboki baloratzen da; bizitza barruan nola gauzatzen den eta Etxeak duen bezalako programa zabal bat kalitatez garatzeko zer aukera erreal dagoen ikusten denean, begirada kritikoagoa da ezinbestean.

---

6

## Esparrua

*“Nik ikusi nuenean pentsatu nuen, ze local ederra, politta! izugarria da! Gero hemen zaudela ikusten duzu ba batzutan ez dagoela tokirik... gu beheran ensaiatzen gaude eta bero egiten duenean bukatzen dugu izerdi patxetan hor... asablada baten komentatu zuten honek ere topagune bat izan behar zuela... eman dezagun tailer batetik atera eta hemen kafe bat hartu, liburu batekin egon, eta agian zu ezagutzen zaitut, beste harreman mota egiteko aukera da. Emakumeen plaza bat. Auskalo zer sortuko litzake handik.” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Antolaketa ia ezinezkoa da. Oso txoko txiki batean ematen dugu aholkularitza, abokatuak hor daude ohituta daudelako... Dena entzuten da. Hemen hirurogei emakume sar gintezke (lehen solairuko aretoaz ari da), baina leihotxoak ez du balio aireberritzeko. Batukadakoak behean sartzen dira, baina nola sartzen dira? Harrera egiten dugu, gauza gogorak ateratzen dira eta beste emakume batzuk sar daitezke, korridore batean zaudelako. Sarrera ezinezkoa da, ez dago egoteko lekurik, komunak hitzaldiak egiten diren tokian daude... Daukagun tokiarekin lortu duguna lortzera iristea egin dugun egokitzeko ahaleginaren ondorioa izan da, eta guztiok, ilusioz eta baikortasunez, zerbait sortzeko asmoz egin dugun lanaren ondorioa ere bai... Esparru honen alde ona hiriaren erdialdean dagoela da.” (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

*“Txikia egiten zait. Asko gustatzen zaizkit liburutegiak eta, ahal dudanean, joan egiten naiz; pixka bat badut, zerbait irakurtzen dut... eta batzuetan pentsatu dut "zergatik ez Emakumeen Etxean?". Partekatze, elkar ezagutzeko, harreman horiek ikusarazteko...” (2. erabiltzaile taldea).*

Okendo kalean leku bat izateak **abantaila** asko ditu, besteak beste, ageriko tokia dela eta erraza dela emakumeentzat hara joatea. Baina eraikinak, egokitzeko **ahalegin** asko egin badira ere, bertikala izaten jarraitzen du, estua eta irisgarritasunik gabea mugikortasun murriztua duten pertsonentzat; bestalde, desegokia da talde handientzat edo programatzen diren jardueretako batzuk egiteko; ez dago zerbitzuetan edo emakumeei arreta egitean intimitatea bermatzeko moduko tokirik... Gainera, lekua ez da **nahikoa**: ezinezkoa da jasotzen ditugun proposamen guztiak bertan egitea. Eta erabili nahi duten erakunde feministek, jardueretarako edo bileretarako, erreserbak egin behar dituzte, hainbesteko aurrerapenarekin, non askotan zaila egiten zaien benetan sentitzea Etxea berena ere badela.



Muga horiek direla eta, emakumeek pentsatu dezakete Etxera joanez gero, zerbait egitera joan behar dutela, nahitaez. Ez dago lekurik egoteko, irakurtzeko, zerbait hartzeko edo beste emakume batzuekin nahi dutena partekatzeko. Etxea ez dago habitatuta, zentzu horretan, eta, ikusiko dugunez, horrek lotura zuzena du proiektua handitzeko posibilitatearekin, eta topaleku izaera handiagoa izatearekin, emakume guztien Etxea izatearekin.



Esparrua, eta hura dela eta izandako **joan-etorriak**, argi islatzen dira Etxearen historiaren kontakizun kolektiboan. Balorazioa kritikoa da. Badirudi, alde batetik, etengabe justifikatu behar dugula esparru hori eta, batez ere, baldintza hobeak dituen beste baten beharra defendatu behar dugula, behin eta berriz. Bestalde, Etxetik urtean igarotzen den emakume kopurua eta egiten diren jarduerak kontuan hartuta, eta hori hiriko liburutegiekin, adibidez, konparatuz gero, badirudi espazioa gutxietsi egiten dela. Inork ez du zalantzan jartzen liburutegi horiek, gune zainduak eta egokiak dituztenak, ezinbesteko ekipamenduak direla, erabiltzaile kopurua albo batera utzita. Orduan, zergatik da hain zaila gauza bera lortzea Emakumeen Etxe baterako? Azkenik, esparrua (edo, zehatzago esan, Okendoko Etxea gainditzeko zailtasunak: behin-behinekoa zen, baina badaramatza hamar urte behin-behinekotasun horretan) proiektuarekiko interes eta borondate politikoaren termometro bihurtzen da.

### 3.1.2. Etxean gertatzen dena: programazioa

Etxea **bizi-bizirik** dago, jardueraz eta emakumez betea, dokumentu honetako beste puntu batzuetan esan dugun bezala. Urtero eskaintzen den **programazioa** askotarikoa dela uste dugu, parte hartzen duten emakumeen interes eta beharretara egokitua, eta etengabe

aldatuz doa, beti ere aukerarik erakargarrienak bilatuz, emakume gehiago hurbildu eta etxeko proiektuarekin konprometitu daitezten.

Hori guztia **planifikatzea** ez da erraza.

Goizean Etxera joaten diren emakume gehienak kontsultak eta eskaerak egitera joaten dira, eta, arratsaldeetan, ikastaro eta jardueretan parte hartzera, bai eta ahalduntze taldeetan ere. Zerbitzuen antolaketa Berdintasun Sailari lotuta dago; ikastaroak, berriz, Elkartek antolatzen ditu gehienbat, eta taldeak, biek. Banaketa hau ez da zerbait itxia; izan ere, Etxearen jarduna osatzen duten bi aldiek, goizak eta arratsaldeak, elkarrizketa etengabea daude beti. Esparru berean bi funtzio baleude bezala da, goizaren eta arratsaldearen artean oihala jaitsi eta berriz igoko balitz bezala, baina beti ere Etxearen eta proiektuaren identitatea –feminismoen aldeko apustua– ardatz izanda.

Ildo horretatik, eta urtero horrelako programa bat eraikitzeke, ezinbestekoa da Sailaren eta Elkartearen arteko elkarrizketa. Bi esparruok egiten dituzte proposamenak, oro har, adostasuna handia izan da. Hala ez denean, eztabaidak izaten dira, beti ere adostasunaren bila, eta, hala, bi aldeek bereak bezala sentitzen dituzten programazioak lortzen dira.

**Elkartearen** aldetik, programaziorako funtsezkoa da **Artikulazio Batzordea**, Etxeko eskola feminista zuzentzen duena. Batzorde hori ezinbestekoa da dinamizatzailearen lana bultzatzeko, eta, batez ere, programaturako jardueri eman nahi zaien azken zentzua ez galtzeko: *“Sortuz joango diren espazioak zein diren pentsatzen du batzorde horrek. Emakumeak Etxera erakartzeko ideia dute, eta horretarako lantegi laburrak edo puntualak egiten dira, bospasei saiokoak. Eta, gero, ahalduntze guneak daude, urte osokoak. Taldea sortzen dute, eta Etxeari lotuta daudela sentitzea nahi dugu. Hasieratik gure ideia da kultura gela ez bihurtzea, eta hori oso zaila da”*. (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)

Batzorde honek ezartzen du zertaz lan egingo den urtean zehar. Gero, beste kontu batzuk iritsi ahala, hori osatuz doa. Kontuan hartu behar da beste batzorde batzuek ere sortzen dutela programazioa, hala nola zinemarena, erasoen aurkakoa edo xakekoa. Beraz, esan genezake Elkarteko dinamizatzailearen lana urtero collage hori osatzea dela.

**Sailak** bi ideia nagusi ditu oinarri. Lehenik eta behin, Elkartearen autonomia errespetatzea jardueren antolaketari dagokionez. Bigarrenik, Etxearen eskaintza osatu eta zabaltzeko rola betetzea; alde batetik, Elkartek erantzun ezin dien beharrei erantzuten saiatzen da, edo eskaintza zabaltzeko eta doitu egiten du, eta Etxera joaten ez diren profilak dituzten emakumeak erakarri (adibidez, aniztasun funtzionaleko emakume talde bat osatzeko apustua); eta, bestetik, Etxearen egutegia zabaltzen du eta udan jarduerak programatzen ditu, Elkartek eskaintzen ez dituenean.

Galdera hauek egiten diogu geure buruari: Programatzen den guztian bada hari gidaririk? Nola lortzen da hori? Etxeko dinamizatzaileek argi dute: **feminismoa da hari gidaria**. Bai jarduerena bai zerbitzuena. Ideia hori funtsezkoa da zerbitzuei eman nahi zaien orientazioari buruzko eztabaidak ulertzeko, begirada asistentzialetatik ihesi (ideia hori dagoeneko aztertu dugu historia kontatzean, eta horretaz itzuliko gara ahalduntzeaz hitz egiten dugunean).

### **Hari gidaria**

*Feministak diren gaiak lantzen ditugu beti, hori oso argi dago, hor ez gara deskuidatzen. Hori argia eta funtsezkoa da. (...) Etxean egiten den guztiari eduki feminista nola ematen zaion pentsatzen ari gara une oro. (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

Hainbat elementuk **bermatzen dute ikuspegi feminista hori**. Lehenik eta behin, argi izatea, eta antolatzen den jarduera guztiei iragazki hori aplikatzea. Bigarrenik, eta hori giltzarri nagusizat hartzen da, bideratzaileek eta hezitzaileek konplizitatea izatea: haiek ikuspegi hori integra dezaten eta zerbitzuen edo ikastaroen eta Etxearen arteko lotura izan daitezen. Hirugarrenik, zerbitzuen proposamena elkarreetatik sortu izana, mugimendutik, eta denborarekin Etxean “instituzionalizatu” izana.

### **Zerbitzuak, feminismoa eta ahalduntzea**

*Etxean zerbitzuak ematen dituzten emakumeak militante feministak dira. Horrek esan nahi du, ahal duten neurrian, laguntzen saiatzen direla, oro har, egia bada ere hainbeste denbora ez dutela. Non zaude: Emakumeen Etxea da, bazkide egin zaitezke... Ikusten dute nola lotu emakume horiek Etxearekin. [...] Gehienak oso lotuta daude Etxearekin. (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

*Zerbitzu gehienak militantziaz bertatik sortu ziren [...] Saila*

*baldintzak hobetzen saiatu da [...] Zerbitzuak planteatzeko ikuspegia [hau da]: dena ahalduntzera bideratuta dago, nahiz eta ez dirudien hala denik. Aldea dago beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten beste zerbitzu batzuekin... (Etxeko/Saileko dinamizatzailea)*

**Gaiezka egitearen** ideia ere azpimarratu behar da. Daukagun tokia kontuan hartuta, eskaintza zabala da. Badakigu gauza batzuetara ezin garela iritsi, eta, zehatzago esanda, zerbitzuek ez dituztela eskaera eta beharrak asetzen. Nolanahi ere, ez iristearen sentsazio horri mugak jarri behar zaizkio, argi baitauekagu Etxeak ezin dituela egin Administrazioak egin behar dituen lan batzuk. Ez dago zerbitzu leku bihurtzeko borondaterik, eta, beraz, deribazioa funtsezkoa da (are gehiago esparruaren baldintzak kontuan hartuta, ez baita erraza han arreta egokia ematea)<sup>7</sup>.

### **Bideratzea eta zaintzea**

*Esparru horretan emakumeak hartzen ditugu, eta zaindu, baina deribazioak egiteko ahalegina eginez. Ez dugu nahi hau hor, korridore batean, sarrera batean, deskargak egiteko toki bihurtzea, gero kudeatu ezin ditugun deskargak. Gero itxi ezin ditugun gauza batzuk irekitzea. (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

### **3.1.3. Kogestio eredu: moldeak hausten dituen proposamen baten ahalmena**

**Kogestio eredu** baten aldeko apustua –Administrazio Publikoa-Elkartea– funtsezko elementuetako bat da Etxearen identitatea eta hamar urteko ibilbidea ulertzeko. Eredu hori oso berritzailea izan zen proiektua definitzeko prozesuan proposatu zenean, eta gaur egun erreferentea da beste Etxe eta administrazio batzuentzat, bai toki mailakoentzat bai Europakoentzat. Finkatuz joan da, praktiken eta eguneroko jardunaren bidez.

---

7

DG18 dokumentuan (ikus zerrenda eranskinetan), oso beteta dauden zerbitzu edo ikastaro giltzarri batzuen adibidea jartzen da: “Indarkeriarik gabeko Mundu Baten aldeko Emakumeen Taldea”, “Aholkularitza, Laguntza Taldea” eta “Norbanakoaren Jabekuntzarako Gunea”.

Lehen esan dugun bezala, eredu horrek behar bezala funtzionatzeko, gutxienez, funtsezko **bi elementu** behar dira: lehenengoa Elkartea existitzea da, emakumeek Etxearen kudeaketan duten parte hartzea mamitzen duena eta proiektuaren oinarri soziala ordezkatzeko duena. Bigarren elementua Elkartearen eta Administrazioaren artean topalekuak eta koordinazio guneak egotea da, ereduak gorpuzten dutenak.



Alde horretatik, nabarmendu behar dugu badela *kogestio formaleko* gune bat, Elkartek eta Saileko politikariek eta teknikariek osatua, azken hamar urteotan gorabeherak izan dituen, besteak beste, Etxearen bizitzaren zentralitateari eta/edo bilera kopuruari dagokienez. Gune horrekin batera, *eguneroko kogestio* gune esaten dioguna dago. Bertan parte hartzen dute, batez ere, Etxeko dinamizatzaileek, eta, batzuetan, Saileko teknikariek. Proiektuaren eguneroko jardunaz hartzen du bere gain. Balorazioa kritikoagoa da kogestio formaleko guneari dagokionez, baina oso positiboa, eguneroko kogestioari dagokionez, eta esan dezakegu baita ereduari berari dagokionez ere. Kogestio eredu berritzaile eta arrakastatsu hori abian jarri izana izan zen Emakumeen Etxea Elkarteari Elkarlan saria emateko arrazoi nagusietako bat. 2017<sup>8</sup> eman zioten.

---

8

Sari hori urtero ematen die Eusko Jaurlaritzak “balio publiko partekatua sortzea sustatzen duten proiektuei, gizartearen beharrak eta erronkak asetzeko eta pertsonak eta kolektiboak ahalduntzeko prozesuak aktibatuzko gai direnei”.

## Kogestioa

*“Behin-behineko eredu gisa onartu nuen kogestioa, autogestionarioak garela ikustera eramango gintuelakoan. Eta denborak erakutsi dit erabaki ona izan zela.”* (Etxeko taldea, 1. saioa)

Esan bezala, kogestio formala ez dago kritiketatik libre. Kritikatu da, batez ere, legegintzaldi desberdinetan esparru horri eman zaion lehentasun politikoa eta bultzada. Elkarrizketatutako hiru zinegotziek positibotzat jo dute eredia, bakoitzak bere ikuspegia emanaz.

## Kogestio ereduaren ikuspegi politikoa

*“Oso eredu interesgarria izan da (...) eta Donostiaren kasuan oso ondo funtzionatzen ari da (...) Erantzunkidetasuna sortzen du. Haiei (Elkarteari) ondo etorri zaie, baina guri ere bai.”* (Duñike Agirrezabalaga, Berdintasunerako zinegotzia 2015etik)

*“Oso garrantzitsua... hor egin genuen lana ezinbestekoa zela. Komunikazio espazioa zen, gardentasunez eramaten ziren gauzak, eta elkartearen aldetik ere ba gardentasunez ematen zuten iritzia eta zaiatzen ginen amankomun puntu batera iristen (...) Asko disfrutatzen nuen hará joaten (...) eskariak entzun, behar den espazioetan tramitatu edo jaso informazioa, landu eta berriro eraman bueltan...”* (Naiara Sampedro)

*“Kogestio eremuak aukera asko eskeintzen zituen, baina politikoki mozten joan dira (...) Gaur egun mastentzen eta sostengatzen dela bertan parte hartzen ari dirán emakume eta elkarteei esker.”* (Ainhoa Beola)

Argi dago eguneroko kogestio ereduak hor dauden emakumeei esker funtzionatzen duela, bai eta haien artean eta ereduaren protagonista diren bi figuren artean, Elkartearen eta Sailaren artean, sortzen diren harremanei esker ere.

Baina harreman horrek **zailtasunak** ere baditu, batez ere bi logika bateratu behar direlako: militantzia/Elkartearena eta teknikari/Administrazio Publikoarena (nahiz eta kategoria horiek askotan ez diren hain itxiak: Saileko teknikari asko Etxeko kideak dira eta proiektuko parte hartzaile aktibotzat jotzen dituzte beren burua). Nolanahi ere, kogestio ereduak zerbait definitzen badu orain, komunikazioa da, ados jartzeko gaitasuna, harreman errazak, adostasun maila handia eta elkarrekiko errespetua eta maitasuna. Eta aho batez baieztatzen dugu **ereduak funtzionatzen duela**; are gehiago, “oharkabeen” pasatzen dela, eta ez zara konturatu ere egiten atzean zer dagoen. Hori positibotzat jotzen da, baina, agian, proiektuaren oinarri diren zumeak nolabait ikusarazteko beharra ere erakusten du, proiektuan parte hartzen duten emakumeak gehiago inplikatu daitezten. Hurrengo puntuetan itzuliko gara ideia horretara.

### **Benetako kogestioa**

*“Bada ideia komun bat Etxeari buruz.” (Etxeko taldea, 2. saioa)*

*“Ona, berdintasunerako teknikari aliatuak ditugu, feministak dira, guztizko aliantza egiten ari gara, kosta ahala kosta. Eta gauza asko lortzen ari gara. Egitura, segurtasuna... ematen digute.” (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

*“Ondo funtzionatzen duena benetako kogestioa da, eta hori bai, hobetu egin da. Iritsi nintzenez, gauzek ez zuten hain arin funtzionatzen... dena konpartimentutan banatua bezala zegoen... Baina, azken urteotan, gauzak aldatu egin dira. (...) Konfigurazio fisikoak ere badu eragina. Saila goian, hirurak behean, geure espazioarekin, askoz hobeto. (...) Elkarren osagarriak gara, enpatia dugu.” (Etxeko/Saileko dinamizatzailea)*

Beraz, eredu arrakastatsua dela esan dezakegu. Hartan, **bat-egite** asko izaten dira, Saileko teknikarien lanaren eta Etxeko eta Elkarteko dinamizatzaileen artean (batzarraren eta batzordeen bidez). Ekarpenak egiten dituen eta indarra ematen duen eredu da. **Berdintasun Sailak** uste du aberasgarria dela Etxean egotea eta kogestioan parte hartzea. Hamar urte hauetan, teknikariek loturak sortzeko eta gauzak errazteko eginkizun handia izan dute beti errazak ez ziren egoeretan, eta proiektuarekiko konpromisoa erakutsi dute.

**Elkartekak** uste du kogestio ereduak feminismoa eraikitzen laguntzen duela. Eredu horrek aukera ematen du, argi eta garbi, teknikarien eta bazkideen arteko aliantzak egiteko;



mugimendu feministari aukera ematen dio Etxea bezalako espazio bat kudeatzeko, eta, zuzenago edo zeharkakoago, berdintasunerako politika publikoetan eragiteko. Beraz, emakumeen ahalduntzea nabarmen indartzen duen eredia da.

### Ahalduntzen duen eredia

*“Kogestio eredu horretan parte hartzeak Elkarteko emakumeak ahalduntzen ditu: ahal duzula sentitzea; espazio bat, programazio bat kogestionatzen ari zarela sentitzea, zer egiten den eta nork egiten duen aukeratzen duzula ikustea. Elkartetik hurbil dauden emakume asko lantegiak ematen hasi dira eta Etxeari buruz beste leku batzuetara hitz egitera joaten direnak hitzaldiak ematen hasi dira (...) Koordinadoran gauden emakumeak eragile bihurtzen gara. Denok ahaldundu gara (...) guztion artean ikasten ari gara: zer diren adierazleak, zer den plan estrategikoa. Batek kontatu egiten digu, lagundu egiten digu... eta dena parte hartzeko prozesu baten bidez egiten ari gara” (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea).*

*“Kogestioak aktore bihurtzen gaitu.” (Etxeko taldea, 2. saioa)*

**Dinamizatzaileek** duten zeregin garrantzitsua argi identifikatzen da. Gaur egun kontratatutako pertsonak (Etxeko dinamizatzaile bat lanaldi osoan, eta Saileko dinamizatzaile bat lanaldi osoan) lan bolumenari erantzuteko nahikoak ez diren arren, egoera finkatu egin da hamar urte hauetan. Lan kargari aurre egiteko, funtsezkoa da Saileko gainerako langileen eta Elkarteko emakumeen laguntza.

Alde horretatik, dinamizatzaileek, beren rolaz eta egiten dituzten lan ugarietz jabeturik, gainkarga dutela uste dute; beren lanpostua ezinbestekoa dela uste dute, nahiz eta hura betetzen duten pertsonak aldatu daitezkeen.

### Dinamizatzaileak

*“Lan oso aberasgarria da, eta gauza pilo bat irakasten dizu. Argi dagoena da gauza asko daudela, baina uste dut, baita ere, “zuk zeuk egin” edo antzeko ideia bat nagusi dela Etxeko giroan, etortzen diren emakumeen artean, denak berez funtzionatu dezala, arin. Hori dela eta, ez dago inor guztiz ezinbestekoa denik. Guztion artean, lana*

*eginez goaz.*” (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)

## 3.2. Emakumeak ahalduntzeko Etxea



### 3.2.1. Ahalduntzearen hainbat alderdi

Ahalduntze kontzeptuak zenbait erresistentzia sortzen ditu, nola formulatzen den. Hala ere, argi dago proiektuarentzat **funtsezkoa dela** Etxea izatea emakumeek munduan duten egoeraz eta antolamenduaz kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzen laguntzen duen esparru bat, bai eta antolatzen laguntzen duen esparrua ere, indarrean dagoen eredia feminismotik aldatzeko bide gisa. Horrela, ahalduntzeak eta feminismoak beharrezko jarraitutasun hari bat dute.

Memoria eraikitzen parte hartu duten emakume gehienentzat, etxea garrantzitsua izan da beren **ahalduntze prozesuetarako**. Emakume guztiak ez dira egoera berean iristen Etxera, ezta behar bereberekin ere. Batzuk “puskatuago” daudela diote, edo krisi une sakonagoak igarotzen ari dira. Horrelako momentuetan, Etxeak leku lasaia dirudi, hobeto egoteko tokia. Beste batzuk, agian, ez dira iritsi beren bizitzako hain momentu zailetan, baina onartzen dute Etxeak eta haiek parte hartzen duten jarduerak aldatu egin dutela nola begiratzen diote munduari, nola ulertzen duten, eta tresna gehiago eman dizkietela hainbat gaitan hobeto egoteko. Horientzat guztientzat, Etxea izatea bera ahalduntze horren parte da dagoeneko, hor dagoela jakitea, emakumeek eta emakumeentzat pentsatutako esparru bat dagoela, funtsezkotzat jotzen duten zerbait da.

Etxean egiten den ahalduntzearen alderdi horiei ekitean<sup>9</sup>, kontzientzia hartzeko eta ekintzara pasatzeko esparru horretan, ikusten dugu prozesu horien funtsezko **hiru dimentsio** identifikatzen direla, argi eta garbi: banakakoa, kolektiboa eta politiko-soziala.

---

9

Ahalduntzearen dimentsioei buruzko informazioaren zati bat Elkarteak Elkarlan sarirako aurkeztu zuen dokumentutik atera da (D.G.2).

Ahalduntzearen **dimentsiorik indibidualena** argi eta garbi ikusten da emakumeek Etxearekin duten lehen harremanean; zerbitzu, talde, ikastaro eta abar batean sartzearen bidez hasten diren prozesuetan. Haietako askorentzat, aldaketarako lehen urratsa da, eta, askotan, Etxeko beste gune eta jarduera batzuetan parte hartzera daramatza. Premia handiak dituzten eta bizitzako une mingarriei edo bakardadeari aurre egiten dieten emakumeentzat, Etxea helmuga bezalako zerbait da, eta han entzuten zaiela eta beren egia ez dela zalantzan jartzen sentitzen dute. Etxea bezalako espazio bat badela jakiteak seguruago sentiarazten ditu: beti dago leku hori, beharra izanez gero. Ez dago bi prozesu berdina, eta emakume guztiek egindako bidea ere ez da berdina, baina bada sentimendu komun bat harrera onari eta entzuna izateari dagokienez, bai eta konfiantza sortzeari dagokionez ere, begirada berezi bat jaio dadin, begirada horrekin, gutako bakoitzari eta gure inguruari begiratzeko, ikuspegi kritiko eta feminista batetik. Beste puntu batzuetan, itzuliko gara gai horretara.

Ahalduntzearen dimentsio indibidualago hori ez da bakarrik izaten horrelako espazio batera lehen aldiz hurbiltzen diren emakumeen kasuan. Era berean, alde aurretik beren burua feministatzat jotzen dutenen kasuan ere gertatzen da; izan ere, beti daude hausnarketak egiteko, bai eta gure bizitzak ikuspegi berri batetik aztertu eta eraikitzeo aukerak ere. Horren ondorioz, ahalduntzea ez da azken helburua, etengabeko prozesua baizik, etengabe elikatuz doana, kasu honetan, Etxeak eskaintzen dituen aukerei esker.

**Dimentsio kolektiboa** funtsezkoa da. Jauzi hori beharrezkoa da ulertzeko niri gertatzen zaidana beste batzuei ere gertatzen zaiela eta, gainera, zentzu politikoa emateko kategoriak ditugula. Etxeak aukera ematen du emakume desberdinen arteko harremanak ehuntzeko. Askotan duten bakardade eta isolamendu sentazioa gainditzea lortzen dute; beren aniztasunean elementu komunak aurkitzen dituzte, eta esparru patriarkalak urratzeko aukerak zabaltzen dituzte, beren bizitza indibidualetan, baina baita emakume gisa eta espazio publikoa okupatzen duen talde gisa ere. Hala gertatzen da, adibidez, Batukadak, abesbatzak, clownak eta Etxeko ibilbidean egindako beste hainbat ekimenekin. Dimentsio kolektibo horretan argi ikusten da begirada feministaren garrantzia; ahalduntze prozesuek sentsibilizazio eta kontzientziazio feministen bidea egiten dute. Beren burua ezagutzean, emakume asko feminismotik hurbilago sentitzen dira, eta, mugimenduaren parte gisa definitzen dira, zalantzarik gabe. Indar kolektiboa ere agertzen da barruari dagokionez: Etxe honetako kide sentitzearen ondorioz, emakumeak hura defendatzera ateratu dira mehatxupean sentitu denean.

Azkenik, **dimentsio politiko-soziala** dugu, beti ere konplexuagoa dena. Ekintzara pasatzen gara, eta esan dezakegu feminismoa argiago agertzen dela ekintza politiko kontziente eta esplizitu gisa. Etxearen proiekturako, hau ere funtsezko dimentsioa da, hiru kontutan behintzat argi ikusten dena. Lehenengoa: emakume asko hartzaile/erabiltzaile izatetik Etxeko proiektuaren bideratzaile/arduradunak izatera pasatzen dira. Bigarrena:

emakumeak Etxetik kanpoko beste esparru batzuetan parte hartzea sustatzen da. Etxeak tresnak ematen dizkie emakumeei parte hartze soziopolitiko handiagoa izateko, baina, batez ere, baita beste ikuspegi batetik parte hartzeko ere. Eta, hirugarrena: eragin politikorako jauzia, Etxetik bultzatzen den kalerako jauzia, agenda feministaren manifestazioetan eta/edo aldarrikapenetan parte hartuz. Etxean bizi izan duten horretan oinarrituta, emakume askok egiten dute jauzia; baina, gainera, Etxeak, “Etxearen blokearen” bidez jauzia egiteko aukera ematen du –Blokea une horietan kolektiboki parte hartzeko antolatzen da–.

### Ahalduntzearen hainbat alderdi

*“Nik sinesten dizut, nik babesten zaitut, nik ulertzen dizut, nik laguntzen dizut.” (Erabiltzailea).*

*“Ni oso jota iristen baldin banaiz, egingo didate zaintza oinarritzko bat. Baina, ya behin osatuta nagoenean, hasten naiz beste gauza anitzen zaiatzen. Agian ni nire lantegian beti ixilik nago eta hemen izan nahike iztuna, edo nire etxean ez dakit nola nagoen eta hemen... laborategi figura hori oso polita iruditzen zait. Horrek sendatzen gaitu, beste emakume desberdinak aukera izateko toki experimental bat izatea, ederra da...” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Indarkeria matxista jasan nuenetik... zuloatik ateratzeko jakitea dagolea jendea zu laguntzeko prest, prest gizartea aldatzeko eta gauza hauek ez gertatzeko, azkenean hori da zure bizitza hobetzea.” (2. erabiltzaile taldea).*

*“Itxita etortzen bazara ere, edozein ikastarok azkenean hazka egien dizu. Emakume gisa hazka egiten dizu: bikote harremanetan, seme-alabekiko harremanetan, nagusiarekiko eta lankidearekiko harremanetan... (...) Nire ahalduntze prozesua ez da bukatzen, oso feminista banaiz ere. Etengabe aztertu behar ditut nire jarrerak, nire balioak, nire aurreiritziak...” (erabiltzailea).*

*“Etxeak leku bat ematen digu esperientziak eta elkartrukatze, pluraltasuna ikusten da. Bizipenak partekatzeko. Ez dauka zertan negatiboa izan beharrik, ematen du ere honea zatozela zure penak kontatzeko bakarrik... eta ez, parrak, alaitasuna... parra asko botatzen*

*ditugu elkarrekin hemen...” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Nik uste bizitza guztian izan naizela feminista baina etorri nitzenean behar bada apuro ematen zida nire burua feministatzak jotzea, zer egin duzu zuk holako hitza jartzeko? Eta gero beste gauza ezberdin asko ikusi ditut, eta noski, banaiz... feminista modu desberdinetara.” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Etxea ahalduntze kolektiboaren ideiazen hezurmamitze bat da. Hiriaren erdialdean esparru bat sortzea, eta, bertan, gu pentsatzen eta definitzen hastea zer nahi dugun, lurreratu eta gero hori hezurmamitzea... Lan bat da elkarrekin egiten duguna, gero hirian eragiteko.” (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea)*

### **3.2.2. Ahalduntzerako baldintzak sortzen dituen Etxea**

Etxean argi daukagu, ahalduntze prozesu oro gerta dadin, ezinbestekoa dela **baldintza egokiak sortzea**. Ez da hainbeste gogoeta teoriko bat: ez dugu pentsatu nahi zein izan beharko lukeen, gure iritziz, bizitza libreagoak bizitzeko proiektura hurbiltzen diren emakumeek jarraitu beharreko bideak, baizik eta hori praktikatik, egitetik abiatuta, ahalbidetzea.

Emakume askorentzat, funtsezko elementua izan da **Etxean ondo sentitzea**; ez sentitzea epaituak, baizik eta adierazteko libre izatea, eta horretarako zainduak direla sentitzea. Hori ez da garrantzi gutxiko zerbait, elementu nagusia da “ni” horretatik “gu” bat eraikitzeke; eta Etxea habitatzeko, prozesu horiek bizitzeko eta hazteko esparrua dela sentituz.



Hala, Etxea leku segurutzat deskribatzen dute, giro ona duena, konfiantza ematen duena, eta dibertitu, ikasi eta sareak sortzeko aukera ematen duena. Etxean gertatzen den guztiaren ondorioz, espazio propio bihurtu da, hainbat bide edo arrazoiengatik emakumeak joaten diren espazioa (fisikoa baino harago doana). Askorentzat **Etxe propioa**, modu puntualagoan edo egonkorragoan, baina beti iristen zaiguna, gurea sentitzen duguna; beraz, defendatzeko prest gaude (gertatu den bezala, historiaren kontakizunean ikusi dugun bezala). Guztiontzat, ukaezina da Etxea izateko beharra, eta, gainera, esan behar da ez dela edozein Etxe, baizik eta hau bezalako etxe bat, ahalduntze eta feminismoaren ideiak gauzatzeko esparrua eskaintzen duena.

Zerbitzu-emaileek/hezitzaileek ere ulertzen dute hori. Esparruak berak, elkarrekin egoteko, libre eta seguru sentitzeko eta pozik egoteko toki gisa funtzionatzen duen neurrian, ahalduntze prozesu horiek sustatzen ditu. Nola edo hala, espazioa izateak berak, habitatuta egote hutsak, emakumeak ahalduntzen ditu, neurri handi batean, elkarrekin egon daitezkeelako harreman positiboak eta horizontalak ezartzen diren espazio batean. Zerbitzu emaile batek dioenez, Etxeak ahaldundu egiten du, "topalekua delako". Hori ez dator bat emakumeak isolatuta dituen gizarte batekin, kontrol soziala eta epaiketa, are mehatxua ere, ugaltzen diren leku asko dituen gizarte batekin. Bestela esanda: Etxea behar baten pertzepziotik sortzen da, eta erantzuna ematen dio. Gainera, zerbitzu



emaileentzat/hezitzaileentzat, ahalduntze hori joan-etorrikoa da. Haiiek, zerbitzu emaile/hezitzaile gisa, ez daude prozesu horietatik kanpo, haien parte sentitzen dira.

#### **Ahalduntzerako baldintzak sortuz... Hau nire Etxea da**

*“Hau itxaropena da, eta itxaropena ematen diegu emakume askori, askotariko profilak eta errealitate oso desberdinak dituzten emakumeei. Eta guztiei zerbait emateko gai gara.” (Erabiltzailea).*

*“Kalean gatazka asko, eta era guztietako gatazkak, dituzten emakume asko babestuta sentitzen dira hemen. Paperik ez duten emakumeak ere... Inoiz ez, inoiz ez da hemen egoteko eskubidea zalantzan jartzen. Inoiz ez zaie mesfidantzaz begiratzen.” (Etxeko taldea, 1. saioa)*

*“Etxean loratu den gauzetako bat giro ona da, gaudenok giro ona izateko dugun gogoia.” (Etxeko taldea, 2. saioa)*

*“Hemen badago halako kode bat, denok onartzen duguna. Guztiok daukagu tokia, guztiontzako dago aukera. Hori etxe honek duen balore handi handia da. Guztiontzako aberatsa da.” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Badakizu inork ez zaituela epaituko, zuk ez duzula inor epaituko, ez dela inor egongo gaizki esaka... Zu zatoz honea modu aske batean, libre zara edozein gauza esateko, seguroa... pareta hauek magia bezala dutela, Etxe bihurtzen dira.” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Elkartzeko aitzakiak ditugu, emakumeak bakardadea eta zaintzera kondenatuta gauden Gizarte honetan harnasguneak oso beharrezkoak dira, ezinbestekoak osasuntsu bizirauteko.” (Zerbitzu emailea/hezitzailea)*

### **3.2.3. Ahalduntze prozesuen zerbitzura dauden zerbitzu, ikastaro eta taldeak**



Etxean sustatzen diren ahalduntze prozesuak ulertzeko funtsezkoa den beste elementu bat **ikuspegi feminista** da. Horretan oinarrituta, ahalduntze taldeak, ikastaroak eta zerbitzuak programatzen dira.

**Talde eta ikastaroen kasuan, argi ikusten da ikuspegi hori edukietan ez ezik, formatuetan ere integratzen dela:** *nola ematen diren eta horrek zer eragin duen parte hartzen duten emakumeengan. Hezitzaile batek laburbiltzen duenez, ahalduntzea sortzen da “Etxean antolatzen diren jarduera guztiek ikuspegi feminista dutelako” (zerbitzu emailea/hezitzailea). Kontua ez da bakarrik Etxeak topaleku eta harrera gune bat eskaintzea, ez eta jarduera aukera asko zabaltzea*

ere. Hortik harago, jarduera horiek abian jartzen dira desberdintasunaren kontzientziaren eta desberdintasunari heltzeko eta aurre egiteko berariazko borondatearen ikuspuntutik. Ahalduntzea ikastaroen, lantegien eta zerbitzuen berariazko helburua da: *“uste dut ikastaro, lantegi, zerbitzu eta jarduera guztiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza dutela oinarrian; beraz, helburua da desberdintasunei eta indarkeriei aurre egiten lagunduko diguten tresnak ematea geure buruari” (zerbitzu emailea/hezitzailea).* Ikastaro baten xede konkretutik harago, bada sakoneko helburu bat, hura gainditzen duena<sup>10</sup>.

Horregatik, Etxeako jarduera hauetan parte hartzeak zera dakar: *“Hortik aurrera, betaurreko moreak zure errealitatea dira” (zerbitzu emailea/hezitzailea).* Gainera, taldean egitean, emakumeek ahalduntze kolektiboaren dimentsio saihestezina lortzen dute, nahiz eta bakoitzak bere baitan izan norbanakoaren ahalduntzearen berariazko helburua.

### **Ahalduntzea taldeetan, ikastaroetan eta zerbitzuetan**

*“Nire tailerretan argi ikusten dudalako ahalduntze indibiduala, eta nahiz eta kolektiboa zailago den ikusten, konturatu naiz hori ere lortzen dela, ez agian taldean dauden guztiekin baina gaiak ateratzen dira, eta horren inguruko hausnarketak kolektibo baten inguruan egiten dira eta borroka kolektiboa behar duela zian argi geratzen da...” (zerbitzu emailea/hezitzailea)*

Adibidez, Empalabramiento taldean helburua “hizkuntza ikastea da, autonomia eta independentzia handiagoak izateko”. Eta Aholkularitza, Laguntza taldeetan (2011az geroztik hona eskaintzen ditu Etxeak) helburua da “lortzea emakumeak feminismoarengana hurbiltzea eta ahalduntze-estrategia bat bezala ulertzea, beren bizi-helburuak hobeto ulertzeko.” (D.A.1)

*“Intentzio bat dagoelako... tailerretan intentzio hori dago, guztiontzako tokia egitea eta juiziorik gabe. Adibidez Batukadan, ikasten ari garenean eta ni gaizki egiten dudanean eta zu zuzentzen nauzunean, beti dago umore puntu hori, elkarlan puntu hori, eta horrek asko arintzen du, presioak asko kentzen du.” (3. erabiltzaile taldea).*

*“Adibidez filosofian... lehenengo egunean ezan ziguten... ez gutxietsi zeure burua. Hori garrantzitsua da... balio du nereak, eta zureak... denona balioa du..” (3. erabiltzaile taldea).*

*“(Batukada) Gaur berrogei gaude, ezin direlako gehiago sartu; hogeita bost emakume baino gehiago geratu dira itxaron zerrendan. Eta urte hauetan ikusi dugu, daukagun oihartzunaz gain, sortzen dugun zarataz gain, arazoak dituzten emakumeak etortzen direla. Tratu txarrak jasandako emakumeak, psikologikoki hondoratutako emakumeak... Batzuek alde egiten dute, beste batzuek ez. Beren bizitza berregin duten batzuk, saioetara etorri ez arren, data batzuetan etortzen dira, jotzera ateratzeko.” (Etxeko taldea, 1. saioa)*

*“(Etxeak) zerbitzu, ikastaro, ahalduentze esparru, hitzaldi eta bestelako jarduera asko ditu, eta horiek guztiek ekarpenak egiten dizkiete hausnarketa teorikoari eta kontzientziazio feministari, gorputzetik eta emozioetatik egiten den lan pertsonalari, prozesuan elkarrekin laguntzeari, eta hain bakarrik ez sentitzeko eta sareak sortzeko aisialdirako eta poztasunerako espazioak izateari.” (Zerbitzu emailea/hezitzailea)*

Zerbitzu emaile/hezitzaileek honako ideia hauek eman dituzte, beren ardurapeko ikastaroak, lantegiak edo zerbitzuak **zer ekarpen** egiten dion prozesu honi azaltzeko, jardueran landutako gaiaren arabera. Elementu hauek identifikatzen ditugu:

- Emakumeek beren eskubideak defendatzeko informazioa eta tresnak eskuratzen dituzte.
- Ezkutuko fenomenoak agerian jartzen dira, bai era positiboan (emakumeek arteetan duten protagonismoa, adibidez), bai negatiboan (isildutako indarkeria moduak ulertzea).
- Gizonek menderatu ohi dituzten eremuetan sartzeko aukera dago (adibidez, brikolajea).

- Subjektibotasun osatzen duten elementu kaltegarriak aldatzeko eta “nortasuna feminismotik birpentsatzeko” aukera dago.
- Eta taldean egoteko aukerak ematen duen ahalmena, bai jardueran bertan, bai jarduerak gainditzen dituzten harremanetan.

**Zerbitzuen** kasuan, hasieratik eztabaida eta ondorio argietako bat izan da beharrezkoa dela haiei ikuspegi feminista ematea, ikuspegi asistentzialistagoetatik kanpo. Emakumeen presazko beharrei erantzuteak ez dakar berekin ematen zaien arreta horrek ez izatea errealitateari buruzko ikuspegi kritikorik; aitzitik, bere baitan hartu behar luke emakumeek kontzientzia hartzeko, ahalduzko eta beren bizitza benetan hobetzeko behar duten bultzada.

Zerbitzuen **ikuspegiari** buruzko eztabaida proiektuaren hasieran eman zen, eta esan dezakegu nolabait erabakita gelditu zela, nahiz eta beti irekita dagoen eta etengabe berrikusten ari den eguneroko kogestio esparruetan. Argi ikusten zen Etxeak ez zuela asistentziala izan behar. Zaila zen printzipio hori eta harrera lekua izatea konbinatzea, Etxera hurbiltzen diren emakumeen benetako beharrei erantzuten dien lekua izan nahi baitu. Alde horretatik, esan dezakegu gaur egun badirela zerbitzuak, emakumeei nolabaiteko zerbitzu “asistentziala” ematen dietenak, eta uste dugu beharrezkoa dela horiekin jarraitzea, Etxea emakume askoren errealitateari erantzutea lortzen ari delako. Etxeak ikuspegi feminista eta akonpainamendukoa ematen die zerbitzu horiei, eta, ahal dela, parte hartzea bultzatzen du. Hau da, emakumeen ahalduzkoa sustatzen duen ikuspegia du oinarri.

Emakume erabiltzaileek argi eta garbi aitortzen dute zerbitzuak kalitatekoak direla, eta diferentziak edo berezitasunak daudela ezagutu duten beste toki batzuekiko. Adibidez, oso positibotzat jotzen da laguntza psikologikoko zerbitzua, eta hura zabaltzeko beharra ikusten da. Ematen den arreta emakumeen bizitzatik oso hurbil dago, feminista da... eta sarbide da emakume askorentzat, Etxearekin eta bertan izaten den prozesuarekin inplikatzeko.

Hala uste dute, halaber, zerbitzu emaile/hezitzaileek. Haiek, esan bezala, funtsezko eginkizuna eta konpromisoa dute ikuspegi hori bermatzeko.

### **Zerbitzuen inguruko ikuspegia**

*Emakumeen Etxea delako hurbiltzen dira emakumeak. Gutxieneko zerbitzu batzuek egon behar dute, aholkularitzaren, tituluak homologatzearen,*

*laguntza psikologikoaren eta abarren eskaerari erantzuteko. Ez dugu laguntzakoak izan nahi, baina gutxieneko zerbitzu batzuk eskaini behar ditugu. Bi gauzak izan behar ditugu, nahiz eta ez dugun laguntza etxe halako bat izateko bokaziorik ". (Etxea taldea, 1. saioa)*

*"Hemen badago berdintasun handiagoa, berdin-berdin hartzen zaituzte (...) Batzuetan, beste zenbait lekutan, medikuarenean, gizarte zerbitzuetan, traba egiten duzuela dirudi.(1. erabiltzaile taldea)*

*"Nik gero eta ahalegin handiagoa egiten dut laguntzarik ez ematen, baizik eta datozen emakumeak integratzen. Ni ere etorri nintzen. Ikuspegi feminista jarraitua da." (Etxea taldea, 1. saioa)*

*"Zerbitzu horiek betetzen ari garenek feministak gara, dagoeneko. Ez ditugu zerbitzu horiek soilik ematen. Beste istorio batzuetan gaude. Norbaitek arazo bat kontatzera datorkizu, nik esango diot zer irtenbide dagoen arazo horretarako, baina emakume hori ni bezalakoa dela sentitzen dudanetik (...) Horixe dugu hemen zerbitzua egiten dugunok. Eta beste leku batzuetatik bereizten gaitu gu bidaide izateak eta etortzen zaizkigun emakumeei gertatzen zaizkien gauzak askotan guri gertatzen ai ateak". (Etxea taldea, 1. saioa)*

*"Gure funtzio nagusia ez da batez ere horretan espezializatzea eta psikoterapiaren jarraipena egitea... ezin dugulako. Parte hartze politiko eta sozialerako jauzi hori egite hartzen dugu erdigunetzat (...) Bi gauza horien ateko lotura emate du etxeak". (Etxea taldea, 1. saioa)*

*"Ematen diegun aholkularitza beren burua ahalduntzeko eta hemen babesleku bat bilatzeko, konfiantzarako leku bat, non trukean ezer ez dieten eskatzen. Eta erreferentzia leku feminista gisa ere senti dezatela". (Etxea taldea, 1. saioa)*

*"Kezkagarria izan daiteke niretzat, apur batean, behar zehatzei erantzun bat ematea, nola lortu laguntza premiei erantzun diezaiekeen Etxe bat izatea, baina ikuspegi estrategikoa izanda... konbinazio hori ere erronka bat da guretzat... egunerokotasunean asistentzialtasunak ez gaitzala jan, eta estrategikotasunak ez diezaiola utz emakumeen behar material eta zehatzei erantzuteari... hortik joan daiteke erronka". (Atala)*

### 3.2.4. Norbanakoaren jabekuntzatik jabekuntza kolektibora

Ahalduntze indibidualetik kolektiborako jauzia, aipatu dugun bezala, zailtasun bat edo beste izatearren, arreta jarri nahi izan genien gaietako bat izan zen. Etxean lortzen al dugu emakumeak adoretzea **berezko espazio soziopolitikoak sortzera** edo lehendik dauden emakumeen edo feministen erakundeetan parte hartzera? Lortzen ote dugu emakumeek beste espazio edo kolektibo batzuetan parte hartzea? Badute tresnarik parte hartze hori ikuspegi feminista batetik gauzatzeko? "**Erabiltzaile**" izatetik **Etxearen bazkide militante izatera igarotzen** al dira (formalki, bazkide izatetik harago)?

Hala eguneroko kudeaketan parte hartzen dutenek nola "erabiltzaileek" onartzen dute **ibilbide osoa egitea konplexua** dela. Neurtzen zaila ere bada, benetan. Askotan, beren bizitza errotik aldatu duten emakumeen historiaren berri izaten dugu, eraldaketaren egile edo subjektu bihurtzearen esparrua barne, baina ez daude jasota. Informazio hori gutxik ezagutzen dute, eta galtzeko arriskua dago behar bezala sistematizatzen ez bada.

#### **Partaidetza soziopolitikora jauzi egitea**

*"Hemen nengoelako gero Hernanin, nire herrian, sortu zen prozesu ireki bat emakume Etxe berria izango dena eraikitzeko. Ni hemen ez banitz egon izango ez nintzateke sartuko"* (Testu hau ez da itzulpena). (3. erabiltzaile taldea)

*"Nire bizitza, lan egitea zen, etxera zoaz, umea, senarra... ez nintzen ezertan sartzen, ezer ez zen nirekin joaten. (...) gauzak ikusteko hainbat modu ikusten hasi nintzen (...) gauza askotara etorri naiz, abokatua, informatikako ikastaroak... Etxearen zerbitzuak erabiltzen ditut, orain asko sartzen naiz... ez nekien martxoaren 8arena, eta orain manifestaldietara joaten naiz. Arazoak nituen lantokian, ez zitzaidan gustatzen nola eramaten zuten gauza bat... (...) sindikalista bihurtu nintzen".* (1. erabiltzaile taldea)

*"Agian beste modu batean parte hartzen lagundu ditela. Ez gehiago kantitatean, baina bai nola parte hartzen deten. Beste rol batekin, baimen hori eramaten dut. Neure buruarekin hemen hartutako baimena, nirekin doa eta beste toki batzutan gauzatu egiten dut".* (Testu hau ez da itzulpena). (3. erabiltzaile taldea)

*"Antolakuntzatik kolektibora pasatzea ere zaila da. Mila ikastaro egiten ditugun feministak bagaude, baina, gero, parte hartzea, manietara ateratzea... hori gehiago kostatzen da".* (Atala)

*“Nola hautsi haratago doan erabiltzaile identitate horrekin? Etxearen alde egitea, Etxea aldarrikatzen... Hori eginkizun gisara, ez gaizki egiten dugulako, erronka bat delako baizik.” (Atala)*

*“Adibide asko dira, iristen direnean ia ez dira ausartzen programa eskatzera, eta, orain, oso aktibo daude Koordinakundearen. Hainbat eta hainbat emakume dut gogoan. Oso zirraragarria da hori. Etxearen proiektuan pentsatzen hasten naizenean, hunkitu egiten naiz, emakume batzuen kontu batzuk etortzen zaizkit, egindako prozesuak. Pena da gutako batzuek besterik ez ikustea”. (Etxeko/Elkarteko dinamizatzailea).*

Hemen jasotzen dugun oroitze ariketan, Etxe honetan **hainbat bizitza une** daudela eta jarraitutasuneko hariak dituztela identifikatu dute. Emakumeak sartu eta atera daitezke, beren bizitzako etapa zehatzak bizi ditzakete gune horretan, eta, gero, denboraldi baterako ez egon. Beti egoten da suari piztuta iraunarazten dion baten bat. Gainera, batzuetan nahi bezain ikusgarria ez den **historiaren hariak** lagundu egiten du proiektuak koherentzia izaten eta ez galtzen. Etxean borrokatu ziren lehen emakume horietako asko proiektuarekin lotuta daude oraindik, eta aberastasuna da hori.

Agian, **hainbat parte hartze mota edo elkarren ezberdinak diren inplikazio mailak barruan hartzen** saiatzea izango dira erronkak, **“betikoak” agortu gabe**. Alde horretatik, beste emakume batzuk behar dira, adibidez, gazteak, proiektuan modu aktiboagoan parte har dezaketenak. Ez dirudi hain erraza **“belaunaldi aldaketa”** hori gertatzeak. Antolatzeke edo militantzia ulertzeko beste modu batzuk dituzte gazteek, auzoetan presentzia handiagoa dutenak... Nolanahi ere, proiektuari bizirik eusten dion emakume talde hori handitzea, espazio, prozesu, batzorde eta abarrekin konprometituta dagoelarik, beti agertzen da, Etxea proiektu sostengagarria izan dadin eta gero eta emakume gehiago erabiltzaile izatetik militante izatera igaro daitezten.

Dimentsio kolektibo horren beste elementu garrantzitsu bat **Etxea espazio publikoan egotea da, ludikotik eta salaketatik**. Hiru esperientzia nabarmentzen dira, bereziki: batukada, danborrada eta xakea. Azken horretatik hasita, duela urte batzuetatik ospatzen da Etxean emakumeen Gipuzkoako xake txapelketa. Txapelketa hau suspertu egin da, emakumeen presentzia oso ikusezina den jarduera batean. Gainera, Etxeak urtero bere txapelketa antolatzen du: **“Donostia Hiria”** emakumezko xake txapelketa.

Batukadaren kasuan, hainbat unetan eta, oro har, agenda feministako ekintzekin batera jotzera atzeratzea funtsezkoa da taldearentzat. Haiantzat, oso garrantzitsua izan da



Gipuzkoako batukaden sarean parte hartzea. Hainbat herritako emakumeak gonbidatu ohi ditu Sare horrek, elkarrekin jotzera, bai eta Donostian ere.

Azkenik, Danborrada dugu Etxearen historiako beste gertaera garrantzitsu bat. Feminismoaren aldarrikapen historiko bat da emakumeek kultura eta jai emanaldietan parte hartzea bermatzea. Emakume haietako asko hunkitzen ditu Danborradaren moduko egun esanguratsu batean emakumeek parte hartzeak. Espazioa okupatzeak, emakumeak ikusgai egoteak, denak batera joateak, hori guztien artean lortu izanak... elementu garrantzitsua bihurtzen dute gertaera kolektibo hori, Etxearekin lotura eratu eta etxea Donostiako gizarte bizitzan kokatzeko.

### **Espazio publikoa okupatzen**

*“Oso garrantzitsua da ez soilik kontzentrazioetara protestan ateratzea, hiltzen dutelako... garrantzitsua da emakumeak jaira ere ateratzea.”* (Etxea taldea, 1. saioa)

*“Trailean hasi ginen saiakerak egiten Ondarroatik etorritako neska batzuekin. Azaroaren 25ean egin genuen lehenengo irteera. Nik uste dut denok egiten dugula negar. (...) Batukada sare bat ere eratu dugu. Gaur, hamazazpi herriri ematen diete eskola. Lilatoian irten ginenean, iaz, laurogeita hamahiru emakume geunden. Eta Lilatoiaren egunean, beste batukada batzuei deitu eta etorri egiten dira (Tolosatik, Zarautzetik...), eta guk abegi ona egiten diegu.”* (Etxea taldea, 1. saioa)

*“Lehen urte hartatik (2014), hirurogei emakume atera ziren jotzen, eta hogeitatu bat ziren bandakoak. Eta, gaur egun, berrogei talde baino gehiago daude, ia ehun batek baieztatu dute... Oso polita geratzen da urtero emakume garrantzitsu bati omenaldi bat egotea ere. Argi dago norbaitek behar bat badu etxera etorriko dela. Baina jendea etortzeko modu bat ere bada ‘ondo pasatuko dut; eta ondo pasatzen dudanez, geratuko naiz’ egiaztatzea.* (Etxea taldea, 1. saioa)

*“Bigarren urtean negarrez aritzeko gogoia nuen, Bulebarretik zuek guztiak ikusita, bulebar osoa kioskoraino betetzen zenutela.”* (Etxea taldea, 1. saioa)

### 3.3. Etxe feminista bat



#### 3.3.1. Feminismo anitz baten gainean eraikitako eta haren bizileku den etxe bat

Etxearen gaineko oroimena eraikitzeko prozesu honetako espazio eta une guztietan ez dago zalantzan etxea feminista izaterik. Sortu zenetik izan da: elementu hori argia zen proiektuarekin amets egiten hasitako unetik. Hartaz amets egiteaz gain, apustu horri eutsi eta edukia ematea lortu dugu azken hamar urteotan, eta orain funtsezko zutabea da proiektua ulertzeko. Feminista ez balitz, beste gauza bat izango litzateke.

Atalak eta Eguneroko Kogestio Taldeak oso argi dute gai hori. **Proiektua feminista izan da eta bada.** Feminista izate horretan, erabaki prozesuaren garrantzia adierazi dute, eta, batez ere, proiektuan inplikaturik dauden pertsonak feminista izatea. Eta Etxearen kudeaketa ikuspegi hori ez duen enpresa bati azpikontrataturiko baliote? Eta teknikariak joango balira eta beste batzuk sartuko balira, ikuspegi hori izan gabe?

Ziur daude Elkartek borroka emango lukeela, baina beti egon daitezke **proiektua despolitizatze**ko tentazioak. **Feminismoa, berez, deserosoa da, zalantza-eragilea,** eta Etxearen proiektuak, indartuta badago ere, ez ditu ukiezina izateko berme guztiak (ez espazioa, ez eredia edo ikuspegia).

### **Feminismoa, nortasun ezaugarri**

*“Feministometroarekin hasi gabe, hasieratik, alderdi politiko eta teknikitik, feminista izan da”.* (Atala).

*“Etxea ez nuke beste modu batera irudikatuko, feminista ez den etxe bat. Ostera, beste gauza bat da... (...) emakumeok feministak izatea Etxearen helburua da, betaurrekoak jartzea eta bizitza horrela ikusten hastea, aldatu egin dezagun. Izan ere, bestela, asistentzialismo hutsean erori gaitzke... feministak izatea da kontua, gorpuztea... eta kanpora indartsu atera gaitzkeela...”* (Etxearen/Atalaren dinamizatzailea)

*“Oso harro nago, guztion artean espazio feminista bat eraiki dugulako.”* (Etxea taldea, 1. saioa)

*“Eta zailtasun edo mehatxu uneetan, Etxea beste zerbait bihurtzea eragozten aritu den barne indarra.”* (Etxea taldea, 2. saioa)

**Taldeak trebatzen eta ikastaro eta zerbitzuak ematen** dituztenen artean, adostasuna erabatekoa da: Emakumeen Etxea proiektu feminista da, feminismoari laguntzen dio eta **ikuspegi horretatik abiatzen dira** egiten diren jarduerak. Non eta nola hautematen da feminismo hori? Azaltzen diren arazoak ahalduzeari buruz hitz egiterakoan agertzen diren oso antzekoak dira. Izan ere, argi ikusten da joan-etorrikoa dela ahalduzearen eta feminismoaren arteko harremana. **Emakumeen Etxeak ahaldu egin du feminista delako, eta feminista da ahaldu egin duelako.** Emakumeen Etxeak tresna zehatzak ematen dizkie emakumei ulertzeko eta eraldatzeko, eta, hortik abiatuta, eraldaketa horren eta haien eskubideen defentsaren alde borrokatzeko. Eta Emakumeen Etxea, berez, tresna feminista da, asmo politiko horrekin sortua baita.

Gainera, berriz ere azaltzen da zerbitzu emaileek eta trebatzaileek ikuspegi hori integratzearen garrantzia: beren burua feministatzat hartzea, eta jarduerak eta zerbitzuak ikuspegi horretatik programatzea eta garatzea. Alegia, Emakumeen Etxean ikuspegi feminista hori nola gauzatzen den ulertzeko beste modu bat da. Begirada kritikoa egiten diote patriarkatuari, egungo egoera salatzeko aukera emanez; diskurtso androzentrikoak desmuntatzen dituzte; eta begirada feministatik berreraikitzen dituzte praktikak.

### **Feminismoa taldeetan, zerbitzuetan eta ikastaroetan**

*«Emakumeen Etxeko jarduera guztiek ikuspegi feminista dute.»  
(Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

*«Ikuspegi osoa elkartzeko gune bat lortzera bideratuta dago, ahalduntze feminista lortzeko eta sororitate eta ekintza kolektibo feministako sare bat lortzeko.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

*«Emakumeen Etxeak borrokatzen du emakumeek gizarteko aspektu guztietan berdintasuna lor dezaten; horixe da feminismoa.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

*«Sexuen arteko desberdintasunen analisitik abiatzen da, desoreka horiek berdintzea lortzeko borroka egin beharretik.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

*«Feminismoa da Emakumeen Etxearen muina.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

*«Ezin dut ulertu beste ikuspegi batetik lan egitea. Eta, gainera, ni feminista naizelako.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).*

Talde, ikastaro eta zerbitzuetara jotzen duten emakumeek ere ez dute zalantzan jartzen ikuspegi hori, **nahiz eta pertzepzio desberdinak ageri diren feminismoaren ideiarri buruz**, edukia emateko moduari buruz eta espazioa kontzeptu horrekin edo beste ideia batzuekin izendatzeak zer esan nahi duen (emakumeen berdintasuna, adibidez).

Ahalduntze taldeen eta ikastaroen bidez Emakumeen Etxearekin harremanetan jarri zen erabiltzaile taldeak, edo zerbitzu batekin hasi eta gerora «arratsaldeko programaziora» jauzi egin duenak ulertzen du Emakumeen Etxea espazio eta proiektu feminista bat dela,

halaxe baita bertan gertatzen den guztia, baita eguneroko martxan espazio horretan pentsatzen eta garatzen den guztia ere. Espazioarekin izan zuten lehen harremana gogoratzean, emakume batzuek hainbat kezka zituzten: ez zekiten behar bezain feminista izango ziren ala ez, espazioan egoteko legitimitatea nork zuen neurtzeko nolabaiteko *feministometroa* topatuko ote zuten, edo zer-nolako feminismoa aurkituko ote zuten Emakumeen Etxean. Alde horretatik, guztiek diote irudipen horiek oso urrun zeudela errealitatetik. Emakumeen Etxeak aukera eman die kasu askotan **beren burua feministatzat aitortzeko**, sakontzen eta iritzia askatasun osoz ematen jarraitzeko, eta feminismoarekiko inplikazioa praktikatik abiatuta zabaltzeko, ez gogoeta teorikoenetatik bakarrik. Hori horrela, esan dezakegu **Emakumeen Etxeak, feminismoa pentsatzeaz gain, egin ere egiten duela**.

### Geure burua feminista gisa aitortzen

*«Nik pentsatzen nuen hemen zegoen jendea oso feminista zela, oso irakurria, asko zekiela... Eta ez, mota askotako emakumeak sartzen dira hemen. Ni batez ere arratsaldeetan etorri naiz, eta hemen ezagutu dut June, eta oso irekiak, goxoak... Oso gertukoak. Ausartu zaitezke nahi duzuna esatera...» (Erabiltzaileak, 2. taldea).*

*«Nik asko lotzen nuen alderdi teoriko batekin... eta hona sartu naizenean konturatu naiz ez dela hori bakarrik, bizipenak ere badirela. Hori ere feminismoa da, jendea onartzea, gizartearen beste ikuspegi bat izatea, errespetua... gauza asko bizipenak dira, eta ez hain teorikoak.» (Erabiltzaileak, 3 taldea).*

*«Feminista termino hori ez da erraza batzuentzat. Lau urte edo zortzi urte hemen pasatu eta seguruenik nola jasotzen duzun desberdina izango da. Zeren ez dago ideologia abstraktu batean kokatuta, baizik eta harremanetan sustatutako esperientzia batean...» (Erabiltzaileak, 3 taldea).*

Emakumeen Etxearekin zerbitzu zehatzen baten bidez harremanetan jarri diren emakumeen kasuan (laguntza psikologikoa edo abokatua, adibidez), eztabaida handiagoa sortzen da kontzeptu feministari buruz. Badirudi erosoago sentitzen direla **Emakumeen Etxea edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Etxea ideiarekin**, eta errezeloak sortzen dira feminismoaren ideiarekin berari buruz –definitzerakoan nor ote den feminismoaren parte–, mugimenduaren estrategiei buruz edo gizonek izan beharreko rolen gainean.

Nolanahi ere, emakume horiek zerbaitegatik ipini dira harremanetan Emakumeen Etxearekin, nahiz eta batzuetan zaila izan daitekeen lehen pausoa ematea. Zerbaitek bultzatzen du Emakumeen Etxera jotzera, eta ez beste leku batera. Nahiz eta batzuek zalantzan jarri beren burua feministatzat ote duten, bada nolabaiteko intuizio bat; **sentitzen dute behar duten zerbitzua edo harrera jasoko dutela emakumeen eta emakumeentzako espazio batean**. Abiapuntuko hurbiltasun hori, kontatzen digutenez, sakonduz eta zabalduz joan da denboraren poderioz. Baliteke feminismoaren ideiarekin hainbeste ez konektatzea, baina bai isolamendutik irtetearekin eta beste emakume batzuekin harremanak izatearekin, guztiek partekatzen dituzten elementuei erreparatuta. Gainera, zera identifikatzen dute, **emakume gisa duten eguneroko errealitatetik askoz hurbilago dagoen eta ulerberagoa den ikuspegi batekin ematen dituztela zerbitzuak**. Uste dugu ideia horiek guztiak oso feministak direla.

### **Feminismoa zerbitzuetara iristean**

*«Hasiera batean feministak ez direla esaten duten emakumeak [...] Feministak dira, baina ez dakite. Hona datorren edonork dauka ikuspegi hori, hona etortze hutsagatik. Hona etortzen dira seguru sentitzen direlako.»* (Emakumeen Etxeko taldea, 1. saioa)

*«Konfiantza hori, emakumeak elkartzea, helburu berberaren alde borrokatzea eta aurrera irtetea, zulotik irtetea... Zor handia dut Emakumeen Etxearekin.»* (Erabiltzaileak, 1. taldea).

*«Ni depresioak jota etorri nintzen, psikologo baten bila, nik nahi nuen tokira eramango ninduen pertsona baten bila. Asko lagundu zidan. Ondoren, musikoterapiaren kontua irten zen, eta oso gustura aritu nintzen. Ni neu nintzen, eta ez etxean nintzen hura, guztia irensten zuena... (...) Oso irekia izaten ikasi nuen harekin.»* (Erabiltzaileak, 1. taldea).

*«Oso esperientzia ona da; konturatzen zara perfekzioa ez dela existitzen, bakoitzak bere arazoak dituela, gurea mundu bat iruditzen zaigula, baina besteek ere badutela koska. Bizitzan aurre egin beharreko egoerak, eta guztioi egokitzen zaigu zerbait. Gainerakoekin partekatzea, babesturik sentitzea, edo esatera ausartzen ez zaren gauzak (...). Hamabost egunean behin etortzea, taldeko terapia egitera, hitz egiteko elkartzera, neure-neure txokoa*

*dela sentitzen dut.» (Erabiltzaileak, 1. taldea).*

*«Guztiok oso desberdinak gara; desberdin pentsatzen duten aurrean ematen dugu iritzia, baina arazorik gabe... (...)Nahi dudana esateko askatasuna sentitu dut... Ez da konbentzitzea, baizik eta iritzi desberdinak ikusten ditut...» (Erabiltzaileak, 1. taldea).*

Elkarrekin hausnartu nahi izan genuen beste gai bat zera izan zen, Emakumeen Etxeko feminismoa askotarikoa ote zen. Alegia, identifika ote zitekeen Emakumeen Etxearen nortasuna definitzen zuen korronte nagusiren bat edo, aldiz, mugimenduaren errealitatearen isla ziren ikuspegi eta perspektiba desberdinen bizikidetzat ikusten ote genuen. Oro har, uste da **hainbat korronte feministak harmonian bat egiten dutela**. Emakumeen Etxean aniztasun hori jaso nahi da, eta lortu nahi da emakumeak aberastea hainbat proposamen eta begiradarekin.

Talde, ikastaro edo zerbitzuetara joaten diren emakumeen kasuan, Emakumeen Etxearen parte den feminismoa **askotarikoa** dela identifikatzen da, gunean askotariko emakumeak dauden bezalaxe. Ez da teorikoa bakarrik, baizik eta **bizipenetan oinarritua**, oso gertukoa emakume horien bizitzekin, eta gaineratu egiten da; **etengabe eraikitzen ari da**, ez da «dogmatikoa», eztabaida eta begirada desberdinak biltzen ditu.

Udaleko Sailean ere halaxe ikusten dute. Onartzen da beti hobetu daitekeela elementu hori, «iristen garen punturaino iristen garelako», baina uste dute ez dagoela hegemonia handirik eta feminismoa nahiko askotarikoa dela. Behin eta berriz esaten dute **beti ipini behar zaiola arreta auzi horri**, eta loturik dago, halaber, Emakumeen Etxean emakume profil ugari topatzearekin.

Elkarteko pertsona batek baino gehiagok ere halaxe uste du. Oro har, pentsa daiteke berdintasunaren aldeko feminismoak duela nolabaiteko prebalentzia, baina egiaz *ez dago halako eztabaidarik zer motatako feministak ote garen* (Elkartea). Badira ekofeministak, transfeministak... Hainbat korronte daude bilduta, nahiz eta oso definituta ez egon, baina ez dago norgehiagoka handirik ere. Ez da izan eztabaida feminista sendorik. Agian, Emakumeen Etxeak ez duelako jarrera politiko itxirik.

Garrantzitsua da konfrontaziorik ez izatea aniztasunari lekua emateko, baina,aldi berean, eztabaida eta eraikuntza kolektiborako unerik ez egotearen ondorio ere izan daiteke. Hala diote Emakumeen Etxeko hainbat emakumek; ez dute hori arazo handizat jotzen, baina bai etorkizunean begirada bat emateko elementutzat. Zer ulertzen dugu feminismo gisa? Feminismoa liberala izan daiteke, klasista? **Interesgarria litzateke esparru komun hori eraiki ahal izatea**, Emakumeen Etxetik igarotzen diren begirada feministen aniztasun



hori guztia biltzeko, adostasun puntuak eta elementu komunak identifikatzeko eta horietan sakontzen jarraitzeko. Emakumeen Etxearen barruko plaza batean pentsatu beharko litzateke: leku zaindu bat, eztabaida horiek egiteko denborak eskaintzen dituena.

### 3.3.2. Hainbat eratako emakumeak protagonista

Askotarikoak dira Emakumeen Etxeko emakumeak? Gai horri buruz ere hausnartu da, beste hainbaten artean. Pertzepzio orokorra baiezkoa da, Emakumeen Etxeak askotariko emakumeak biltzen dituela, adina, jatorria, maila sozioekonomikoa eta beste hainbat irizpide kontuan harturik. Beti jar dakizkioke ñabardurak aniztasun horri; etengabe hausnartu behar da, eta etengabe hartu behar dira neurriak gai horri buruz. Nor falta da? Zergatik ez gara iristen halakoengana? Zerbait egin dezakegu Emakumeen Etxea erreferentzia izan dadin gaur egun gure artean ez daudenentzat ere? **Amaitu gabeko aniztasuna etengabe bermatzea eta zaintzea da Emakumeen Etxearen nortasunaren parte bat.** Bidean zailtasunak topatuko ditugu, baina azken helburua da **emakume guztion eta guztiontzako etxea** izatea.

Talde, ikastaro eta zerbitzuetako partaideen taldeak argi du gai hori. Etxea guztiontzat irekitako proiektua dela sentitzen da, eta, beraz, emakumeen aniztasun horren **behar eta interes espezifikoetara egokitutako** ahalduzko prozesuetan pentsatzen duela. Eta **haien arteko sareak ere bilatzen ditu**, batzen dituen alderdiak indartzeko.

#### Hainbat eratako emakumeak

*«Lotu egiten gaitu... gero izango ditugu ez dakit zenbat ezberdintasun, baina Etxeak lotu egiten gaitu.» (Erabiltzaileak, 2. taldea).*

*«Hemen gauza asko topatu ditut... topatu ditut hainbeste emakumek izandako bizimodu ezberdinak, (...) beste leku batean topatuko bagina aldendu egingo ginatete, ez ginatete hurbilduko, baina hurbildu gaituena, emakumeen literatura kasu honetan, nahikoa da beste gauza batzuk ere konpartitzeko. Eta hori oso aberasgarria da.» (Erabiltzaileak, 3. taldea).*

Sailak eta Elkartek adierazi dute aniztasuna bermatzea beti dela erronka bat, eta kontu handiz ibili behar dela gai horri heldzean. Aniztasun hori bermatu nahi da, adibidez, zerbitzu edo talde berriak proposatuz, baina betiere onartuta ez dugula izango ahalik eta aniztasun handiena. Etsi gabe egin beharreko bidea da.

Duela gutxi, Etxeko emakumeen profilari buruzko informazioa jasotzen hasi gara memorietan. Gehiago zaindu behar da bilketa sistematiko hori. Orain arte, intuizioak izaten ziren gehienbat, eta kontrastatzeko datuak falta ziren. Adibidez, bada ideia bat, dioena Etxean emakumeen aniztasuna behatzeko irizpide nagusietako bat goizez edo arratsaldean joatea dela. Herritarrek, oro har, uste dute goizak administrazioarenak direla (iritzi zabaldua da hori): «Administrazioak zerbitzu bat ematea behar dut, administrazioa goizetan aritzen da». Horrek zer esan nahi du, goizetan «erabiltzaile» gisa eta, arratsaldeetan «parte hartzaile» gisa aritzeko borondatez joaten garela? Aztertu beharrekoa litzateke elementu hori, eta ez egintzat jo.

Nolanahi ere den, **profil desberdinak ikusgai jartzea** informazio interesgarria da Emakumeen Etxeko **goizen eta arratsaldean arteko lotura hori ehuntzen jarraitzeko**, eta, hala, zuzenean zerbitzuren batera iristen diren emakumeak proiektuarekin lotu ahal izateko, esaterako, ikastaro eskaintzaren bidez. Horrek eskatzen du identifikatzea zer ikastarok edo jarduerak erraztu dezaketen igarobide hori, premia espezifiko batetik abiatuta, konpromiso feminista horretarantz aurrera egin ahal izateko.

### Hainbat eratako profilak

*«Gu ez gara askotarikoak, oro har, ez Saila, ez Elkartea, ez Etxea... Nahiz eta desberdinak izan. Baina aniztasunaren kontua zaila da. Nik uste dut Donostiaren kasuan nahikotxo jasotzen dituela izan litezkeen feminismo lerro desberdinak. Donostia askotarikoa da?» (Saila)*

*«Aniztasunari laguntzen diote GGKEek eta programari ekarpena egiten dioten bestelako elkarteek.» (Saila)*

*«Aldundiak indarkeriaren auziarekin egindako ikerketari buruz, balio izan die hainbat gauza ikusteko... Ikusi zuten indarkeria gaiengatik artatutako emakume gehienak Euskal Herrikoak zirela, eta gehienak Etxeko zerbitzuetan geratzen direla. Izan ere, asko Aldundiak eskainitako zerbitzuetatik iristen dira, eta ez dira sendatu.» (Emakumeen Etxeko/Saileko dinamizatzailea).*

*«Ikusten dira aldeak zerbitzuetako erabiltzaileen eta ikastaroetako erabiltzaileen artean. Erronka da asmatzea nola igaro zerbitzuetatik ikastaroetara. Erronka bat da ibilbide hori egitea. Kasu batzuetan gertatu da (...) Agian horrexegatik da garrantzitsua feminismoaren hastapenarekin gehiago lotutako beste ikastaro batzuk biltzea, edo bizipenekin gehiago lotutakoak.» (Saila).*

Zerbitzu emaileek eta trebatzaileek adierazten dutenez, aniztasun handia ageri da adinari, ikasketa mailari, maila sozioekonomikoari eta jatorriari dagokionez. Hala ere, badirudi aniztasun hori **aldatu egiten dela ikastaro edo talde motaren arabera**. Emakume nagusien presentzia handiagoa da gazteena baino. Hori oso nabarmen geratzen da, adibidez, *clown* tailerrean: «*Ez dago adin desberdintasun handirik, 45 eta 70 urte bitartean, gehienek 60 urte baino gehiago dituzte. Jatorriari dagokionez, bada aniztasunik, baina gehienak zuriak dira. Hizkuntzari dagokionez, gaztelania da hizkuntza nagusia, eta tailerra elebiduna da. Bada aniztasun funtzionalik*». Beste adibide bat ipintzearen, euskaraz egiten diren tailerretan ez dago emakume migratzailerik. Beste batzuk, hain ezberdinak ez direla ematen dutenak (filosofia, artea), halaxe dira. Baina ez da, adibidez, euskal literaturarena.

Zerbitzu batzuk profil jakin bateko emakumeei zuzenduta daude. Adibidez, kulturarteko espazioa emakume etorkinei zuzenduta dago; profil horren barruan, jatorri desberdinak daude (gehienak Latinoamerikakoak diren arren); eta ikasketa maila ere desberdina da, nahiz eta guztiek partekatzen duten prekaritate materialeko egoera (ikasketak dituztenek ez daukate homologatuta, eta horregatik lan egiten dute sektore prekarioetan). Itxura guztien arabera, zerbitzu askotarikoena aholkularitza legala eta soziala da, ziurrenik askotariko egoerak estaltzen dituelako. Etxeko langileentzako aholkularitzara joaten diren emakumeen profila ez da hain askotarikoa, ez lan sektore hori partekatzeagatik bakarrik, baizik eta, haren barruan, joaten diren gehienak etorkinak direlako. Azken datu horrek, bestalde, erakusten du zer-nola dagoen osatuta etxeetako enplegua.

Hala ere, askotarikoak direla uste duten arren, pentsatzen dute emakume batzuk ez direla iristen:

*«Migratzaileek, etxeko langileek eta etxekoandreek agian aukera gutxiago dituzte (badakit ahaleginak egin direla horientzat ikastaroak eta sareak sortzeko, eta urratsak egin direla, gero eta gehiago direla). Baina zailagoa da aniztasun horren arteko komunikazio guneak sortzea (ordutegiengatik, gaiengatik, hizkuntzagatik...).* *Interesgarria litzateke zubi gune gehiago sortzea.»* (Zerbitzu emailea/trebatzailea).

Dokumentuaren azken puntuan helduko diogu berriro gai honi.

### **3.3.3. Donostiako mugimendu feministaren etxe propioa?**

Zer harreman du Emakumeen Etxeak Donostiako gainerako mugimenduarekin eta erakunde feministekin? Galdera horri erantzuteak, berez, beste ikerketa prozesu bat ekarriko luke. Gai horri buruzko pertzepzio jakin batzuk jasotzen saiatuko gara hemen, eta, gainera, askotan identitateak ez dira hain estankoak: beren ikuspegia partekatu

dutenak gehienetan Emakumeen Etxeko eta Donostiako mugimendu feministako kide dira.



Esan dezakegu **sinergia handiak daudela gainerako mugimendu feministarekin**. Hasiara batetik, Donostiako erakunde feministen eskaria izan da Emakumeen Etxea, eta, gainera, kudeaketa proiektu eta eredu motaren definizioan parte hartu zuten. Beraz, haien borroka historikoaren emaitza da. Konpromiso hori berretsi egin da; etxearen proiekturako zailtasun edo mehatxu handienak izan diren uneetan, hortxe egon da mugimendu feminista, hortzak erakutsiz halakorik gerta ez zedin.

Gainera, identifikatzen da mugimendu feministak azken urteetan izan duen gorakada bultzada izan dela Emakumeen Etxerako, eta horri esker, hazi eta sendotu egin dela. Etxean landutako edukiak erabat lotuta daude kalean gertatzen denarekin. Esan daiteke **joan-etorriko harremana oinarri hartuta ari dela eraikitzen agenda feminista**. Eta feminista indibidualak antolatzeko espazio bat ere bada, mugimenduaren parte bihurtuz. Hala, lan batzordeen bidez antolatzen da Emakumeen Etxea; batzorde horietako emakume batzuk aurretik ez ziren beste kolektibo feminista bateko kideak, eta beste batzuek, berriz, militantzia feminista bikoitza dute (elkartean eta kolektibo autonomo batean).

Horrek esan nahi du **mugimendu feminista guztia elkartzen dela Etxean**? Horixe izan zen Emakumeen Etxearen helburuetako bat, eta horri buruz hausnartu nahi izan genuen. Zera galdetzen genuen, zer esan nahi du horrek? Mugimendu feministak erabiltzea edo kudeaketan inplikatzeko? Bi interpretazio horiek dira Etxean elkartzeko ideia horren parte.

Alde batetik, **lokalik ez duten taldeentzat gune bat izateko ideia dugu**. Kolektibo batzuek elkargune gisa baliatzen dute Emakumeen Etxea (eta gauzak biltegitratzeko). Kolektibo jakinak eta artikulazio espazioak biltzen dira etxean, Donostiako Asanblada Feminista, adibidez. Gainera, hortxe daude kolektiboek beraiek espazioan antolatzen dituzten jarduerak eta/edo Etxeko beste jarduera batzuetan parte hartzen dutenak, azken finean, erakundeak indartzeko tresnak baitira. Nolanahi ere den, **kolektibo feminista**

**asko eta asko Emakumeen Etxean daude**, baina «egote» horretan ere zailtasunak identifikatzen dira. Adibidez, funtsezko arazo bat izan liteke espazioa «askatasun handiagoarekin» ezin egon izana edo ezin erabili izana. Tentsioak sor ditzake tartea bilatu behar izateak, askotan beteta egoteak, iritsi eta egon ezin izateak, zerbait egin beharrik edo programatutako jardueraren bat eduki beharrik gabe, eta gerta liteke Emakumeen Etxearekiko lotura edo han den presentzia hainbeste ez indartzea.

Bestalde, **kudeaketako inplikazio zuzenari lotuta parte izate horrek iritzi aniztasun handiagoa sortzen du**. Batzuek inplikazio txikia identifikatzen dute. Beste batzuek, berriz, ikusten dute Etxeak gehiago deitzen dituela inplikaturako banako feministak, eta konplexuagoa dela kolektibo gisa parte hartzea Etxearen erabaki organoetan, beren agendak eta zailtasunak baitituzte. Nolanahi ere, badirudi sakontzen jarraitzeko elementu bat izan daitekeela, bai egoeraren diagnostikoa egiterakoan, bai proiektuaren egunerokotasunean inplikaturako nukleo feminista hori indartzeko balizko estrategietan.

### **Mugimendu feminista eta Emakumeen Etxea/Mugimendu feminista Emakumeen Etxean**

*«Etxearen helburuetako bat zen mugimendu feminista indartzen laguntzea. Eta ez mugimendu feminista osoa hemen egotea.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).*

*«Nahiz eta elkartean egon ez, inplikatzeko dira Etxean: hemen elkartzen dira, tailerretara etortzen dira...» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).*

*«Etxea emakume feministaz osatua da. Haien bidez egiten dira hemen gauzak. Beste gauza bat da ez iristea erabaki guneetara, beste gerra batzuetan ari direlako.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).*

*«Etxeak gauza asko eman dizkit, eta atzera begira ipinita ikusten ditut: ez aldentzea mugimendu feministatik, nahiz eta ez militatu elkarre batean ere. Beste toki batetik jarraitzea borroka feministan.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa)*

*«Kolektiboak presente daude eta Etxearen parte dira, baina gure elkarre gehiago da antolatuta gabeko emakumeena.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa)*

*«Zer da Etxearen parte izatea? Tailer batera etortzea? Pankartak hemen egitea, ez dutelako beste lokalik? Hain zuzen, hemen izan ziren hasiera*

*batean. Zergatik joan dira? Jakin nahiko nuke zergatik ez duten esku hartzen Etxearen kudeaketan, hasiera batean bezala.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa)*

*«Talde batzuek erabiltzen dute Etxea lokal baten moduan, baina ez dira inplikatzeko baterako kudeaketan.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa)*

*«Mugimendu feminista batu du. Ez dakit mugimendu osoa. Baina batzeko eta espazio bat emateko balio izan du, helburu komun baterako.» (Erabiltzailea).*

Argi dago Emakumeen Etxeak ez duela izan nahi lurraldeko mugimendu feministaren osotasuna. Argi geratzen da, halaber, Emakumeen Etxea feminista dela muinean eta eguneroko ekintzan. Baina **subjektu feminista al da Emakumeen Etxea?** Berezko subjektua da (edo izan beharko luke) Donostiako mugimendu feministaren barruan? Gai horiek ez dira erantzuten hain errazak.

Elkartearen aldetik Emakumeen Etxea dinamizatzen jarduten duenak planteatzen digunez, Etxea mugimenduaren parte izateko sortua da, mugimendua handitzeko eta indartzeko, baina betiere autonomia bermatuz. Zalantza sortzen da, halaber, ea espazio feminista autonomoetatik nolabaiteko mesfidantzaz ikusi ote duten espazioaren izaera mistoa, jakinik administrazioa haren parte dela. Eta zalantza eragiten du, era berean, horrek zaildu egiten ote duen Emakumeen Etxea mugimendu feministaren parte gisa ulertzea.


Alde batetik, agerian geratzen da **Emakumeen Etxea erreferente dela hiriko emakume eta feministen gaietan**. Erasoren bat gertatzen denean, kontzentrazioen bat edo jarrera feminista eskatzen den gai espezifikoren bat denean, askotan Emakumeen Etxera deitzen edo jotzen da. Gainera, gai zehatz batzuetan, Emakumeen Etxeak oihartzun handiz sortu ditu proposamenak, memoriaren atalean kontatu dugun 016ari buruzko kanpainaren inguruan gertatu zen bezala.

Bestalde, Elkartearen batzarretan izan den eztabaida gai bat izan da nola eraiki nortasuna, **Emakumeen Etxea ahots feminista publiko gisa agertzeko** –esate baterako, manifestazioetan–. Elkarrekin Emakumeen Etxearen nortasun politiko hori indartzeko interesa ikusi du. Hori gertatu da, besteak beste, emakumeak manifestazioetan elkarrekin ateratzera gonbidatu izanaren ondorioz. Berriki, Emakumeen Etxearen Blokea sortu da. Batzorde horren xedea da Emakumeen Etxeak subjektu feminista gisa duen nortasuna indartzea, mobilizazio publikoetan Etxe gisa parte hartzea sustatuz eta hiriko deialdi

feministak osatuz eta indartuz. Beti mugimendu feminista indartzeko eta haren zerbitzura egoteko asmoarekin, hura ordezkatu gabe eta beste espazio propio batzuk zapaldu gabe. Blokea nahiko berritzailea da, eta oraindik ibilbidea falta zaio nola funtzionatzen duen jakiteko. Baina interes handiz ikusten da, eta proiektua indartzeko beste aukera bat bezala.



### 3.4. Norekin eraikitzen da? Nola ikusten da etxea? Aliantzak eta erreferentzialtasuna




#### 3.4.1. Ezaguna da Emakumeen Etxearen proiektua?

Beti izaten dira zalantzak gai horri buruz, batez ere segun eta fokua non jartzen den. Uste da hamar urte hauetan zehar etxea finkatuz joan dela eta **gero eta ezagunagoa dela**. Berriro ere azpimarratu da halako ezaugarriak dituzten proiektuek denbora behar dutela. Areagotu egin da ezagutza maila, baina baliteke Donostiako herritar guztiengana ez iristea, ezta emakume guztiengana ere. Adierazten denez, gerturatzeko pausoa ematera animatu ostean, barrura jo ostean, informazio asko jasotzen da Etxeko martxari buruz, eta, oro har, informazio hori beste emakume batzuekin partekatzen da. Nabarmendu da, era berean, Emakumeen Etxea Donostiako emakumeentzat ez ezik erreferente dela beste udalerrri batzuetako emakumeentzat ere. Baita emakume migratuentzat ere, beren beharrian espezifikoerantzuzten dieten zerbitzuak eta taldeak aurkitzen baitituzte Emakumeen Etxean.

Iristen al zaie informazio hori herritar guztiei eta, bereziki, Donostialdeko emakumeei? Egiten al da «behar adina publizitate» Emakumeen Etxearen proiektua eta emakumeen bizitzaren alde egin dezakeena zabaltzeko? Ziurrenik, memoria eraikuntza horren une desberdinetan planteatzen denaren arabera, **beti hobetu daiteke hedapena**. Baina kontuan izan behar da, halaber, morearekin eta feminismoarekin lotutako proiektuek aurreiritziak desmuntatu beharko dituztela, eta pertsona asko aldendu daitezkeela horrekin. Hainbat estereotipo baliatzen dira mugimendu feminista, oro har, eta horrelako proiektuak, bereziki, sinplifikatzeko. Baina administrazioaren presentziak, batzuetan, kontrakoa ere eragiten du; alegia, erakunde gisa ikustea, horrek dakartzan oztopo guztiekin: «*Organismo ofizial bat da; nire dokumentazioa aurkeztu behar dut, fitxatuta nago... Ez daukat paperik, sartuko naiz, ez naiz sartuko?*» (Emakumeen Etxeko taldea, 1.

saioa). Informazioa emateaz gainera, nolabaiteko irudi desitxuratuaren artean ibili behar da: «Emakunde eta bollerez eta erradikalez osatutako gaztetxe baten artean». Badirudi, beraz, gauza bat onartu beharko dela: proiektuak baliabide eta borondate guztiak jartzen baditu ere, baliteke guztiontzako espazio gisa ez sentitzea.



Erabiltzaile batzuek uste dute gutxiago ezagutzen dela gaiak «kanpoko» inguruneetan (berdintasuna, emakumeak, feminismoa). Hau da, **hasierako interesa behar da gai hauetara hurbiltzeko**. Hortik aurrera, esan bezala, indar handia hartzen du ahoz ahokoak, Emakumeen Etxean parte hartzen duten emakumeen esperientzia positiboa zabaltzeak, eta lagungarria izan liteke aurreiritziak apurtzeko. Halaber, adierazten da **Lilatoia** eta tankerako horretako jarduerak Emakumeen Etxerako foku gisa erabili ahal izan direla, emakume gehiagok espazioaren berri izan dezaten; izan ere, kirol proba horrek balioespen eta aintzatespen ona du (dorsalak Emakumeen Etxean jasotzen dira).

Nolanahi ere, eta informazioaren hobekuntzarekin lotuta, **Udalaren egitekotzat jotzen da hirian horrelako etxe bat izatearen benetako balioa aitortzea eta helaraztea**, horretarako behar diren baliabideak erabiliz. Etxea zabaltzeko eta ezagutarazteko ardurua partekatua dute kogestioaren bi aldeek.

### Etxearen berri izatea

«Halako toki batek denbora behar du. Nik ere ez nuen argi lehen zer zen. Gerta liteke herritarrek, oro har, ez ezagutzea. Baina Gipuzkoako emakumeen sektore zabal batek bai... Agian gehien borroka egiten dutenak, baina agian hortik hasi behar da, gero eta erreferentzia gehiago egiteko... (...) Ahoz ahokoak ere funtzionatzen du. Iparraldeko emakumeak ere iritsi dira. Egokitzen zaizunean ulertzen duzu zertaz doan hau... Guztia bezala, egokitzen zaizunean.» (Emakumeen Etxeko/Saileko dinamizatzailerak).

«Emakumeok etortzen gara Etxera, beste emakume batzuegan konfiantza ipinita.» (Zerbitzu emaileak/trebatzaileak).

«Eskualde osoko emakumeak etortzen dira, Tolosakoak, Hondarribikoak, Pasaiakoak, Irungoak edo Lazkaokoak, besteak beste.» (Zerbitzu emaileak/trebatzaileak).

«Etxeak lortu du erreferente izatea emakume etorkinentzat, eta konfiantza eta segurtasuna eskaintzen dizkie. Elkarren artean ematen diote Etxearen berri. Badakigu ez dela erraza emakume etorkin bat bere ekimenez agertzea bulego batera zerbait galdetzeraz: erakundeek mesfidantza handia sortzen dute, baita elkarteek ere, aurrez esperientzia oso positiboak izan ez dituztelako. Baina Emakumeen Etxeak lortu du mesfidantza horiek uxatzea.» (Zerbitzu emaileak/trebatzaileak).

#### 3.4.2. Aliantzak: beste batzuekin sareak osatzaren garrantzia

Emakumeen Etxearen tankerako proiektu batek hamar urte martxan ematearen beste elementu funtsezko bat zera da, **bidea ondo lagunduta egitea**. Etxearen parte diren kolektibo eta emakumez gain, garrantzitsua da espazioaren inguruan eraikitzen ari den harreman eta aliantza sarea nabarmentzea. Sare horrek proposamena zabaltzen eta ezagutarazten laguntzen du; halaber, ikaskuntzak partekatzeko aukera ematen du, eta, gainera, lagungarria da hamaikatxo oztopo izan ditzakeen bide horretan gerta daitezkeen erorikoak malgutzeko.

Sare hori hainbat eremutako kolektibok eta norbanakoek osatzen dute. Horietatik bi nabarmendu nahi izan ditugu, garrantzi berezia dutelako. Hasteko eta behin, emakumeen beste etxe batzuekin dugun harremana. **Emakumeen etxe askoren arteko Emakumeen Etxea** izate gisa bildu dezakegu ideia hori. Zenbat eta emakumeen etxe gehiago, orduan eta indar handiagoa. Nahiz eta proiektuek ezberdintasun nabarmenak dituzten (adibidez,

kudeaketa eredu), edo batzuetan ez den hainbeste hitz egiten etxeei eta ahalduntze eskolei buruz (horrek ere ekar ditzakeen desberdintasunekin), argi ikusten da ona dela emakume guztientzat mapa batean bilduta edukitzea udalerrri bakoitzak emakumeentzako duen espazioa. Ona da, besteak beste, esan nahi baitu badela indarririk eskaera historiko horri eusteko, eta, halaber, administrazioa ari dela ardura hartzen nolabait ere gai hori politika publikoetan txertatzeko.

Euskal Herriko emakumeen etxeek (edo ahalduntze eskolek) sareetan antolatzeko beharra izan dute historikoki (adibidez, Bizkaiko Eskolen Sarea edo Gipuzkoakoa). Donostiako Emakumeen Etxeak, hastapenetan, ikusi zuen garrantzitsua zela **halako beste etxe batzuk ezagutzea eta haiengandik ikastea**. Eta, hala, historiaren kontakizun puntuan jaso dugun bezala, beste esperientzia batzuk bisitatu zituzten, eraikitzen ari ziren eredu hartarako egokiena zena jasotzeko.



Gaur egun, Donostiako Emakumeen Etxea **erreferente bihurtu da beste etxe eta proiektu feminista batzuentzat**, bai eta inguruko emakumeentzako ere. **Emakumeen Etxeak baterako kudeaketa eredu berritzaile baten laborategi gisa balio izan du**, eta hala jarraitzen du egun ere, beste puntu batzuetan planteatu dugun bezala. Hala, baterako kudeaketa ereduaren alderdi interesgarrienari buruzko ikaskuntzak parteka daitezke, eta elkarrekin pentsa daitezke zalantza edo gai problematikoak ere. Hamar urteko ibilbideak makina baterako ematen baitu. Adibidez, Emakumeen Etxearen esperientziari esker, defendatu daiteke mugimendu feminista eta Udala «perez pere» ibiltze horrek duen interesa, bai eta bi errealitate eta interesen arteko lotura horrek dakartzan zailtasunak ere. Parteka daiteke, konparazio batera, programatutako zerbitzu eta jarduerekin lotutako esperientzia ere: zeinek funtzionatu duten, nola diseinatu diren eta zer-nola ipini diren martxan. Espazioaren eguneroko antolamenduari buruzko ikaskuntza batzuk jendarteratu egin behar dira. **Hori guztia beste emakumeen etxe batzuen esku dagoen aberastasuna da**, Donostiakoaren antzeko antolaketa ereduarekin ibilbidea hastea erabaki ala ez.

Bigarrenik, **Emakumeen Etxea erreferente da, halaber, gizarte sektoreko hainbat erakunderentzat**; izan ere, beren jarduera eremuaren arabera, emakumeak zerbitzu eta ikastaroetara bideratzen dituzte, edo agenda feministaren gaiekin zerikusia duten jarduerak eta bilerak antolatzen dituzte gunean bertan. Adibidez, aipatzen da Emakumeen Etxera jotzen duten emakume asko Caritasetik, Gurutze Gorritik, Lanbidetik eta abarretatik etorriak direla<sup>11</sup>. Gainera, GGKE eta elkarte askok antolatzen dituzte jarduerak Emakumeen Etxearen esparruan. Hori horrela, beste ikuspegi batzuekin elikatzen dute Emakumeen Etxea, eta, askotan, lankidetzari lotuago dauden eta proiektu feministak dituzten erakundeek Etxea ezagutzeko gonbita egiten dute beste herrialde batzuetako bisitak dituztenean, eta jarduerak bertan antolatzeko aprobetxatzen dute. Bidea joan-etorrikoa da: Etxeak erreferentzia espazio bat ematen die beste kolektibo batzuei (bai fisikoki, bai kide izatearen sentimenduari dagokionez); eta kolektibo horiek Etxean parte hartzea modu bat da emakumeen aniztasuna eta Etxearen ikuspegiak zabaltzeko.

### **Erreferentzialtasuna eta beste elkarte batzuekiko aliantzak**

*«Emakumeen Etxea Elkarte beste elkarte txiki batzuetarako irekirik dago (gunerik edo egiturarik ez dutenetara), haien zerbitzuak hemen eskain ditzaten. Emakumeen Etxearen aterkipean sentitzen gara. Legitimitate eta indar handiagoa ematen digu. Eta espazio bat dugu zerbitzu hori emateko.»* (Emakumeen Etxeko taldea, 1. saioa)

*«Espazioa ezagutzea, jakitea beste elkarte batzuek ere badutela tokia beste zerbitzu batzuk eskaintzeko. Horrek ere handitu egiten du Emakumeen Etxea, badirelako beste mota bateko emakumeak ere. Esate baterako, homologazioaren taldeak, eskuarki atzerritarrak dira. Zer eskari dituzten jakiten dugu. Eta, horri esker, Etxeak aniztasun handia hartzen du, era guztietako emakumeak, gutako bakoitza bezalaxe. Gune hori partekatu ahal izateak segurtasun handia ematen dio mugimenduari.»* (Emakumeen Etxeko taldea, 1. saioa)

### **3.4.3. Arretagunea Udalean ipinita, zer-nola ikusten da Emakumeen Etxea?**

Ikusirik gai batzuen inguruan informazio gehiago behar genuela, atalaren azken puntu honetan beste gai bati heldu genion, Emakumeen Etxearen hamar urteetako memoria

<sup>11</sup>Adibidez, Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarteak emandako aholkularitza zerbitzura iristen diren emakumeen erdiak erakunde publikoetatik bideratzen dira (eskualdeko eta udalerriko gizarte zerbitzuak, Lanbide, familia medikuak, psikiatria) (JD6). Caritasek, Gurutze Gorriak eta halako erakundeek jatorri desberdinetako emakumeak bideratzen dituzte kulturarteko espaziora.

eraikitze aldera. Dagoeneko aipatu dugu baterako kudeaketa eredua, zeinak administrazioaren eta elkartearen harremana antolatzen baitu neurri batean. Baterako kudeaketa hori gauzatzeko, bi espazio handi identifikatu ditugu. Alde batetik, eguneroko baterako kudeaketa: elkartearen aldetik, dinamizatzaileak eta batzordeek parte hartzen dute zuzenean, eta administrazioaren aldetik, berriz, Berdintasun Saileko teknikariek. Bestetik, Emakumeen Etxeko dokumentuetan jasotako organoari dagokio baterako kudeaketa formala. Bertan, elkartearen, teknikarien eta dagokion zinegotziaren ordezkariak elkartzen dira.

Baina, bi gune horietaz gainera, ba al dago beste harremanik Udaleko gainerakoekin? Nola gertatzen da harreman hori? Zer pertzepzio dago Emakumeen Etxeari buruz, proiektuan zuzenean inplikaturik dauden udaleko teknikariez gainera?

Auzi horrekin loturik, **aldez aurretiko ideia edo intuizio batzuetatik abiatu ginen**. Alde batetik, maila teknikoan, udal sail batzuek gehiago eta hobeto ezagutzen dute Etxea, hala nola gizarte-langileek edo indarkeria matxistaren kasuez arduratzen den udaltzaingoak. Bestalde, babes politikoa funtsezkoa da kogestio-eredua indartzeko eta proiektua bultzatzeko, eta autonomiaren eta erantzunkidetasunaren artean egiten jarraitu beharreko bide luzea dago aurretik.

Hori horrela, gai hori aztertu nahi izan genuen Emakumeen Etxearen hamar urteetan berdintasun karguan jarduten duten hiru zinegotzietan. Eta, bestetik, Donostiako Udaleko langile guztiek Emakumeen Etxeari buruz duten ikuspegiaren hurbilketa bat egitea, onlineko galdetegi baten bidez.

Esan dezakegu **elkarrizketatutako hiru zinegotziak bat datozela Emakumeen Etxeak hiriarentzat duen interesarekin eta garrantziarekin**, eta, zehazkiago, baterako kudeaketaren ereduarekin eta ezagutza eta bultzada politikoa hori zabaltzeko beharrezkin.

Haietako bakoitzak eskainitako denbora eta izandako rola ere desberdinak dira. Ainhoa Beola (2007-2011 legegaldiko Berdintasuneko zinegotzia) aritu zen prozesu osoaren **hasierako bultzadan**. Naiara Sampedrok (2011-2015 legegaldiko Berdintasuneko zinegotzia) hartu zuen erreleboa Okendon zegoenean eta ibilbideari ekin berritan, eta haren erronka **ereduari forma ematea** izan zen. Eta Duñike Agirrezabalagak (2015-2019 eta 2019-2023 legegaldietako Berdintasuneko zinegotzia) proiektu sendo bat hartu zuen, eta **sakontzea eta hedatzea** izan dira erronka nagusiak. Une horietan markatu dituzte, esan dezagun, udalarekiko gainerako sailekin lotura ehuntzeko egin behar izan dituzten lanak ere. Baina bada alderdi bat, guztiek nabarmentzen dutena: proiektuaren, espazioaren existentziaren eta baterako kudeaketa ereduaren defentsak negoziatioak eta lanak eskatu dizkie, bai erakunde politikoen barruan, bai Udalarekin oro har. Badirudi



**oraindik ere pedagogia eta konbentzimendu lan handia behar dela Donostian Emakumeen Etxea izatearen interes estrategikoa zabaltzeko.**

Lehenengo fasean, paraleloan egin ziren Udalarekin egindako lana eta Emakumeen Etxea definitzeko prozesu osoa. Proiektuari edukia emateko partaidetza prozesu bat diseinatu eta abian jarri zen mugimendu feministarekin eta hiriko emakumeen mugimenduarekin, eta, horrekin batera, ahalegin ugari egin ziren erabaki horiek administrazioaren esparruan posible egiteko. Adibidez, **baterako kudeaketa eredu guztiz berritzaile baten alde egitea eta udal erakundearen barruan hainbat pertsona haren bideragarritasunaz konbentzitzea** –ez bideragarritasun politikoa bakarrik, baizik eta teknikoa ere bai–, edo espazio propio baten aldeko borroka –gaur egun ere irauten dute–. Hartutako erabaki bakoitza helarazi eta borrokatu egiten zen, eta, Ainhoa Beolaren iritziz, zinegotzitza konpromiso feministaren maila handi batekin hartzen denean bakarrik da posible halakorik.

Orduan, gobernu taldeak aldatzean ager daitezkeen zailtasunak azaleratu ziren. Elkarteari dagokionez, batzuetan sentitu da, kasu honetan bezala, zinegotzi berri bakoitza hutsetik hasten dela, eta horrek galderak sorrarazten ditu, ea informazioa helarazteko modua hobetu daitekeen edo nola eman daitekeen. Alderdi horretan, funtsezko egitekoa izan zuen proiektuari buruzko informazio kualitatiboa helarazteko prozesu biziak, eta, hala, sendotzen joan zen Emakumeen Etxeak Udalarekin duen lotura. Informazioa helaraztearekin lotutako zailtasun horietaz gainera, aipatzen da arduradun politiko edo alderdi bakoitzak bere ikuspegi propioa izan dezakeela Emakumeen Etxearen proiektuaren eta Udalak izan behar duen eginkizunaren gainean. Agian ez dira ikuspegi erabat desberdinak, baina izango dira ekarpen propioak edo ñabardurak, hasieran ziurgabetasun handiagoz bizi daitezkeenak. Bigarren fasean, espazioaren gaiak tentsio elementu izaten jarraitzen zuen Udalean. Horretaz gainera, **zinegotzitzak udal gobernuaren barruan egindako lan handiena zera izan zen, baterako kudeaketa eredu finkatzea**. Zinegotziak balioesten du baterako kudeaketa eredu nolabaiteko salbuespena dela: benetako parte hartzea, kargu publikoa betetzen dutenen lana eta ahaleginak zuzentzen dituena. Saila eta Emakumeen Etxea espazio berean egoteak Etxearen eta berdintasun politiken arteko lotura sendotzea ahalbidetu zuen.

Oraingo fasean, nolabaiteko finkapena hautematen da. Badirudi Emakumeen Etxea bakarrik eta modu autonomoan ari dela martxan: egiteko moduak integratu dira, eta badirudi eguneroko kogestioak pisua hartu duela kudeaketa formalaren gainetik. Egunerokotasunak eta proiektuan zuzenean inplikaturako pertsonak lortu dute aurrera egiten jarraitzea. Duñike Agirrezabalagak uste du baterako kudeaketa eredu erreferentea dela. Agirrezabalagaren iritzian, Udalarekin zubi lana egitea da bere lana. Ekarpenak eta kritikak jasotzeko gunea izan daiteke, baina beti errespetuz jaso dira eta ekintza politikoaren parte dira. Ulertzen da Emakumeen Etxeak Udaleko beste sail batzuetarako



duen balioa, eta kasu batzuk hara bideratzen dira. Eta Etxeak, era berean, Udalaren beste zerbitzu batzuetarako sarbide gisa funtziona dezake. Udalaren barruko lana? Aurretik planteatutakoaren ildotik, **zinegotzitzaren lanaren barruan sartzen da aurrekontuak, Etxea eta baterako kudeaketa eredia defendatzea eta, nola ez, beste espazio bat bilatzea**. Egiteke dauden alderdiei dagokienez, honako hauek ageri dira: Udaleko beste sail batzuek Etxeari buruzko ezagutza areagotzea eta indar politiko eta teknikari guztien artean hirian horrelako proiektu bat izatearen zentraltasuna helarazten jarraitzea.

**Eta nola ikusten gaituzte Udalean?** Jarraian, langile guztiei bidalitako galdera sortan jasotako erantzunen analisiaren laburpen bat aurkeztuko dugu. Analisi osoa eranskinean dago bilduta.

Erantzunen arabera, **Emakumeen Etxea erreferentia da** udal langileen sektore zabal baten ustez. Pertsona askok erantzun zuten (ez emakumeek bakarrik, lautik bat gizonak baitziren), oso denbora tarte laburrean erantzun ere. Horietatik gehien-gehienek –udal zerbitzu mota guztietatik datoz– ezagutzen dute Emakumeen Etxea (% 80,5); ezagutza maila hori zertxobait handiagoa da emakumeen artean. Esan daiteke udal egitura osoak ezagutzen duela Emakumeen Etxea, nahiz eta hedapen handiagoko prozesu batek beharrezkoa dirudien, bai ezagutzen ez dutenei begira, bai ezagutu arren zer funtzio dituen ez dakitenei begira.

Emakumeen Etxea ezagutzera iristen denean, **badirudi proiektua zalantzarik gabe ulertzen dela**: beren ustez proiektuaren helburuak zein diren azaltzen dutenen artean, esan behar da iritzi hori bat datorrela, argi eta garbi, etxeak beretzat planteatzen duenarekin (ahalduntzea, berdintasuna lortzea, emakumeentzako zerbitzuak ematea, feminismoa).

Etxea ezaguna izateaz gainera **erabili ere erabiltzen da**. Etxea ezagutzen duten hamar lagunetik zazpi bileretara, ikastaroetara edo hitzaldietara joan dira. Lehen pertsonan erabiltzeaz gain, ohikoa da Emakumeen Etxearekin kontaktua pertsonak bertara bideratzeko, eta hori Etxea ezagutzen duten bi pertsonatik batek egiten du, gutxi gorabehera. Deribazio horiek, ordea, ez dira oso espezifikoak (Etxera bideratzen dira, oro har) edo, gutxienez, ez dira zehazten.

Oro har, ados daude **Emakumeen Etxea babestearen komenigarritasunari buruz** (emakumeetan gizonetan baino zertxobait gehiago, eta ezagutzen dutenen artean ezagutzen ez dutenen artean baino gehiago), eta gehienek uste dute ez dela behar adina ezagutzen. Esan dezakegu, neurri batean behintzat, haren existentzia eta funtzioak gehiago zabaltzea dela eman beharreko laguntza.

Halaber, gehienek uste dute **Emakumeen Etxea balio erantsia dela** Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen artean. Pertzepzio hori handixeagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta argi eta garbi areagotzen da etxea ezagutzen dutenen kasuan, ezagutzen ez dutenen aldean baino. Nolanahi ere, aipatzekoa da Etxea ezagutzen duen inork ez duela uste balio erantsirik eskaintzen ez duenik. Gauza bera gertatzen da Emakumeen Etxea hirirako **beharrezkoa** ote den galdetzean. Udaleko bost langiletik lauk hala uste dute, eta, iritzi horretakoak ez direnean, ezjakintasunaren ondorio izan ohi da batez ere. Besterik gabe, ezin da esan balio bat den ala ez, beharrezkoa den ala ez, ezagutu ezean.

Eta zergatik jotzen da beharrezkotzat Emakumeen Etxea? Neurri batean, udal zerbitzuen balio erantsia delako. Baina ez horregatik bakarrik: izaera publikotik kanpo ere, Emakumeen Etxea beharrezkoa da berez. Etxearen beharra argudiatzeko **arrazoiak** asko dira, baina hiru mota nagusitan bil ditzakegu, zeinak loturik baitaude bata bestearekin. Lehenik eta behin, uste delako errealitate batean eragin behar dela (benetako desberdintasuna, emakumeen premiak eta larrialdiak, haien bizi kalitatea hobetzea eta abar). Bigarrenik, Udalak bere eginkizunak bete behar ditu, eta horien artean daude berdintasunaren aldeko borroka eta herritarren beharrei erantzutea, kasu honetan, emakume izateak markatuta. Eta, hori egin ahal izateko, beharrezkoa da espazio fisiko bat izatea. Hirugarrenik, Emakumeen Etxeak lanerako duen eredu jakinak baliotsu egiten du berez. Funtzionatzeko moduan elementu baliotsuak daude, eta mantendu ez ezik indartu ere egin behar dira, erreferentzia izan baitaiteke berez eta erakundearen gainerakoentzat.

Udaleko langileek argi ikusten dute Emakumeen Etxearen beharra<sup>12</sup>. **Beharrezkoa da emakumeentzat:** *«Bestela emakume batek ez lukeelako jakingo nora jo»* eta *«gizarte hobea lortzeko»*. Beharrezkoa da, eta, besterik gabe, haatik da beharrezkoa. *«Beharrezkoa baita haren existentzia hutsa»*. *«Lan asko dagoelako oraindik egiteko»*. Eta, hori guztia dela eta, hiriaren proiektuaren parte izan behar du: *«Emakumeek hiriaren proiektuan egon behar dutelako eta Emakumeen Etxea presentzia horretan saiatzen delako»*.

Baina arazoak halako erro handiak dituenetz, Emakumeen Etxea beharrezkoa izan arren, **ez da aski inola ere:** *«Berdintasuna ez dago bermatuta hirian eta gure gizartean. Hau bultzatzen duten proiektu gehiago behar dira, Udalak daukan gizarte proiektua ez da nahikoa»*. Eta Udalak ardura hartu beharko luke: *«Asko egin da, gehiago dago egiteko. Udalak hausnartzea nahi nuke; eta dagokion garrantzia ematea. Hala bedi.»*

Hori dela eta, langileek eskertu egiten dute egiten ari den lana. Nire eta nire kide guztien izenean:

---

<sup>12</sup> Puntu honetatik hasi eta amaierara bitarteko aipu guztiak Udaleko langileenak dira, galdetegiaren bidez eskuratuak.

- *«Hainbat ikastaro egin ditut Emakumearen Etxean eta feminismoa hobeto ulertzen lagundu didate, baita nire burua ahalduntzen ere. Lagunak egin ditut bertan eta Emakume Ezabatuak proiektua jarri dugu martxan historian zehar baztertutako emakume esanguratsuak berreskuratzeko. Eskerrik asko!»*
- *«Erreferentzia handia da Emakumeen Etxea, gauza askogatik! Zuek gabe, non egingo lirateke kurso horiek, bilera horiek guztiak, lekutze horiek? Eskerrik asko zuei.»*

## 4. Bidea egiten jarraitzea: beste hamar urte Donostiako Emakumeen Etxeak

### 4.1. Ikaskuntzak

Dokumentuaren azken atal honetan, hainbat orri eskaini nahi izan dizkiogu hamar urteotan egindako ikaskuntzak eta aurrez aurre ditugun erronkak identifikatzeari. Asmoa ez da izan ebaluazio bat egitea, baizik eta memoria kolektiboa eraikitzeko prozesu bat taxutzea. Hala eta guztiz ere, ezinbestean ateratzen dira ideiak hausnarketatik zailtasunei eta potentzialtasunei dagokienez, eta, batez ere, proiektua indartzen jarraitzeko proposamenei dagokienez. Edo, izenburuan esan bezala, gutxienez beste hamarkada batean aurrera egiten jarraitzeko proposamenekin loturik.

Puntu hau bi eremutan dago egituratuta. Alde batetik, kanpoarekin zerikusi handiagoa duten gaiak identifikatzen dira, betiere proiektuan eragin zuzena duten testuinguru gutxi-asko gertukoarekin zerikusia dutenak. Eta, bestetik, Emakumeen Etxearekin berarekin, espazioarekin, ereduarekin eta bertako eguneroko bizitzarekin lotura handiena duten gaiak jorratzen dira.

#### 4.1.1. Etxetik kanpo gertatzen dena

Agian, zailtasunik handiena zera da, berdintasun politiken eta, ondorioz, politika horiei espezifikoki lotutako espazioen **ahultasun orokorra**. Politika horiek ez dira sendotzen, eta beti izaten da arriskua lehenak izateko gastu publikoko murrizketak iristean. **Ez dute izaten apustu politiko integralik**, eta hori agerian geratzen da esleitutako aurrekontuen eskasiarekin, edukiz gabetzearekin eta halako jokabideekin, konpromiso politikorik ez duten pertsonen eskuetan jartzen direnean. Hala, Emakumeen Etxeko kideek mehatxutzat ikusten dute *«feministak ez diren emakumeak berdintasun arloko postu garrantzitsuetan jartzea»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).

Arrisku hori areagotzen ari da gaur egun **diskurtso eta erakunde politikoek ageri duten eskuineranzko joerarekin**. *«Ultraeskuinaren mehatxua»* da aitortutako beste arrisku bat (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Hori etxearen eguneroko funtzionamenduan antzematen da dagoeneko; izan ere, hainbat gizon hasi dira iristen, *«arreta emateko eskatzen, diskurtso prepotentearekin»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Gehienbat, banantzeko eta seme-alabak zaintzeko prozesuetan arazoak dituzten gizonak dira. *«Gizonak agertzen hasi dira Emakumeen Etxean, apur bat adoretzu, eskuin muturraren gaiarekin. Probokatzerara. Arreta eskatzen. Gizona izateagatik ez naute zaintzen?»*. (Emakumeen Etxeko/Saileko dinamizatzailea). Horrek arazo zehatzak dakartza etxearen eguneroko funtzionamendurako, baina are arrisku handiagoa iradokitzen du.

Beraz, ez da ahaztu behar Etxearen proiektuak **hainbat arrisku** dituela. Muturrekoena proiektuaren amaiera litzateke. Baina, hainbestearino iritsi gabe, badaude proiektua desitxuratzeko beste modu batzuk, espazio hutsa baino askoz gehiago baita. Baterako kudeaketa ereduaren eta feminismoarekiko eta ahalduntzearekiko konpromisoan datza haren funtsa. Antzeko kontuak ari dira gertatzen beste udalerrri batzuetan. «*Erne ibili behar da*» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa) edukiaren balizko hustuketaren aurrean (proiektua despolitizatuz, adibidez, kogestioaren pribatizazioaren bidez edo konpromiso feministarik gabeko udal langileak esleitzuz) edo ahultzeko eta edukiak eta jarduerak kontrolatzeko edo baldintzatzeko hainbat modu agertzen direnean.

Horren aurrean, mugimendu feministaren grina bera da **indargune nagusia**, azken urteetan izan duen presentzia publiko zabala. Horrek elikatzen du etxea, zentzua eta babesa ematen dizkio, eta zera esan nahi du: «*Zailtasun edo mehatxu uneetan Etxea beste zerbait bihurtzea eragotzi duen barneko indarra*» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).

Horri esker, arnasa hartzen da Etxea hiriko **ezinbesteko ekipamendutzat** hartzeko borrokan jarraitzeko, «*liburutegi bat bezain funtsezko*» izan dadin (Emakumeen Etxeko taldea, 1. saioa): «*Hirian erreferenteak diren espazioak daude sektoreka. Kultura (kultur etxeak eta liburutegiak), euskara (Euskara Zerbitzua), ingurumena (Cristina Enea Fundazioa), giza eskubideak (Aiete). Balio “ukiezin” horiek ikusarazten laguntzen baitute*» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).

#### 4.1.2. Barrura begira

Kanpoko arrisku eta indargune horien esparruan, zer erronka planteatzen ditu Emakumeen Etxeak? Hiru erronka handi daude, edo, bestela hitz batzuekin esanda, **hiru ilusio handi**.

Proiektuaren potentzialtasunari erantzungo dion eta egungoaren gabeziak konponduko dituen **espazio** baten aldeko apustua egin da. Eskaria gero eta handiagoa da: emakume gehiago iristen dira zerbitzu edo ikastaro bila; ugaritu egiten dira elkartzeko espazioak nahi dituzten bazkideak; gehiago dira jarduerak antolatu nahi dituzten kolektiboak. Asko kanpoan ari dira geratzen, eta, ziur asko, bat baino gehiago ez dira iristen. Besteak beste, arrazoi hauengatik: «*Orain josturek ez dute gehiago ematen*» (Etxeko dinamizatzailea/Administrazioa). Guztiek onartzen dute espazio berri baten beharra dagoela, bai Etxearen parte diren emakumeek, bai politikariek: «*Hurrengo helburua beste kokaleku bat bilatzea da, baldintza onenetan, jarduera gehiago garatu ahal izateko*» (Duñike Agirrezabalaga).

Baina kontua ez da soilik metro karratuak izatea, baizik eta baliabide egokiak edukitzea. Eta baliabideek finantzaketa esan nahi dute. «Dirua behar dugu gauzak egiteko» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Halaber, langileak izatea eskatzen du, egungo

egoerak gainezka egiten baitu:

«Eskaria handitzeak premia guztiei erantzuteko estresa eragiten du, behar guztiei erantzuteko (...) Arrakastak lan karga handiagoa eskatzen du.» (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa) Goizetan dinamizatzaile bat eta beste bat arratsaldeetan ez dira nahikoa hurbiltzen diren emakume guztiak artatzeko.

Azken batean, lehen erronka da espazio egoki bat izatea, behar bezain zabala, moldakorra eta eskuragarria, eta ongi hornitua finantza eta giza baliabideei dagokienez.

Baina, orrialde hauetan behin eta berriz esaten ari garenez, ez dugu izango Etxerik, haren muina gorde ezean: baterako kudeaketa eta feminismoa. Eta ildo horretatik datoz hurrengo bi erronkak.

Bigarrena **baterako kudeaketa eredia indartzea da**. Horretarako, alderdi bakoitzaren rola sendotu behar da. Politikariei dagokienez, erronka argia da: espazioaren aldeko apustu irmoa egitea, babestea eta zabaltzea. Beharrezkoa da «borondate politikoa, espazioaren alde borroka egingo duen norbait» (Saila). Hortik abiatuta, administrazioan berme guztiak



izateko modua bilatu behar da, eta araudiaren arabera babestuta geratuko dira Emakumearen Etxea bera, baterako kudeaketa eredua eta bertan lan egiten duten langileak. Honako alderdi hauek zehaztu behar dira: «*Araudia, espazioa babestuko duen lege esparrua*» (Saila). Udalaren alderdi teknikoari dagokionez, beharrezkoa da dedikazio aukerak zabaltzea, langileak gehituz eta lan harremanak egonkortuz, betiere konpromiso feminista duten langileak direla ziurtatuz. Halaber, Saileko langileen barne antolamendua hobetzen jarraitu behar da. Elkartearen zatiari dagokionez, soldatapeko langileak ere gehitu beharko lirateke, baina, batez ere, bazkideen konpromisoa eta dedikazioa handitu beharko lirateke Etxearen kudeaketan, nekea eta gainkarga ageri baitira etxeko eguneroko lanean gehien aritzen direnen artean.

Baina kontua ez da bakoitzaren rola indartzea soilik. Beste hainbat alderdiren gaineko kontzientzia ere hartu behar dugu:

*«Baterako kudeaketa eredian beti izango dira bi ikuspegi, bi rol baitira: administrazioa eta mugimendu asoziatiboa. (...) Horixe izan liteke erronka; bi ikuspegi izatea ez da txarra. Ikustea nola kudeatzen dugun, non bat egiten den... Ez etsipenik sortzeko.»* (Saila)

Nola bilatu konfluentziak? Funtsezko urratsa da elkar aintzatestea eta argi eta garbi definitzea zenbat dagoen alde bakoitzaren esku, zer eska daitekeen eta zer ez, eta elkarren autonomia errespetatzea. Aintzatespen hori egiteko, baliagarria izan daiteke egiten dena sistematizatzea, eta, hala, datuak bildu eta modu erregularrean eta ordenatuan baloratu ahal izango dira. Elkar aintzatestea, halaber, ezinbestekoa da norbera ere aitortzea: «*Guk gauzak sortzen ditugula... erreklamatzeko, eskatzeko, exijitzeko... Batzuetan "ezin da" kontu horrekin kutsatu gara. Anbizio handiagoa izan behar dugu... Batzuetan, egunerokotasunak jan egiten gaitu*» (Saila).

Kudeaketa sendotzeko hirugarren alderdi bat **koordinazio espazioak** indartzea eta zabaltzea da. Alde batetik, dinamizatzailen arteko eguneroko elkarguneak bermatzen jarraitzea, kogestio informalak aurrera egiten jarrai dezan. Eta, bestetik, aipatzen da sailaren eta elkartearen arteko plangintza estrategiko bateratua egitea komeni dela agian. Azkenik, eta elkarteari dagokionez, planteatu da ez ote den komenigarria Sukaldea eta halako artikulazio eremu bat ezartzea. «Sukaldea. Programazio Batzordea» 2013an sortu zen, helburu hirukoitz batekin: «*sinergiak sortzeko elkargune bat eratzea*» elkartearen eta Etxean programatzen duten emakumeen artean, gunearen erabilera utilitaristak saihestea, «*proiektuarekin loturak sortzea*» eta «*espazioen banaketa demokratikoago bat*» lortzea (KD28). Espazioak neke eta gainkarga sentsazioa sortu zuen, bileretan ez baitzegoen aniztasunik emakume motari dagokionez. Hala ere, sortu zen premiak bere horretan dirau, eta ez dago argi nola betetzen den hura falta denean:



*«Asmoa zen programazio kohesionatuagoa sortzea eta bermatzea dena feminista dela. (...) Espazio hori behar batetik abiatuta sortu zen: alegia, agian beharrezkoa izango zela galdetzea nola ari zen betetzen une hartan, eta agian hobeto aztertu beharko zela.» (Etxeko/elkarteko dinamizatzailerak).*

Beraz, komenigarria dirudi espazioak izatea Emakumeen Etxeko begirada koordinatzeko eta begirada hori feminismoetatik kohesionatzeko. Hori guztia hirugarren erronkari lotuta dago: **gehiago eta anitzagoak izatea**.

Beti gure artean dugun galdera bat hauxe da: nola lortu Emakumeen Etxea ahalik eta askotarikoena izateko? Ikusi dugun bezala, era askotako emakumeen falta sumatzen dugu: iristen ez diren edo modu substantiboan geratzen ez diren gazteak, edo jolasguneetan gehiago parte hartzen dutenak Etxearen dinamikan baino; Etxea instrumentalago ikusten duten emakumeak, konpromisorik hartu gabe; parte hartzeko zailtasunak dituztenak edo beren behar eta interesetatik urrunago hautematen dutenak; modu indibidualean parte ez diren feministak eta Etxea erreferentziatzat ez daukaten feminista antolatuak.

Emakume batzuk falta dira. *«Baina, nahiz eta orain iritsi ez, Emakumeen Etxea beti egongo da hor. Agian beste une batean etorriko dira.»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Horregatik, ezinbestekoa da espazio irekia dela bermatzen jarraitzea eta saihestea espazio elitista baten pertzepzioa izatea: *«Batzuetan, emakumeei zer egiten dugun azaltzen diegunean, “Ene, handitxo geratzen zait!” esan izan digute, “Nik ez dut ikusten hemen neure burua”, eta horrelakoak»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Askotariko premiei erantzuten saiatzen jarraitzea; beste emakume batzuegana irits daitezkeen beste kolektibo batzuekiko koordinazioa indartzea; gabeziatik, jolasaren bilaketatik, antolatzeko borondatek iristen direnentzako sarrera bide askotarikoak izaten segitzea.

Ilusioa eragiten duen erronka da Donostialdean ditugun emakumeen aniztasuna jasotzea eta Etxeak etengabe aldatzen ari den kartografia feminista bati erantzutea, nahiz eta ez izan erraza. Baina erronka horrek badu beste alderdi osagarri bat: nola kudeatu guk ordezkatzeko dugun aniztasuna, nahiz eta oraindik ez garen izan nahiko genukeen bezain askotarikoak?

Etxeko emakumeek hauxe aitortzen dute: *«Zaila da sare kolektiboa ehuntzea. Aniztasunaren ondorioz, erabakiak hartzea»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Zailtasun hori handiagoa da gainerako herritarren aurrean kokatutako subjektu politikoa izan nahi den heinean: *«Etxe gisa grebarekin bat egin dugu, baina bazkideen eta koordinatzailearen arteko emakume asko ez daude ados»* (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa). Baina, hain zuzen ere, baterako erabakiak hartzeko konplexutasunari aurre egiteak ahalbidetzen du pixkanaka-pixkanaka jarrera politikoa eraikitzea. Azkenik, aniztasuna

lortzen saiatzeak esan nahi du militantzia eta partaidetza eredu desberdinak egokitzeko moduak bilatzea: *«Agian paraleloan goaz eta ez dugu elkar topatzen: beharbada, batzuen iritziz, batzuk jolasera etortzen dira eta gero ez dira inplikutzen; beste batzuen ustez, ereduak ez da batere erakargarria»*. (Emakumeen Etxeko taldea, 2. saioa).

Ez dira errazak aurrez aurre ditugun erronkak, baina iraganekoak eta lortu ditugunak ere ez ziren samurrak. Eta, aldi berean, haiei heltzen ausartzea da bizitzaz betetzeko modua.

## 4.2. Etorkizunera bideratzen duten nahiak

Amaitzeko, etorkizunari begiratu nahi izan diogu. Ez urrunekoa eta eskuraz ezin den zerbait bezala, baizik eta dagoeneko eraikitzen ari garen zerbait bezala. Zerumugak amesten utzi diogu geure buruari, nora joan nahiko genukeen esaten, horretarako urratsak ematen ari garela jakinda. Ederra da ikustea aniztasun handia dagoela desioetan, baina, batez ere, haietako asko partekatzen ditugula. Hamar urte hauetan modu batera edo bestera Emakumeen Etxea egin duten guztiei eskaintzen dizkiegu honako hitz hauek (baita proiektua gauzatu aurretik lanean jardun dutenei ere). Argi daukagu norantz joan nahi dugun, eta, gainera, badakigu elkarrekin joan nahi dugula. Zorionak guztioi! Gora Emakumeon Etxea!

### Hemendik hamar urtera izango dugun Etxea irudikatzen

*«Etxe handiago bat, hainbat emakume talderen eta mugimenduren presentziarekin, zein bere txokoarekin, giltzekin, armairuekin... Guztiak gehiago artikulatuta... Eta Etxearen parte diren emakumeen egitura areagotzeko bultzada izatea. Ez nuke nahi etxea despolitizatzea. Ez dadila hazi alderdi asistentzialista.»* (Etxeko/elkarteko dinamizatzailea).

*«Gustatuko litzaidake mugimendu feminista osoa bilduko lukeen Etxea lortzea, eta, batez ere, espazioaz jabetu diren emakume gazteez betetzea (...). Emakume gehiago eta espazio anitzagoa.»* (Emakumeen Etxeko/Saileko dinamizatzailea).

*«Amesteko tokia izatea. Eta amestu horretan irekia, anitza, zabala... hau da, etorkizuna ez dadila gaur diseinatu, izan dadila ematen ditugun pausoen emaitza, edo topatuko dugun beste egora edo tokia. Espazialki tokiak izan behar duela nahiko datorren edozeinentzat. Baina datorrenak bide berriak planteatuko dituela, hori horrela izango da, eta horretarako tokiak zabalik izan behar dira. Hau laborategi bat*

da.» (Erabiltzaileak, 3. taldea).

«Ondo legoke lorategia izatea, espazioari lotuta. Edo kafetegi bat, liburuekin. Kaxildan bezala. Sartzen zara kafetegira, eta ez zaizu hainbeste kostatzen, eta geratu egiten zara. Horrela ez zara etortzen “zeozer egitera”.» (Erabiltzaileak, 2. taldea).

«Etengabeko aurrerabidean jarraitzea, erronka berriei irekita (...) garaiekin batera egin behar dugu aurrera, ezin gara gelditu. Harro nago egiten ari denarekin; gainera, hain emakume prestatuak ikusten ditudalako, agian ikasketarik egin ez dutenak baina prestatu direnak, eta Etxeak jarraitu egin behar du, berritu, aurrera egin... (...) Etxe handiago bat behar da, gauza gehiago egin ahal izateko.» (Erabiltzaileak, 1. taldea).

«Proiektu oso ezberdinak dituen Etxea, ikertzeko dokumentazio zentro batekin, taberna bat eta emakumeen txokoa... Lehengo Arteleku zenaren bidetik... WiFi doan, ordenagailu eramangarria eta tupperra hartuta joateko... espazio bizi bat...» (Saila)

«Emakume gehiagorengana iristeko, lan handia egiten den arren, zaintzaileak, migratzaileak edo emakume prekarioek oso beharrezkoa dutelako beraien egoeretan aurkitzen diren horiekin elkartzea. Bizitza osasuntsua (mentala) sustatzeko guneak, babes terapeutiko feminista, talde terapia feministak.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).

«Batez ere lehen aipaturiko zubi horiek sortzea garrantzitsua iruditzen zait (migrante, etxeko langile, etxekoandre, etxe gabeturikoak eta langabetuak etxearekin harremanetan jartzea, eta beste emakumeak horiekin harremanetan jartzea). (...) Interesgarria litzateke baliabide gutxiago dituzten horiek hurbiltzeko urratsak egitea.» (Zerbitzu emailea/trebatzailea).

«Alderdi guztietan merezi duguna izatea: lokala, aintzatespena, pertsonala, aurrekontua...» (Taldea, 1. saioa).

«Etxea egon dadila Udalean erabat ofizializatuta; Batzordetik, Osoko Bilkuratik edo dena delakotik igarota. Behin betiko onar dadin hau beharrezkoa dela hirian, eta ez dezan izan arriskurik.» (Taldea, 1. saioa)

«Lokal berrian. Egundokoa izango da. Oraindik eta biziagoa. Desberdina izango da, seguru. Pertsonak aldatuko dira. Gazte gehiagok hartuko dute erreleboa.» (Erabiltzailea).

«Donostiako emakume talde desberdinak, feministak eta beste, saretze lan bat planteatu behar dute blokeo egoera hau gainditu ahal izateko eta konfrontatu (...) Emakumeen Etxeak borrokarako gune izan beharko luke. Etxea osatu genuenetik errealitatea aldatu da, eta errealitate berri horri erantzun behar zaio. Talde feminista gazteak daude auzoetan, errealitate hori kontuan hartu eta artikulatu behar da. Espazioa txiki eta zahar geratu da, emakume etorkin ugari bertan aholkularitza eta doako zerbitzuak jasotzen ditu... baina hiriko udalean militante feminista falta da gobernutik, eta erronka berri hauei erantzuteko hori ezinbestekoa da.» (Ainhoa Beola).

«Proiektuak jarraitu behar duela kogestio ikuspuntu horretatik, elkarte eta mugimenduaren ahalduntze horretatik (...) baldin badago berme hori, Berdintasun Saila eta beraiekin lan egiten duten departamentuekin, eta emakume mugimenduekin, mantentzen bada kohesioa eta lana, espazio handiagoa behar da. Proiektuak badauka emateko fruitu handia.» (Naiara Sampedro).

«Egokiena litzateke hirian berdintasun politiken erreferente oso indartsua izatea, baina nahiko nuke mugimendu feministaren beraren erreferente izatea ere, aniztasun zabalenetik ulertuta.» (Duñike Agirrezabalaga).

### Desio gehiagoren zerrenda...

- Handia izatea, bost langile, baliabideak, dirua...
- Espazioa eta proiektua gehiago legitimatu behar ez izatea, ez politikoki, ez instituzionalki.
- Emakumeen Etxearen eta Sailaren arteko loturan jardun dezakeen zuzendari batekin aritzea. Goitik pentsa dezakeen buru bat, arreta ematen hainbeste arituko ez dena, baterako kudeaketa hobetzen lagunduko diguna, arazoetan esku hartzen lagunduko diguna, baliabide gehiago izateko borrokatuko dena.

Adibidez, norabide propioa duten kultur etxeak.

- Klean gehiago ikusten da, programazio espezifiko batekin.
- Hirian ikusgarriagoak izatea eta, lurralde osoan ere hala izatea lortzen badugu, askoz hobeto.
- Askotarikoagoa, kolektibo gazteekin. Emakume migratzaileekin, koloretsuagoa.
- Joan zirenetako batzuk itzultzea.
- Auzo gehiagotara iristea. Proiektua gero eta emakume gehiagorengana irekitzea.
- Nerabeengana iristea. Etor daitezela Emakumeen Etxera, edo joan dadila Etxea haiengana. Institutuetara eta ikastetxeetara zabaltzea.
- Zerbitzu duin bat eskaini ahal izatea, ematen diren baldintzengatik, konfidentziasunari eusteagatik, gozotasunez egiteagatik...
- Modulu psikosozialen mota integratu ahal izatea, osasun gaiak lantzea, hala nola Bizkaiko moduluak.
- Leku eroso bat izatea, sartu eta irteteko, egoteko leku atsegina, erakargarria... Ezagutzera etor zaitezkeena.
- Haurtzaindegi zerbitzuarekin, arratsaldeko ekintzetara joan ahal izateko. Espazio erreserbatu eta egoki bat egon beharko litzateke, jostailuekin eta jolastu ahal izateko espazio zabalarekin.
- Espazio handiago batek zerbitzu eta jarduera gehiago martxan jartzea ahalbidetuko luke, gaur egun bete gabe dauden eskaera eta beharrei erantzunez.
- Espazio moldagarriagoa, etxean egiten diren jardueren aniztasuna barnean har dezakeena (tailerrak, entsegu gelak, espazio intimoagoak...).
- Mugikortasun urriko pertsonentzako espazio irisgarria.
- Jarduera eskaintza handixeagoa udan. Agian mintegi moduan, ikasturtean sartu ez diren gai berriak jorratuz.

## 5. Eranskinak

### 5.1. Egindako landa lana

	Kopurua	Hizkuntza*	Datak	Partaide kopurua	Izendapena txostenean
<b>Taldeko saioak</b>	Prozesuaren talde motorra (2)	Gaztelania	2019/10/7 2019/10/2 2	5 5	
	Etxeko Taldea (2)	Gaztelania	2019/11/1 6 2020/02/1	15 14	Etxeko Taldea, 1. eta 2. saioak
	Berdintasun Saila: teknikariak eta zerbitziburua (1)	Elebiduna	2019/12/9	6	Saila
	Erabiltzaileen eta bazkideen taldea (3)	Gaztelania (1); euskara (2)	2020/1/15 (2) 2020/01/2 3	9 3	Erabiltzaileak, 1., 2. eta 3. taldeak
<b>Elkarrizketa</b>	Elkarteko presidentea (1)	Gaztelania	2020/02/1 9	2	Elkartea
	Erabiltzailea (1)	Gaztelania	2020/02/1 9		Erabiltzailea
	Etxeko dinamizatzaileak (2)	Elebiduna	2019/11/5	2	Etxeko dinamizatzailea/Administrazioa Etxeko dinamizatzailea/Elkartea
	Politikariak: azken hamar urteetako saileko zinegotzi arduradunak (3)	Euskara (2); gaztelania (1)	2020/02/1 3 2020/3/10 (2)	3	Ainhoa Beola Naiara Sampedro Duñike Agirrezabalaga
<b>Galdetegiak</b>	Ahalduntze taldeetako, ikastaroetako eta zerbitzuetako emaileak	Euskara (3); gaztelania (10)		13	Zerbitzu emaileak/trebatzaileak
	Donostiako Udaleko	Euskara (126);		290	Udaleko langileak

	langileak	gaztelani a (164)			
--	-----------	----------------------	--	--	--

\* Esan bezala, euskarazko bertsioan euskaratu egin dugu gaztelaniaz egindako elkarrizketa eta taldeen txostenetan egileek gaztelaniaz esandakoa. Kasu horietan, dokumentu honen gaztelaniazko bertsioan dago aipamenen hitzez hitzeko transkripzioa.



## 5.2. Aztertutako dokumentazioaren zerrenda

### Emakumeen Etxeko jardueri/zerbitzuei buruzko informazioa (JD)

JD1. Aizan memoria 18-19. Aholkularitza, Laguntza eta Autolaguntza taldeak, indarkeria matxista jasan duten edo jasaten duten eta/edo egoera bereziki ahulean dauden emakumeei zuzenduak.

JD2. Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena, Emakumeen Etxean immigrazio proiektua lantzeko.

JD3. «Empalabramiento» tailerraren memoria. 2018.

JD4. Etxeetako langileentzako aholkularitza juridikoaren memoria.

JD5. Sexuaren alorreko baterako hezkuntzako eta indarkeria matxista prebenitzeko tailerra, gazteei zuzendua. Memoria. 2015-2016.

JD6. Emakumeentzako aholkularitza zerbitzuaren memoria (Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarteak emanda).

JD7. «Zaharralduntze feminista. Edadismo sexista» jardueraren memoria. 2019.

JD8. Urteko txostena. Emakumeen Gunea, indarkeriarik gabeko bizitza baten alde.

JD9. Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea. Donostia, amaierako txostena, 2019.

JD10. Musikoterapia saioetako 2018-2019 memoria. Emakumeen Etxea.

JD11. Programazioa, 2015eko urria-abendua.

JD12. Programazioa, 2016ko urtarrila-uztaila.

JD13. Programazioa, 2016ko urria-abendua.

JD14. Programazioa, 2017ko urtarrila-uztaila.

JD15. Programazioa, 2017ko iraila-abendua.

JD16. Programazioa, 2018ko urtarrila-uztaila.

JD17. Programazioa, 2018ko iraila-abendua.

JD18. Programazioa, 2019ko urtarrila-uztaila.

JD19. Programazioa, 2019ko iraila-abendua.

### **Etxearen kudeaketaren gaineko barne dokumentazioa (KD)**

KD1. Manu Sarasolaren saioak. Udalaren/Elkartearen saioetako aktak.

KD2. Donostiako Emakumeen Etxea: baterako kudeaketa eta ahalduntzea. Elkarlan 2017 sariaren deialdira aurkeztutako proiektua. 2017ko urria

KD3. 2018. Emakumeen Etxeari buruzko hausnarketa bilerako akta.

KD4. Emakumeen Etxea emakumeen elkartearekin hitzarmena, higiezina baliatzeko.

KD5. Kazeta feminista 2011\_ekaina

KD6. Kazeta feminista 2011\_uztaila

KD7. Kazeta feminista 2011\_iraila

KD8. Kazeta feminista 2011\_urria

KD9. Kazeta feminista 2011\_azaroa

KD10. Kazeta feminista 2011\_abendua

KD11. Kazeta feminista 2012\_iraila

KD12. Baterako kudeaketa bilera 2015\_azaroa

KD13. Baterako kudeaketa bilera 2016\_urtarrila

KD14. Baterako kudeaketa bilera 2016\_otsaila

KD15. Baterako kudeaketa bilera 2016\_maiatza

KD16. Baterako kudeaketa bilera 2017\_otsaila

KD17. Baterako kudeaketa bilera 2017\_azaroa

KD18. Baterako kudeaketa bilera 2018\_maiatza

KD19. Baterako kudeaketa bilera 2018\_urria

KD20. Etxeko Batzar Orokorra 1, 2012ko urtarrila

- KD21. Etxeko Batzar Orokorra 2, 2012ko martxoa
- KD22. Koordinazio bilera, 2012ko abendua
- KD23. Etxeko eta Elkarteko Batzar Orokorra 3, 2014ko martxoa
- KD24. Etxeko eta Elkarteko Batzar Orokorra 4, 2015eko maiatza
- KD25. Etxeko Batzar Orokorra 5, 2016ko abendua
- KD26. Etxeko Batzar Orokorra 6, 2017ko abendua
- KD27. Elkartearen Batzarra, 2012ko ekaina
- KD28. Elkartearen Batzarra, 2013ko apirila
- KD29. Elkartearen Batzarra, 2018ko abendua
- KD30. Elkartearen Ezohiko Batzarra, 2019ko apirila

#### **Etxearen dokumentazio orokorra (ED)**

- ED1. Erabiltzaileen datuak. Gaztelania.
- ED2. Erabiltzaileen datuak. Euskara.
- ED3. Emakumeen Etxearen memoria. 2017-2019.
- ED4. Emakumeen Etxea. 2013-2015 aldirako Plan Estrategikoa.
- ED5. Erabiltzaileen informazioa (guztiak) 2018-2019.
- ED6. Erabiltzaileen informazioa (ikastaroak) 2018-2019.
- ED7. Erabiltzaileen informazioa (zerbitzuak) 2018-2019.
- ED8. 2014ko memoria
- ED9. 2016-2017 aldiko memoria
- ED10. 2017-2018 aldiko memoria
- ED12. 2012ko memoria
- ED13. 2013ko memoria

ED14. 2015-2016 aldiko memoria

ED15. Emakumeen Etxea elkartearen Plan Estrategikoa

ED16. Emakumeen Etxea elkartearen Plan Operatiboa

ED17. 2018-2019 aldiko memoria

### **Kanpo agiriak (KA)**

KA1. Donostiako Emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa. 2019ko martxoak.

KA2. Donostiako Emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren ondorioak. 2019ko martxoak.

KA3. Donostiako Berdintasun Plana 2014-2018.

### **Etxea sortu aurreko agiriak (AA)**

AA1. Hausnarketa jardunaldia 4\_2010

AA2. Hausnarketa jardunaldia 6\_2010

AA3. Hausnarketa jardunaldia 7\_2010

AA4. Hausnarketa jardunaldia 8\_2010

AA5. Hausnarketa jardunaldia 9\_2010

AA6. Hausnarketa jardunaldia 10\_2011


AA7. Hausnarketa jardunaldia 11\_2011

### 5.3. Udaleko langileei helarazitako galdetegiaren azterketa

Nola ikusten gaituzte Udalean? Jarraian, langile guztiei bidalitako galdera sortan jasotako erantzunen analisia aurkeztuko dugu.

Esan behar dugu erantzuna bizkor eta luze-zabal iritsi zitzaigula. Horrek, berez, ederki frogatzen du Emakumeen Etxea erreferentzia dela Udalean, batez ere langileen artean. Pertsona ugari erantzun zuen (290 lagunek, horietatik 126k euskaraz eta 164k gaztelaniaz); gehienak emakumeak ziren (% 70,7 emakumeak, % 26,6 gizonak eta % 2,7 zehaztu gabe).

Gehienek ezagutzen dute Emakumeen Etxea (% 80,5), eta ezagutza hori zertxobait handiagoa da emakumeen artean (% 81,9 eta % 77,3, hurrenez hurren). Etxea ezagutzen duten pertsonak mota guztietako udal zerbitzuetakoak dira. Bi arlo nabarmentzen dira: kultura eta gizarte zerbitzuak. Batez beste baino gehiago ezagutzen duten beste bi alor ere badira: Udaltzaingoa eta Euskara Saila. Baina, oro har, esan daiteke Emakumeen Etxea ezaguna dela udal egitura osoan: mugikortasuna, hirigintza eta etxebizitza, saneamendua, ingurumena, suteak itzaltzeko zerbitzuak, kirolak, lehendakaritza, giza baliabideak, finantzak eta kontabilitatea, turismoa, hileta zerbitzuak... Udaletxeko eremu guztietan daude Emakumeen Etxea ezagutzen duten pertsonak.



Etxea ezagutzen duten pertsonen laurdenek ez dakite zein helburu dituzten edo ez diote erantzuten galdera horri. Hau da, badakite Emakumeen Etxea existitzen dela, baina zailtasun handiagoak dituzte espazio hori zertarako den adierazteko. Beraz, badirudi hedapen handiagoko prozesu bat behar dela, argi eta garbi.

Hala ere, beren ustez proiektuaren helburuak zeintzuk diren azaltzen dutenen artean, esan behar da bat datorrela, argi eta garbi, Emakumeen Etxeak bere buruarentzat planteatzen duenarekin. Hala, ahalduntzearekin, berdintasuna lortzearekin eta emakumeentzako zerbitzuen hornidurarekin lotutako helburuak aipatzen dira. Etxea feminismoari lotutako espazio gisa ere aitatzten da, nahiz eta gutxiagotan izan. Era berean, argi dago espazio ez-mistoa dela, eta oso gutxitan adierazten da gizonentzat ere jardun behar duela. Oro har, ez da zehazten eragin eremu geografikoa, baina, egiten denean, hiria aipatzen da. Kasu batzuetan, indarkeria matxista da Emakumeen Etxearen lehentasunezko edo berariazko eragin eremua. Azkenik, batzuek adierazten dute Udalean bertan eragitea dela Emakumeen Etxearen helburuetako bat.


<b>Zure ustez, zein dira proiektuaren helburuak?</b>	
Ahalduntzea	<i>«Emakumeen ahalduntzearen aldeko proiektu baten alde lan egiteko gune bat edukitzea.» «Emakumeen ahalduntzea babestea eta bitartekoak ematea<sup>13</sup>.»</i>
Berdintasuna	<i>«Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egitea.» «Berdintasuna bultzatzea.»</i>
Emakumeentzako gunea	<i>«Emakumeen arteko topaketarako, ekintzarako eta prestakuntzarako gunea.» «Emakumeak elkartzeko gune bat da, eta emakumeen ikusgarritasuna eta ahalduntzea lortzeari lotutako hainbat helburu ditu beti.»</i>
Emakumeei laguntzea	<i>«Emakumeei hainbat norabidetan laguntzea (informazioa, deribazioak, jarduerak eta zerbitzua eskaintzea, haien autonomia sustatzeko).» «Emakumeei zuzeneko arreta, aholkularitza eta laguntza ematea, berdintasunaren arloko prestakuntza ematea, emakumeen aldeko jarduerak bultzatzea...»</i>
Feminismoa	<i>«Emakumeei espazio ireki bat eskaintzea, babes, elkartasun eta aukera testuinguru bat topa dezaten, ikuspegi feminista batetik.» «Berdintasuna eta feminismoa indartzea.»</i>

<sup>13</sup> Puntu honetako aipu guztiak Udaleko langileenak dira, eta galdetegiaren bidez eskuratu dira.

Indarkeria	«Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzea (aholkatzea, zerbitzu psikologikoa ematea, baliabideak kudeatzea, eta abar).» «Indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzea.» «Emakumeen ahalduntzean lan egitea, haien eskubideen defentsan eta indarkeria matxistaren aurka.» «Udalerriko emakumeek jasaten dituzten eraso sexisten aurrean neurriak hartzea eta bide horretan laguntzea.»
Donostia, lurralde esparru gisa	«Donostian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea.» «Donostiako emakumeentzako erreferentziazko lekua izatea.» «Donostiako emakumeak ahalduntzeko toki bat izatea.»
Udalan eragitea	«Udaleko langileak emakumeen berdintasunaren inguruan kontzientziazteko hainbat programa abian jartzea.»


Etxea ezagutzen duten hamar pertsonatik zazpi joan dira bertara, eta ehuneko hori antzekoa da emakumeen (% 71,3) eta gizonen (% 70,7) artean. Zertara joaten diren zehazten dutenen artean, gehienek diote bilerak edo ikastaroak egitera joaten direla. Hitzaldietara jende gutxiago joaten da.

Etxea ezagutzen dutenen artetik, erdiek gutxi gorabehera bideratu dituzte pertsonak hara (bai emakumeek, bai gizonek).








Deribazio horiek, ordea, ez dira oso espezifikokoak (Etxera bideratzen dira, oro har) edo, gutxienez, ez dira zehazten.



Oro har, uste dugu komeni dela Emakumeen Etxea babestea (5etik 4,1). Babestu behar dutela uste dutenen artean, gehixeago dira emakumeak gizonak baino (4,2 eta 3,9, hurrenez hurren). Etxea ezagutzen dutenen artean ere handiagoa da uste hori, ezagutzen ez dutenen artean baino (berriz ere 4,2 eta 3,9). Baina ezagutzen ez dutenen artean agertzen den balio altuak iradokitzen du, itxura guztien arabera, beharrezkoa dela laguntza handiagoa ematea, gutxien-gutxienez bere egitekoa jendarteratzeko.




Emakumeen Etxearen ezagutza orokorrari dagokionez, gehienek uste dute ez dela ezagutzen behar adina. Hurrengo grafikoan, oro har, ikus dezakegu zer pertsona portzentajek uste duten, oro har, ezagutzen dela behar adina, bi aldagai kontuan harturik: sexua eta Emakumeen Etxeari buruz duten ezagutza. Ikus dezakegunez, hamar pertsonatik seik (% 61,4) uste dute ez dela ezagutzen behar adina. Are gehiago, hamarretik bik (% 19,3) bakarrik uste dute baietz. Pertzepzio hori, neurri handi batean, independentea da sexuarekiko. Hala, emakumeen % 18,5ek eta gizonen % 20,8k soilik uste dute nahikoa dela egungo ezagutza. Etxea pertsonalki ezagutzen ez dutenen % 6,8k soilik uste du behar adina ezagutzen duela. Bestela esanda, ezjakintasuna bera interpreta daiteke Emakumeen Etxea ezagutarazteko kontzientzia gisa, eman beharreko babesari buruzko aurreko galderarekin lotuz.




Halaber, gehienek uste dute Emakumeen Etxea balio erantsia dela Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen artean. Pertzepzio hori zertxobait handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 79,5 eta % 70,1, hurrenez hurren), eta nabarmen handiagoa da etxea ezagutzen dutenen artean ezagutzen ez dutenen aldean baino (% 85,7 eta % 40,7, hurrenez hurren). Nolanahi ere, Emakumeen Etxea balio erantsizat jotzeko adostasunik ez dutenen artean, adierazi behar da erabateko gutxiengoa dela erabateko desadostasuna erakusten duena. Hau da, gehienak erantzun lausoak dira (ez daki/ez du erantzuten).

Emakumeen Etxea ezagutzen dutenen % 4,3k baino ez du adierazten ez dela balio erantsia, eta ezagutzen ez dutenen % 3,4k.



Gehienek uste dute Emakumeen Etxea beharrezkoa dela Donostiarako. Udaleko bost langiletik lauk hala uste dute. Iritzi hori askoz ere zabalduagoa da emakumeen artean (% 82) gizonen artean baino (% 77,9), eta gora egiten du etxea ezagutzen dutenen artean (% 86,6). Izan ere, etxea beharrezkoa dela esaten ez den kasu gehienak esan dezakegu ezjakintasunaren ondorio direla. Ez da oso ohikoa Emakumeen Etxea ezagutzea eta beharrezkotzat ez jotzea (% 4,3).



Korrelazio handia dago etxea udal zerbitzuei erantsitako balioa dela uste izatearen eta beharrezkoa dela uste izatearen artean, baina ez da korrespondentzia zehatza. Zerbitzu gehigarria dela uste duten gehienek diotenez (% 93,2), beharrezkoa da Donostiarako. Eta, alderantziz: beharrezkoa dela uste dutenen % 89,2k uste du balio erantsia duela. Bada ehuneko esanguratsu bat, uste duena ez dela balio erantsia zerbitzuetarako (ez dute sinesten edo ez dute erantzuten), baina hirirako beharrezkoa dela iruditzen zaie (% 36,8). Horrek guztiak adierazten duenez, Emakumeen Etxea beharrezkoa dela uste duten gehienek, neurri batean behintzat, udal zerbitzuen balio erantsia delako egiten dute. Baina behar horrek udal zerbitzu izaera gainditzen du. Nahiz eta ez izan balio erantsia, eta izaera publikotik kanpo egonda ere, Emakumeen Etxea beharrezkoa da bere horretan.

Etxearen beharra argudiatzeko arrazoiak asko dira, baina hiru mota nagusitan bil ditzakegu, zeinak loturik baitaude elkarrekin. Lehenik eta behin, errealitate jakin batean eragin behar dela uste delako: benetako desberdintasunaren ondorioz, aldaketa sozial baten alde jardun behar da, berdintasunaren, justiziaren eta ahalduntzearen ikuspegitik; emakumeek premiak eta larrialdiak dituzte, eta horiek erantzun bat behar dute, zerbitzu espezifikokoak eta arreta emanez; eta, azkenik, Emakumeen Etxearen moduko espazio bat ezartzeak emakumeen bizi kalitatea hobetzen du berez, eta irabazi egiten dute bizi baldintzetan. Bigarrenik, Emakumeen Etxea beharrezkoa da Udalak bere eginkizunak bete ditzan; horien artean daude berdintasunaren aldeko borroka eta herritarren beharrei erantzutea –kasu honetan, emakume izateak markatutako beharrei–. Eta horri guztiari erantzun ahal izateko, espazio fisiko bat behar da. Etxeak funtzio horiek betetzen laguntzen du; bestela, Udalaren gabezia izango litzatekeena estaltzen du. Hirugarrenik, Emakumeen Etxeak lanerako duen eredu jakinak baliotsu egiten du berez.

Funtzionatzeko moduan elementu baliotsuak daude, eta mantendu ez ezik indartu ere egin behar dira, erreferentzia izan baitaiteke berez eta erakundearen gainerakoentzat.

<b>Errealitatean eragiteko</b>
<b>Desberdintasuna errealitatea baita</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- <i>«Espazio feminista horiek beharrezkoak direlako, gizartean oraindik asko falta baita berdintasun eraginkorra lortzeko.»</i></li><li>- <i>«Oraindik bide luzea dugulako emakumeen berdintasunean.»</i></li><li>- <i>«Eta bestetik gizarteak oraindik ere berdintasun arloan lan asko daukalako egiteko eta Emakumearen Etxeak formakuntza eta kontzientziazioaren alde lan garrantzitsua egiten duelako. Gizartea berdintasunean hezi arte ezinbestekoa da erakunde hauen lana.»</i></li><li>- <i>«Gizarteak oraindik lan handia duelako egiteko berdintasunaren arloan, eta Emakumeen Etxeak lan handia egiten duelako prestakuntzan eta kontzientziazioan. Gizartea berdintasunean hezi arte, ezinbestekoa da horrelako erakundeen lana.»</i></li></ul>
<b>Berdintasuna eraikitzen duelako</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>«Bistan da emakume eskubideen alde egin den lana, eta Emakumearen berdintasunagatik.»</i></li><li>• <i>«Emakumeen errealitatea eta emakumeen eta gizonen eskubideen berdintasuna aldarrikatzen jarraitzeko beharra ikusarazten ditu.»</i></li><li>• <i>«Helmuga garbi dagoen arren (berdintasuna) oraindik asko falta delako iristeko eta bide horretan lagungarria delako.»</i></li><li>• <i>«Beste inon egiten ez dena egiten delako emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko asmoz: tailerrak, hausnarketak, aholkularitza, laguntza...»</i></li></ul>
<b>Emakumeei arreta eta erreferentzia ematen dielako eta haien bizi kalitatea hobetzen duelako</b>

- *«Alde batetik, beharra duten emakumeek leku jakin bat izatea laguntza, gidaritza eta aholkua jaso ahal izateko, oso garrantzitsua iruditzen zait. Zuzeneko arreta gune ezinbestekoa.»*
- *«Laguntza eskaintzen dielako behar duten emakume guztiei.»*
- *«Eskaintzen duten zerbitzuagatik, oso beharrezkoa baita emakume askoren egoera hobetzeko, izan hemen jaiok, izan beste leku batzuetatik etorriak.»*
- *«Beharrezkoa iruditzen zaidalako leku jakin bat izatea, edozein emakumek hara jo ahal izateko, inolako kuestionamendurik jaso gabe.»*
- *«Emakumeen ahalduntzean oraindik badagoelako egin beharra eta batik bat emakume etorkinei oso ondo datozkie informazioa eta bertako zerbitzuak.»*
- *«Emakumeentzako espazio propioa eta beraien beharrak eta nahiak lasai azaleratzeko espazio izan behar duelako.»*

### **Emakumeen sareak eraikitzen dituelako eta ahotsa ematen duelako**

- *«Kolektibotasunetik abiatuta indarra garatzea ahalbidetzen duen eta isolamendutik ateratzen laguntzen duen espazioa delako, eta emakumeen artean sororitatea sostengatzeko sare bat sortzeko aukera ematen duelako.»*
- *«Erreferentziazko topaleku bat da, berdintasuna helburu duen edozein ekintza egiteko lekua eta jardun horretan dabiltzan hainbat emakumeren biltzeko lekua.»*
- *«Emakumeok horrelako espazio propioak behar ditugulako sareak osatzeko, feminismoa zabaltzeko, ahalduntzeko...»*
- *«Emakumeei ahotsa emateko, jakinik emakume izate hutsagatik mendekotasun eta gutxiagotasun rola dituztela familian, lanean eta harremanetan.»*

### **Udal erantzukizunagatik**

### **Udal zerbitzuak osatzen ditu**



- *«Administrazioan lehendik dauden beste zerbitzu batzuen osagarri delako.»*
- *«Uste dut udalak gai honi lehentasuna eman behar diola eta Etxea horretarako beharrezkoa dela.»*
- *«Ikuspegi feminista inplizituki daraman zerbitzu bakarra delako.»*
- *«Udalaren begiradak ez dezan galdu emakumeak pairatzen duen egoera patriarkala.»*
- *«Gaur egungo zerbitzu karpetak ezin die erantzuna eman zenbait alderdiri eta premiari; esate baterako, talde berdinzale batean babes sentimentua sortzea, izapide jakinetan orientatzeaz eta laguntzeaz harago. Emakumeen Etxeak prozesu batean zehar laguntza sare iraunkorrago bat sortzeko ahalmena du.»*
- *«Errealitatean zaila da administrazioak emakumearen ikuspuntua txertatzea. Langileen kontzientziazioa mailaren araberakoa da askotan. Kanpotik, modu independentean, beharrezkoa da Udalaren jarduna ikuskatu eta presioa egitea.»*
- *«Udaleko beste sail batzuetatik lantzen ez diren gai espezifikoak estaltzen dituelako.»*
- *«Eskaintzen dituen zerbitzuak oso garrantzitsuak direlako: alde batetik, batzuk hor bakarrik eskaintzen direla uste dut eta, bestetik, genero ikuspegia/ikuspegi feminista dute. Hori oinarrizkoa iruditzen zait.»*
- *«Emakumeen beharrak hurbilagotik helarazten dituelako erakundeetara. Konektatu.»*
- *«Udalan emakumeen gaia modu zeharkakoak landu behar delako eta emakumeen etxea baliabide garrantzitsua delako.»*

### **Berdintasun politikak «gorpuzten» dituelako**

- *«Berdintasuna lortzeko politika positiboak behar direlako eta ezinbestekoa da egoitza fisiko duin bat.»*
- *«Gai hau auzoz auzo lantzea ezinbestekoa delako eta toki fisiko bat izatea garrantzitsua da.»*
- *«Beharrezkoa da berdintasun politiketan aurrera egiteko ekintzak hausnartzeko, aztertzeko eta proposatzeko gune bat izatea.»*
- *«Denek, inolako salbuespenik egin gabe, aukera berdinak edukitzeko egin behar den bidea egiteko, erreferentzia instituzional eta fisikoa behar delako.»*
- *«Emakumeek toki bat behar dutelako beraien aldarrikapenak ondo plazaratzeko.»*

### Udal ekintza osatzen duelako eta herritarrekin konektatzen duelako

- *«Udalak, administrazio bezala, berdintasunaren alde egin dezakeenaz haratago joan daitekeelako. Hiritar, elkarte edo bestelako eragileentzako gune bat irekitzen duelako, udalaren helburu berak lortzeko berdintasun alorrean, eta administrazio iristen ez den hainbat lekutatik lan egiteko, ikuspegiak gehituz eta osatuz.»*

### Funtzionatzeko modua baliotsua delako

- *«Informazioko eta aholkularitzako langileak eraginkorrak eta erresolutiboak dira.»*
- *«Ekintzen eta azpiegituren osagarri izateaz gain, hurbiltasuna eta irisgarritasuna ere alde ditu, kudeatzeko moduak berrikuntza osagai bat ematen du eta errefortzu bat da hausnarketa eta ekintza prozesuei dagokienez.»*
- *«Emakumeen beharrak hurbilagotik helarazten dituelako erakundeetara. Konektatu.»*
- *«Uste dut oso garrantzitsua dela emakumearen etxea existitzen jarraitzea; gainera, hor lan egiten duten pertsonak ez dute epaitzen eta oso profesionalak dira.»*
- *«Nire ustez, balio erantsia ematen dio gune hori Udalak eta gizarte eragileek elkarlanean kudeatua izateak.»*

Udaleko langileek argi ikusten dute Emakumeen Etxearen beharra. Beharrezkoa da emakumeentzat: *«Bestela emakume batek ez lukeelako jakingo nora jo»* eta *«gizarte hobia lortzeko»*. Beharrezkoa da, eta, besterik gabe, haatik da beharrezkoa. *«Beharrezkoa baita haren existentzia hutsa»*. *«Lan asko dagoelako oraindik egiteko»*. Eta, hori guztia dela eta, hiriaren proiektuaren parte izan behar du: *«Emakumeak hiriaren proiektuan egon behar dutelako eta Emakumeen Etxea presentzia horretan saiatzen delako»*.

Baina arazoak halako erro handiak dituenez, Emakumeen Etxea beharrezkoa izanda ere ez da aski inola ere: *«Berdintasuna ez dago bermatuta hirian eta gure gizartean. Hau bultzatzen duten proiektu gehiago behar dira, Udalak daukan gizarte proiektua ez da nahikoa»*. Eta Udalak ardura hartu beharko luke: *«Asko egin da, gehiago dago egiteko. Udalak hausnartzea nahi nuke; eta dagokion garrantzia ematea. Hala bedi.»*